



Imp. IMEN
SAN SEBASTIAN

EGĀN



1-6

1975

S U M A R I O

	<u>Págs.</u>
PRINTZE EUSKALZALE: Luis Luciano Bonaparte	3
GERHARD BAHR EUSKALDUNGOAN: J. San Martín	14
GABRIEL ARESTI POETAREN HERRIOTZA ORDUAN: Juan San Martín	15
JEAN BARBIER: J. S. M.	18
KARMELO ETXEGARAI IDAZLE GERNIKAN: José Antonio Arana Martija	21
BACHILLER ZALDIBIA: J. S. M. ...	26
KARMELO ETXEGARAIREN HISTORIA IKER LANAK: Juan San Martín	28
JAN EDANAK: A. A.	33
SAGARRA ETA SAGARDOA EUSKAL HERRIAN: Juan San Martín	39
BIDEZ BIDE: Andolin Eguzkitza ...	43
HERENSUGEA (El Dragón): J. M. Satrustegi	45
PELLO BIURKA: Inozenzio Ayerbe	55
MARIREN AZKEN EGUNA: Andolin Eguzkitza	61
BI ALDIZ IL?: Etxeberria'tar P., s.	65
AUNITZ: Etxeberria'tar P. sj.	76
BETI IKAZLE: Abalegiko P.	78
"BERTSO PAPERAK": Patri Urkizu-k kopiatuta	81
ASKATASUNA: Andolin Eguzkitza	93
IZEN GABEKO IPUIA: Azpeitia'tar Julene	94
ERLE GOBERNATZALEN GUIDARIYA LIBURUA: A. Irigaray ...	98
MAITASUNEZKO BERTSU ZAHARRAK: A. Irigaray. Kopiazalea ...	101
SUGE-LILIA: Eñaut Etxamendi	109
MAIATZ-LILIA: Eñaut Etxamendi	110
OMAR KHAYYAM'EN RUBAIY'A: Bingen Ametzaga	111
REQUIEM ALTUBEREN ARAUEI: Eusebio Erkiaga	127
HIRUSTAK HOSTO BI BAINO EZ ZITUEN: Jose Antonil Agirre Odriozola	132
1974 URTEKO LIBURUAK: J. S. M.	137

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Exma. Diputación de Guipúzcoa.

DIRECTOR: Luis Michelena.

CONSEJO DE REDACCION: Angel Irigaray, Antonio Arrue y Luis Michelena.

DEPOSITO LEGAL: SS. 289-1958

Imprenta IMEN — P.º Colón, 4, S. S. — Julio 1976.

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Gulpúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XXXV

Enero-Diciembre, 1975

P. S. Artíkulo hau konpondurik, artu dugu. Isidoro Fagoaga gure adiskidearen il-berri samina.—Oruikotz bada, txoil gure dolumin aundienarekin, sartzen dugu bere irakurgai hau.—

PRINTZE EUSKALZALE BAT

Luis Luziano Bonaparte

Euskara edo «Lingua Navarrorum», Antso Jakintsua erregeak deitu zuen bezala, denbora antziñakoenetatik, irizpide eta interpretaziño klase guzieren bil-toki izan da, laudoriogarrienetatik makurgarrientaraño. «Leku gutxi izanen da munduan —irazten du Rodney Gallop ingelesak— kontakizun burugabeagorik eta egiari zordunagorik egin denik; halaber, literatura erantzukizun gutxiagokoa eta oñiarri ahulagokoa izkiriatu denik, euskaldunak bizi diren Frantzia hego-sartaldeko eta España iparraldeko eskualde honi eskeiñitakoa baiño. Eta gero, zabalagotuz, dio: «Herri honen jatorriari eta historiari inguragarri zaion misterioak, bere hizkuntza bitxiaren zailtasunak eta kanpoko munduarekin izan dituen kontaktu guzietan erakutsi duen arreta handiak —arreta hau izan daiteke arraza bezala irautearen kausa— urrutiko aizez jantzi du eta bere ingurumaria elaberri giroz ehun» (1).

(1) Tejer.

HIZKUNTZALARITZA FETITXEKERIA (2)

Halaxen baita; arakatzaille britaniarrak aipatzen duen elaberri giro hau, joan den mendearen hastapenetaiaño euskaldun arrazaz eta hizkuntzaz iratzi diren aipamen guzien berri eman duen jarraibidea (3) izan da. Max Müller'engandik hasita, bere *Science of Language*'n, ironia nabariz gogoratzen baitigu, XVI'garren mendean Iruñe'ko kapitulu metropolitanoko kalonjeak eduki zuten billera, Adan eta Ebak Paradisuan euskaraz egin zutela fedeko artikulutzat hartu behar ote zen erabakitzeke. Julian Txurrukako'rekin jarraitzen du, hots, Trafalgar'ko gizandi zorikabearen anaia, honek iragartzen baitzuen —Apocalipsis'ko testotan goiargituz, fantasiatzko euskal-etimolojia bidez baliaturik— Jesukristo Gure Jaunaren etorrera 1825'ean. Azkenik, izan da gure egunetan injinadore bat F. Basalduako zeritzana, Montevideo'n egindako gonferentzia batean esaten zuena euskaldunak Arraza Gorriaren ondorengoak zirela, zeren, haien hizkuntzan *larrugorri* hitzak *billotsik* (*billutsik*, *larrutsik*) eta *larru gorria* esan gura baitu... Goraipatzaile mihiluze hauen eta beste askoren kontakizuna amaigabea egingen litzateke.

Hizkuntzalaritzako fetitxeeria honen azalpena Matxin Ugaldeko'k ematen digu polemika prestu bat darion «Unamuno y el vascuence» izenekiko liburu ernegarrian: «Gizonaren munduaz nagusi ziren ideiak 1700'en hasierataiaño —irazten du autore honek— Aztikeriara (4) oso ixuriak ziren, hots, ideia nagusi honetara: zer-nola (5) guziak, baita iragankorrenak (6) ere, bixtakoa zenez, erabakiak zeudela naturaz goitiko arrazoiren bategatik; eta jakiña, mintzaira-jakintza etzen anartean sortu».

ZIENTZIABIDEZKO HASTAPENA

Doi-doi (7), XIX'garren mendean izan zen lehendabiziko ahalegiñak egin zirenean buru-berokeria zoro haiek galdu-azteko, eta hizkuntza zahar honen ikaskuntzari oifiarri zientifiku zorrotzez baliaturik ekin zitzaion. Lan gaitz honen eragille izan ziren bata bestearen ondoren, peninsulako hizkuntzalari batzuen ondoan —Azkue, Campión, Mitxelena, Tovar, Menéndez Pidal (8)— atzerriko aztarrikatzaile mordo bat,

(2) Testuan: Fetichismo lingüístico.

(3) Testuan: la constante.

(4) Testuan: a lo mágico.

(5) Aintzin-gibel, kako = circunstancia.

(6) Hedakorrenak, zabalkorrenak: trascendentes.

(7) Exacto, exactamente.

(8) «Euskararen estudio sakon bat gabe —iratzi zuen Ramón Menéndez Pidal jaunak— sekula ez dira zeharo argituak izanen Peninsulako gizagoitzearen zimen-duak eta lehendabiziko jokabideak» (Egillearen oharra).

hala nola Milkman, Bähr, Hannemann (9), Urtell eta Bouda alemanak; Van Eys eta Uhlenbeck holandarrak; Webster, Hall, Russel, Bond eta Dodgson ingelesak; Trombetti eta Bausani italiarrak; Ribery eta Slabi hungiarrak; Garat, Charencey, Gavey, Vinson, Luchoire, Lacombe eta Lafon frantsesak; Marr eta Kolovrat rusiarrak; Spitzer ipar-amerikarra, Tauer txekoslobakiarra, Nils Holmer sueziarra, Vogt noruegarra eta, beste askoren artean, Humboldt'ek, Hugo Schuchardt'ek eta Luis Luziano Bonaparte Printzeak osatzen duten hirukonde ohoretsu hori.

Aztarrikatu eta bildu den langaia izugarria izan da eta, funts handi gabeko eztabaidarik falta izan ez baldin ba'da, eta hizkuntzaren etorki-jakingaitzak aterabiderik arkitu ez baldin ba'du ere, azterlaritzaren beste sail batzuetan kontu-garbiketaren emana aintzakotzat hartzekoa izan da. Lan hontan partekide handia izan dugu Bonapartetarren leifuo (10) Printze hau eta —Fausto Arotzena'k dion bezala— «euskalarien leifuo zifnezko Printze bat izan zen». Baiñan, bere obran murgildu baiño lehen bere bizitzaren itxuragintza labor bat marra dezagun.

ITXURAGINTZA BIOGRAFIKUA (11)

Luis Luziano Bonaparte, Canino'ko Printzea eta Napoleon'en bigarren anaia egiten zèn Luziano'ren semea, Ingalaterra'ko Thorngrave'n sortu zen 1813'garren Urtarrillaren 4'an, Korzegatar erraldoiaren izarra ausiabantza (12) eta odolezko bukaera batean amiltzen zèn egun goibeltsu haieran. Gaztedanik erakutsi zuen Luis Luziano'k bizitzako bere ibilbidea bere dinastiako taldekide gehienen oso bestelakoa izanen zela. Urte t'erdi zuela Italia'ra eraman zuten eta Urbino'ko jesuiten ikastetxean egin zituen bere lehen ikasketak, gero Unibersidadean jarraitzeko, kimika eta mineralojia gaiak haukeratuz. Hemeretzi urtekin Maria Anna Cecchi zeritzàn eskultore baten alabarekin ezkondu zen, baiñan etzen zorionekoa izan beronekin. Luis Luziano'k behin baiño gehiagotan legezko bereizketa proposatu zion, baiñan «Florentziar emazteki eder eta bazter-nahastailleak» —Lacombe'k deitzen zion bezala— etzuen onartu. Harengandik ardietsi ahal izan zuen guztia, era-

(9) Atzerritar filologarien artean euskal-hizkuntzak piztu duen interesaren frogagarri, Frantzia'n eta beste herrialdetan hartaz egin diren eta egiten ari diren argitarapenez gairera, beste adierazgarri hau daukagu: alegia, joan den mendearen azken aldean, *Euskara* izeneko aldiroko bat fundatu zela Berlin'en, Karl Hannemann'en zuzendaritzapean, eta Baskische Gesellschaft (Eusko-Gizartea) bat, Germaniar Herribilgoaren taldekidez osatua (E. O.).

(10) Linaje.

(11) Testuan: esbozo biográfico.

(12) Derrota.

bat Ajaccio'n, Korzega'ko hiriburuan, Bonapartetarren etxean bizitzen jarriko zela egin zion agintza izan zen. Eta bai bete ere, hantxen hil baitzen berrogei urte geroago, 1891'an.

Egoitza lokarritatik libro, Luis Luziano'ren bizitzak, une horretatik, joera ustekabeko bat hartuko dizu. Hortara lagungarri etorriko zaizkio Frantzia eta, bata bestearen ondoren, Europa osoa astinduko dituzten gertaerak, 1848'ko Urriaren 18'an Bonaparte maiñadaren (13) gain emana zegoen desterru-legea altxatzen da. Beronen taldeko guziak Frantzia'ra itzultzen dira, Luis Luziano ezik, hau Korzega'ra joaten baita eta han, Bilkura Osafzaillearen (14) aintzinean uharte hontako aurkezle izateko hautatzen dute. Bestalde, bizitza guztia politika-azpilaneari jardun den Luis Napoleon, Errepublikako Lehenburutzara (15) altxatua da eta hiru urte geroago, Napoleon III'garrenaren izenez, Inperio agintaulkira.

GOI-AGINTEDUN MAIÑADAREN TALDEKO (16)

Ondorengotza gaietan bere aita gidatu zuten lehenkiak (17) bere egiñaz, Luis Luziano'k eskubide-eskea egiten du eta baita arditsi ere bere lehengusu Enperadorearen gandik eskubideon aitortza goi-agintedun maiñadaren taldeko bezala. Hori dela-ta, Printze tituluz jantzia da eta, Goitasun tratamenduarekin, ehun eta hogeitamar milla franko urteko jartzen zaizkio bere eskuko.

Bat-bateko bizi aldaketa honek pentsa-eraz lezake Printze disdiratsuak, bere ahaide ugariak bezala, politikaren eta gorte-azpilanen zurrunbilloan murgil egin behar zuela. Baiñan haren izpirituak ezin irents horrelakorik. Ingalaterra'n landatzen du bere bizitokia eta, bertarren eta arrotzen harridurapean Hizkuntza-Jakintzari ematen zaio buru-belarri. Hamazortzi urtean —napoleontiar bigarren inperio honen iraunaldia, alegia—, Printzeak, bere denbora eta errentak osoki erabiliko ditu hizkuntza estudiantan, baitipat euskarari dagozkionetan, geroago ikusiko dugunez.

Inperioaren erortzearekin bere izenean zegoen diru-iturria agortzen zaio eta Printzeak, bere lehengusifia egiten zèn Eujenia Enperadorea ohiak (18) opaetsi zion errenta batez bizi behar du. Beranduago, bere zahartzarora iritxirik, Gladstone'ren Gobernuak urtean 250 librazio

(13) Familia.

(14) Asamblea Constituyente.

(15) A la Presidencia.

(16) Testuan: Miembro de la familia reinante.

(17) Principios.

(18) Testuan: ex Emperatriz.

bizigarri (19) bat eskukotzen (20) dio «patois delakoaz eta Ingalaterra'ko dialektoez egin lanakatik».

Txit osasungabeturik eta ia itxua Fano'ra erretiratzen da, Urbino'ko inguruetan —hots, bere haurtzaroko eta... Rafael'en Urbino—. Hemen jakiten du bere emaztearen heriotza Ajaccio'n. Orduan, bere amodio-bizitza osoaren zuzentze bat bezala jo daiteken egintza bat borobildu zuen: *in articulo mortis* ezkondu zen Clemencia Richard Grandmontagne'ekin (21). Egun hortan maitasuna eta heriotza bake-muin batean laztandu ziren. Printzeak 78 urte zituen. Hillotza Ingalaterra'ra eraman zutelarik, St. Mary deritzan kanpo-saindu katolikuan datza, Kensal Green izenez ezagutua den Londres'ko hillerri nagusiaren ondoan.

BONAPARTE'REN HIZKUNTZA-IKASGO OBRA (22)

Estudio-kritiko aunitz egin da ia mende baten luzaroan, Euskal-errrian eta atzerrian, Bonaparte'ren hizkuntza-ikasgo lanaz. Gure egunetan, beren dokumentaziño ugaritasunez eta zientzia-zorroztasunez, Julio Urkixoko, Georges Lacombe, Pierre Lafitte, Aita Iurgi Erriezuko, Aingeru Irigarai eta René Lafon jaunen lanak gaillentzen dira beste batzuen artean.

Zailla da siñalatzen zein garaitan izeki zen Printzeagan bere zale-tasuna hizkuntza-ikasgotarako. Bakar-bakarrik afirma dezakegu, hogeitamelau urte zituelarik, 1847'an, musikarako eta mineralojiarako bere lehen joerak alde bateratuz, bere lenengo hizkuntza-ikasgo lana Florenzia'n argitaratu zuela titulu honekintxe: *Specimen lexic comparativi omnium linguarum Europeaerum*. Folio liburu labur bat da eta bertan hiztegi poliglotaren izen-lerro bakoitza 51 hitzez osatua dago, beste hainbeste hizkuntza liferentereri dagozkienak alegia, eta —arrigarriko halabeharra!— sail bakoitzaren buruan euskarari zegokion hitza zihoan.

(19) Testuan: pensión.

(20) Testuan: le asigna.

(21) Richard Grandmontagne'ren bi arrebatatik zaharrena —Antxiko (Francisco) Grandmontagne izkiriartzaillearen izebak ziren hauek—, Clemencia, Bonaparte Printzearen gaztetako amodioa eta *in extremis* emazte billakatua izan zen. Bestea, Lucía, Claudio Otaegi'rekin ezkondu zen, poeta jatorrizko euskal-hizkuntzan, goi-argituenetakoa gaiñera bere garaikotan. Hau, bestalde, Tomás Otaegi'ren lehen-gusua zen, Argentina'ko juriskonsulto hotsaundikoa, «Derecho de gentes argentino» deritzan liburuaren egilea. Obra hontan, Plata'ko Errepublika handiaren osagintzan euskaldunek izan zuten paper nagusia azaltzen du, lehendabizi kolonia bezala eta gero Legerri libre bezala (E. O.)

(22) Testuan: la obra lingüística.

Urte batzuek geroago euskara biziarekin, hitzegiñarekin, euskalkiekin har-emanean jartzea erabakitzen du, hots, forma herrikoiei honek bere-bereak dituen fenomeno morfologiko, fonetiko eta leksikalen aberastasun aldagarri guziarekin. Horretarako Euskalerriratzea pentsatzen du. Sarreragilletzat merezimentu handiko jakintsu bat egokitu zitzaion: Antonio Abadia Urrustoiko (Antoine d'Abbadie d'Arrast), etnolohiari eta hizkuntza-ikasgoari emanik zegoen jaun prestua, urte luzetan Paris'ko Zientzia-Akademiako lehenburu izandakoa. Bere lehenbiziko txangoa —ia hiru hillabeteko irauñekoa— 1856'an egin zuen. Cavagnari jeneralak laguntzen dio urgazle eta zadorlari (23) bezala, eta morroi batek. Gero, hamabi urteko epean, bost txango gehiago egiten ditu. Hiztun onen billerak eratzen ditu zenbait hiritan. Lankide sail trinko bat osatzen du eta beroiek beren probintzietan zehar laguntzen diote. Artzaiñei, maixuei, ostalariei, kanpaña-apezgotako bereterrei (24) galdegiten die, entzuten duen guzia apuntatuz eta berriz ere nagi gabe galdetuz. Bere entzumenaren fintasunak nekazari jende honen mintzairaren gora-beherarik xumeenak ere arrapatzen ditu. «Arduratsu prestatutako bere galdegiak —aditzera ematen du Villalonga'k— aintzin-ikusmen harrigarri batez tajutuak zeuden eta honela, galdekizunera ekarritako gizonaren erantzunak etzuen beste erremediorik, aztergai zen halako edo bestelako esaera, hitza edo elementu morfologikua erabilliz ihardetsi (25) baizik». Liburuak, folletuak eta esku-iskribuak billatzen ditu eta, hobekiago editatzeko berak eta bere lankideak elaboratzen ari direna, inprenta bereizi bat jartzen du Baiona'n. Hauetako lankide batzuek —Uriarte, Azpiazu, Duvoisin— Londres'era deituak dira tarteka-marteka euskalkiei buruzko galderak egiteko, probak zuzentzeko eta abar. Arikizun hauetan —berak zionez: «egun batean urrezko izanen diren ondarezko aleak jaso nituñ hizkuntza-ikasgo txangoak»— bere ogasunen parte handi bat iraultzen du Bonaparte maiñadaren denbora oparoetan.

HIZKUNTZALARITZA HESIKETAREN TAKTIKA (26)

Naparroa'ko iparraldera egin zuñ bere txangotako batean, bazterten du bere akademia ibildaria eta Intxauspe kalonjea beste lagunik gabe, ateratzen da goizean-goiz Atharratze'tik, mando bizkarrean Piri-neo mendia gaindituz (27) eta, hamar orduko bidea egin ondoren Otsagi-Otxagabia'ra iritxiz. Han nekazari taldetxo bat dauka bere zain, ohizko

(23) Ayudante y secretario.

(24) Sacerdotes de curatos rurales.

(25) Contestar.

(26) Táctica de asedio lingüístico.

(27) Superar, sobrepasar. Testuan: escalar.

galdegintzari erantzun diezaien. Lehenago aipatutako Klaudio Otaegi poetak dionez, behiñola, Bonaparte Ifar-Nafarroa-Garaiko euskalkia estudiatzen ari zela, Atarrabia-Billaba'n billera bat eduki zuen beren hiritako hizkuntza herrikoa ongi ezagutzen zutela aipua zuten apez batzukin. Printzea saiatzan zen errezibitzen zituèn txostenen (28) segurtasun osoa frogatzen, txosten-emailleak estu hartuz trebeki egindako galdera mordoaz, kontraesanak eta doitasun-ezak nabarmen gelditzen zirelarik. Apez on haiek izerdia mara-mara zerioten eta alkar-hizketa-tik atera zirenean, haietako bat hurbildu zitzaion Otaegi'ri eta esan: guriak egin zuen».

«Zorionez honek eztizu gerlaren alde jo bere osabak bezala; bestela,

Ekiñaldi sutsu hau eta beronetatik sortu zirèn obrak —*Zazpi probintzien hizkuntza-mapa* bezala eta, batez ere, *Le Verbe Basque en tableaux*, perifrasisiko konjugaziñoari dagokion benetako dato bilduma bat—, akidura izugarri baten erakarle izan zitzaizkion eta ondorengarri atake batek jo zion burura. Printzeak berak sendoesten du 1872'ko gutun batean: «Hego-Nafarroa Garaiko aditz-laukiak neka-neka egin dit adimena, haren bukaera guziak ene buru gaixoan josten diren eztenkadak irudituz». Sendagilleek agindu zioten etsi zezala halako lanak egiteaz bere egunak luzatu nahi baldin ba'zituen; baiñan eriak etzion men egin aginduari, eta hori izan zen, berak aitortzen digunez, bere itxutzearen kausatako bat.

Aski goietsi eziñeko biblioteca (29)

Hanitz burulan egin da Bonaparte'ren poliglotismoari buruz. Komentatzaille batzuek beren berotasun laudorioragarran esan izan dute osoki menderatzen zituela hizkuntza hillak, bizirik gehienak eta aunitz dialektu. Ahoberokeria nabarmena dago adierazpen horietan. Printzeak, italianoz, frantsesez, ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz izkiriartzen eta hitz egiten zuen arruntki. Hontaz gaiñera, Europa'ko hizkuntzarik asko ezagutzen zuen gramatikalki eta ikaskuntza sakonak egin zituen ugro-fines hizkuntzez, zeltar dialektuez eta neolatino deritzaten *patois* mintzairaz. Hiltzean, linguistikaz orduraifño bildu ahal izan zen bibliotekarik inportanteenetako eta orijinalenetako bat utzi zuen Londres'en. Inkunableak eta kodizeak bakarrik ezin neurtuzko baliodun bilguma osatzen dute. Saillik inportanteena euskarari eta Euskalerrria'ri buruzko liburuena da. Victor Collins filologari ingelesak antolatatu kataloguan 33 horrialde oku-

(28) Informe.

(29) Testuan: Biblioteca de inapreciable valor.

patzen ditu beronek 119 artikulokin, bi milla liburu (30) baiño gehiagori dagozkienak.

Buenos Aires'ko euskara

Printze goietsi honek —ikusten ari garen bezala— edozein hizkuntzaz egin den estudiorik zuhurrena eta egonarritsuena bururatu ahal izan zuen, zeren aztarrikatu baitzuen euskara eta hiru multzotan sailkatu, hauen baitan zortzi euskalki, hogeitabost euskalkipeko eta berrogeitamar euskal-aldaki kabitzen zirelarik. Baiñan, ustekabe batekin aurkitu zen, alegia, bazela beste euskara mota bat bere mapan eta bere azterlan xehe-mehetan agertzen etzena. Hain berezkoa zaion gatz-piparrez Antxiko Grandmontagne jaunak *Los emigrantes prósperos* bere liburuan kontatzen digun pasadizu zapoetsu bat da hau. Paseatzen ari zen egun batez Bonaparte Baiona'ko karriketan eta halakoan, berak jeografikuki ezagutzen etzuen euskara batean hitz egiten somatu zuen giza-seme bat. Eta galdegin zion:

—Nongoa zaitut?

—Aldudarra (31).

—Baiñan Aldude'n (32) ezta euskara hori egiten. Zuk beste alderdita-ko euskal-hitzak nahasten dituzu.

—Buenos Aires'en mintzatzen gara horrela.

—Horratx! Buenos Aires'en euskara berri bat sortu ahal da? Hobeki esan, zuk egiten duzuna ezta berria; euskara guziak baturik da.

Baita Antxiko jaunak esplikatu ere: Herriko seme bat zen. 1880'garren urte inguruan gertatu zen hau, esne-zabalketa Buenos Aires'en euskaldunak zeharo monopolizatutako merkatalgo bat zèn garaian; hots, lurralde guzitako euskaldunak, bakoitzak bere euskara egiten zuelarik. Nahaste hontan hiztun batek bestearengandik hartzen zuen, hizkuntzan batasun gixa bat sortuz eta denek txit ongi ulertuz. Arras kezaturik Printzea euskara hartaz, estudiatu zuen eta gero txosten bat igorri gizarte jakintsuetara, linguistika aurkikunde berriaren albiste ematen zuelarik bertan.

(30) Testuan: volúmenes.

(31) Alduidarra, Aldubidearra.

(32) Baztandarrek: Alduide. Jatorriz: Aldubide. Frantsesez: les Aldudes. Gaztelaniaz: Alduides.

Italiar hizkuntzan, Printzeak berak zionez «besteak baiño hobekixea-go izkiriartzen zuena» (33) zelarik, *Cantabra favella*'ri, hots, bere euskara maiteari, bere azken omenaldia eskeiñi nahi izan zion Luis Luziano Bonaparte'k. Ebate edo egitura (34) klasiku batean egin zuen, eta *in extenso* aldatzen atsegin zaigu, halako poeta prestuari omenaldia itzuliz:

IL VERBO

Sotto il triplice regno di Natura
Giovane ancor studiava gli elementi
E passava i miei dì, l'ore e i momenti
Meditando l'atomica struttura.
Convinto poi che ad immortal creatura
Meglio se conveniano altri argomenti,
Gli studi miei diressi e i pensieri
A te, Sacra, infallibile Scrittura.
Fra tante lingue, o Cantabra favella,
Da nove lustri assorbi l'esser mio
E apparì a me divinamente bella!
Tu, col tuo Verbo, documento pio,
Mi dici: Amico, sola io sono quella
In cui latente é il Verbo, e il Verbo é Dio.

(Naturaren erreñu hirukoizpean,/ artean gazte, elementuak estudia-tzen nituen/ eta egunak, orduak eta aldiuneak igarotzen nituen/ egitura atomikua gogoetatuz./ Sinestatua gero sorkari hilleziñari beste argu-mentu batzuek hobeto zegozkiola,/ ene ikaskuntzak eta gogoetak zuga-nontz zuzendu nituen Irazkuntza hutsegín ezíña./ Hainbeste hizkuntzen artean, ene Kantauri mintzaira!./ hogeitabost urtez geroz ene izana ires-ten duzu/ eta ene aintzinean agertzen zara Jainkozko ederrez!/ Zuk, zure Mintzoarekin, dokumentu onetsi hori,/ esaten didazu: Adiskide, ni bakarrik naiz.../ Mintzoa taupaka ari den/ hura (35),/ eta Mintzoa Jain-koa da).

(33) Hitzez-hitz: era «la que escribía menos mal». Euskaraz ez daiteke horrela itzul eta jazki liferentez esangura berdintsua ematen etsi behar izan dugu.

(34) Testuan: corte.

(35) Dokumentuaren esana honela da gaztelaniaz: Amigo, sola yo soy aquella / en que latente se halla el Verbo, y el Verbo es Dios. Erdal-hemistikoak errespetatuz honela eman beharko genuke euskaraz: Adiskide, ni bakarrik naiz hura / Mintzoa taupaka ari dena, eta Mintzoa Jainkoa da. Baiñan joskera hau zillegi eztelako euskaraz, «sola yo soy aquella» esaldia ebaki beharrean aurkitu gara, «ni bakarrik naiz... hura» egiñaz eta jakíña, erdal hemistikio ordena urratuz.

Luis Luziano Bonaparte'k —«euskalaritan euskalzaleena», begi zorrotzez deitu zitzaion bezala— «Kantauri mintzoaz» egiten duen laudorio hau, aldizka poeta etorridun izaten zekièn jakintsu baten adierazpen zoriontsu bat da. Baiñan ziñezko euskaldunak atsegiñez betetzen dituena, gure hizkuntzaren geroaz Printzeak hitz zeatzetan egin zuen iragarpena izan zen. Alegia, Jullien Vinson'i izkiriatur honela zion: «Euskara mendez-mende biziko da, neuk garantizatzen dizut Vinson jauna, egiazko hizkuntzalarien eta filologarien atsegingarri».

Iragarpen hau errealitate bat da egun. Euskal-hizkuntza orain landua baita honoko unibersidadetan: Salamanca, Bordele, Iruñea, Deustua, Tolosa (Frantzia'koa), Paris, Erroma, Berlin, Erlangen, Oslo, Praga, Tokio eta Donostia'ko Urkixo-Mintegian. Begirunezko eta mirespenezko onginahi-giroak inguratzen dio egiaren eta ederraren maitatzaille direnen atsegingarri eta ez-jakiñen eta gaiztagiñen nahasmengarri.

Egille: Isidoro Fagoaga

Itzultzaille: Yon Etxaide

Donostia'n, Maiatzak 13, 1975.



Gerhard Bähr Euskaldungoan

Euskaldungoaren ikerketan atzerritar jakitunei asko zor diegu, baina Gerhard Bähr ezin dugu sartu, oso-osoan, atzerritarren arteko. Bera, guraso alemanegandik, Legazpiko Udana hauzoan sortu zen 1900. urtean eta bertan igaro zuen bere haurtzaro guzia. Bere aita Kataberako meatokien zuzendari zelarik.

Aurtengo maiatzaren seian bete dira bere jaiotzaren hirurogetahamar urteak, eta inork merezi badu, Bähr zenak ongi merezia du oroitzapenezko artikulu bat. Hau dalata, Legazpiko «La Salle» hileroan Inazio Arbide jaunak eskaini dizkio pare bat artikulu eta guk ere gure aldetik gaurko honekin nolabait kunplitu nahi genuke.

G. Bähr, hamairu urtekin alemaniara estudiatzera joan arte hemen bizi izan zen. Geroztik han eta hemen igaro zituen bere gaztaroko urteak. Adinez heldu zen, baina zahartzarorik ez zuen ezagutu. Gerrak hartu zuen eta itzultzaile edo adiarazle uniforme itsusi batekin batetik bestera ibili beharra izan zuen, eta gudatearen azken egunetan, rusoak Berlin-en sartzean hil omen zuten, 1945eko apirilaren 27an. Egiazko zientzi gizona zenez, euskaldungoak ikertzaile bikain bat galdu zuen.

Lan jakingarriak argitaratu zituen, RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) aldizkarian, 1926. urtetik 1936.era bitartean eta «Euskera»n 1931tik 1935era bitartean. Bere lan hoiien eskergarri, Euskaltzaindiak bere urgazle edo laguntzaileen arteko izendatu zuen.

Euskara oso ongi zekien, bere lan batzuetan argi erakutsi zuenez. 1928an, Iruñean, *H. Schuchardt zana* izeneko liburuxka bat argitaratu zuen aleman jakitun haren oroiz. «Euskal esnalea»n, 1922an, «Uaño naiz xirietaz» izeneko lan bat, eta 1931an, «Euskera» aldizkarian, «Ostrailika ta ostadarra Gipuzkoan» izeneko. Gure euskara zein jator erabiltzen zuen adiarazteko, azken lan honen hasierako zatitxoak jasoko dugu, dagoan dagoenez: «Zeri nagokion garbi, baiña álik laburrena esatearren, itz bi aurretik. Gipuzkoan billatu ditudan ostrailika ta ostadarraren izen ezagun ta agirienak aztertu, beren sustraia ta zentzuna, egiñálean, adierazi, berekin zerikusirik duten uste eta siniskeri batzuek aitatu eta beste errietakoekin berdinkaratu (erkatu), auxe da nere asmoa». Irakurleak, hemendik argi ikus lezake euskaraz garbi bezain jator zekiela.

Bere ikerketazko lanak oso zehatzak izan ziren, Gipuzkoako aditz

estudioak, batez ere Legazpi inguruan, eta linguistikazko eta etnologiazko lanak: leku-izenak, abereenak, landarenak, ahaide arteko izenak eta abar. Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ren lehen tomoaren 424/425 orrialdeetan ikus dezakegu bere frutua, hain urte gutian emateko aski aberatsa izan zela.

Hizkuntza eta ohitura zaharrez gehien landu zuen. Baina ibiltari handia eta oharle ona zenez gero, beste sail batzuk ere ikutu zituen. Honegatik, gure mendietan trikuharri arraztoak idoro zituen. Nonbait, 1931an Julio Urkixori egin zion gutun batean dionez, J. M. Barandiarani aditzera eman omen zion Legazpi eta Antzuola arteko mendietan zeuden harripilak Neolitos garaikoak izan zitezkeela, eta Jentiletxe izeneko batean ehortze aztarnak zeudela, Saturnino Telleriakin begiratu zenez. Egia esan, garai hartan, Barandiaranek etzuen denbora gehiegirik, hartzen zituen dei guzieren berehala erantzuteko; baina hala ere, Lakiola gaineraino heldu omen zen eta trikuharri baten aztarnak aurkitu. Geroago, 1951an, Jesus Elozegi izan zen Bähr-ek zion Jentiletxe toki hortan eta inguruko Arrolamendin trikuharriak aurkitu zituena, (ikus: «Munibe», IV, 1952, 135. orrialdean). Hain zuzen, hor dugu ikertzailearen begi zoliaren agiri ederra.

G. Bähr-en lanik sakonena, bere doktoradutzako tesia izan zen, *Baschisch und Iberisch* izenburuduna, 1940.ean Göttingen-go Unibertsitateak onartua. Gerrate garaia zenez, askok galdutzat emana zuten, baina Karl Bouda-k tesiaren kopia bat zuen eta 1948an «Eusko Jakintza»n argitaratu zuen.

Lan horretan, euskara hizkuntza berezizat jotzen du, isla bezala. Hala ere, Bouda ez dator guztiz bat, zeren honek uste bai du Kaukasoko hizkuntzekin baduela zer ikusirik.

Azterketa horietan desegintzen duena, zera da, euskal-iberiko teoria zaharra. Egia esan, ordurako nahikoa eroria egoen. Schuchardt, berak ongi demostraturik utzi zuen ustekoa zen (1908), baina E. Zyhlarz-en kritikak eman zion lehen zigorra. L. Mitxelena dionez, G. Bähr izan zen «vasco-iberismo» delako teoriaren kontrako eritziak gure artean zabaltzen zituena, RIEV-en 1934an «El vasco y el camítico» lana argitaratzean.

Igaz Mexicon hil den Pedro Bosch Gimpera ere uste hortakoa zen, Euskal Herri zaharreko eta Iberiako bi kulturen artean idoro zituen desberdintasunegatik. Hala ere, jakitunen artean zalantza handiak ziren. Hizkuntzari zegokiena linguistikaren arrazoez emen behar zen, eta alde honetatik Gerhard Bähr abiatu zen. Geroago, Manuel Gómez-Moreno-ren lan bilduak (1949) etorri ziren eusko-ibero teoria lurperatuzera eta, ordutik, G. Bähr zenaren jakintasuna oso goian jartzen da.

J. SAN MARTIN

Gabriel Aresti Poetaren Heriotza Orduan

*Lur honetan
ehortziko naute.
Ohore hau ez dautate ukatuko.
Gizonek.*

Behin holako bertso librean mintzatu zen euskal poeta hil zaigu, berrogeta bi urte bete baino lehen.

Aresti, denen gainez edo zer baino lehen, poeta handi bat zen, mundu hobeago baten alde sufritzen zuena. Eta trantze honetan, adiskidearen doluminez, poetaren hitzez esan nezake: «Neure dolorea bularraren lezean».

Bilbon jaioa, 1933ko urriaren 14an. Hamasei urtekin hasi zen euskaraz ikasten eta hogetabat zituenerako hasi zen euskaraz idazten Guatemalako «Euzko-gogoa» aldizkarian. Ogibidez Profesor Mercantil zen, eta 1957an Euskaltzaindiko laguntzaile izendatua izan zen. EGAN, Euskera, Olerti, Zeruko eta Anaitasuna aldizkarietan idatzi izan zuen euskaraz.

Maldan behera (1960), *Harri eta Herri* (1964), *Euskal Harria* (1967) eta *Harrizko herri hau* (1970) poesia liburuen egilea, eta *Lau Teatro Arestiar* izeneko liburuan, Lur editorialak R. Saizarbitoriaren hitzaurrez 1973an argitaratutakoan, biltzen dira 1961etin 1964ra idatzi zituen antzerkiak, eta hauez gainera 1969an *Beste mundukoak eta zoro bat*. Beste lan berezi batzuk ere baditu: *Malgizon-en abendurismoa* (1972) izeneko kontaerak; *Mundu-munduan* (1965) erdi antzerki erdi nobela; *Hiztegi tipia* (1973), A-tik D-ra arteko hiztegia; eta bere azterketa lanik berezienak; «Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous» eta «Léxico empleado por Leizarraga de Bricous» lanak «Fontes Linguae Vasconum»en 11 eta 13 zenbakietan (1972-1973).

Beste honako lan hauek itzuli zituen euskarara: B. Brecht-en *Xirtima zoriontsu bat*; T. Meabe-ren *Hamalau alegia*; F. Marcos da Portelaren *Nekazariaren dotrina*; eta Nazim Hikmet-en *Lau gartzelak*.

Gainera, Kriselu argitaldariaren sortzailea eta egun argitaldari berri honen zuzendarietako bat.

Euskal poesia berriaren eragilerik handiena, batez ere *Harri eta Herri* liburuko bertso libre eta sozial galetatik hasita. Antzerkian ere, era herritzearen alde ahaleginak egin zituenetako bat. Jaso zituen saririk

aipagarrienak poesian «Loramendi» izenekoak 1959, «Orixe» 1963, «Lizardi» 1966 eta J. M. Iparragirre» 1968; antzerkian «T. Alzaga» 1961.

Lanok ikusi besterik ez dugu langile borrokatua zela igartzeko. Baina denez gainez, esan dugunez, poeta handi bat. Konformagaitza. Nekatuta euskararekin jabetu zenez, gure herkideok ardurak gehiagoz bide bere har zezaten ahalegintzen zena. Hizkuntza, herria, eta batez ere langileria zituen maite eta beregatik edo beren alde sufritzen zuena kantatzen zuen erarik errazenean adiaraziz:

*Gauza zelaiak,
errezak
edonork konprenitzekoak,*

Eta ere honen bidez sentiaraziko zituen bazterrak, eta poeta berriak sortuko ziren hor-hemen gure hizkuntza zaharrari gooa berritzeko.

*Kantabriako itsasoaren kostaldera joan nintzen,
eta izaroren aurrean negarrez,
nire poemaren urrezko orriak
entregatu nizkien
entregatu nizkien
uhineri,
hobe baita itorik hil,
goseak baino.*

Mundu hontako gehienak bezala, lasai bizi zezakean, ezerekin arduratu gabe; baina ezin, justiziazko mundu hobe baten egarriak zeraman eta «...mundu honetan isuri den odolaren espilu» nahi zuen izan. Inoiz, poetak, holako galdeak egiten zizkion bere buruari:

*Zergatik metitu ote naiz
halako enplego txar batean?
Zergatik sartu ote nituen
sudurrak
hain kirats txarreko
zer-egin honetan?
Baina zergatik?
Ez nintzen ni ederki bizi
Bilboko hirian,
gastelaniaz,
hispanidadean?
Baina ez.
Nire leinuaren ezagugarria da.*

Poetak, emaztea eta hiru alaba uzten ditu, bere sufrimenduzko poesian maiz presente aurkituko ditugunak. Bere azken poema liburua bertsu batean hain nola azaltzen zituen herrienganako maitasun etsipendua eta familiaganako lotura:

*Inor ez da profeta
bere mendean.
Berriz etorri naiz
pentsamendura,
eta andre alabarik ez banu,
pozik
hilen
nintzake,
ene esanak kontsidera litzan
euskal herriak.*

Poetaren bertso asko eta asko kanta bihurtu dira gaurko gazteen ahoetan. Eta, une hoietan, hemendik aurrera, errusinola bezala ari diren kantariok ez dezatela atertu bere hitzak, zeren gogoko izanen zuen hotsa:

*Errusinolaren kantuak
nire arima
bakez
betetzen du.*

Azkenean, urte bete baino geiagoan sufritu behar izan duen eritasunaren ondotik, betiko bakea aurkitu du.

*Hiltzeko edo ez hiltzeko
beti geratzen baitzaio
gizonari
esperantzaren
bat.*

Esanaz bukatzen zuen bere azken poema liburua, *Harrizko herri hau*. Bere penak, gogoz nahi zuen bakea aurkituko dute heriotzaren barruan. Bego atsedenean.

JUAN SAN MARTIN

Elbar, 1975-VI-6.

JEAN BARBIER

Aurten bete dira ehun urte Jean Barbier zenaren sortzetik. Donibane-Garazin jaioa zen. Euskal literaturaren alorrean lan ederrik egin zuen: poesia, ipuiak, antzerkiak, saiaerak eta eleberri bat ere idatzi zuen. Bere garaian, aldizkarietan anitz izkribatu zuen eta adiskide andana batekin «Gure Herria» aldizkariaren sortzaileetakoa izan zen. Bere lan asko aldizkari honetan argitaratu ziren.

Ifar Euskal Herrian oso zaleak dira kanta bildumen liburu eta liburrakak maiz argitaratzen eta horietan nekez faltatuko da Jean Barbieren kantaren bat, herriz herri bere zenbait kanta arrunt zabalduak bai dira. Gure artean, Mikel Laboa kantari hasi zen garaian, Barbieren «Gure amatxo» izan zuen hastapenetako bat eta oraindik gure egunotan nork ez du ezagutzen plazetan edo radioz entzuna?:

*Oilarra kukurruka etxean da ari,
Jadanikan Amatxo otoitzez Jaunari;
Bi eskuak ikaran, so kurutzeari:
Jaunak beha diezon egun berriari.*

Aspalditik entzun ez dudana zera da, Irrintzina izenekoa, 1898an Senperen lehen saria irabazi zuen hura, musika polit bati erantsita hemengo koruak iñoiz kantatzen zutenna, hain eztsu osatutako lehen bertsoarekin:

*Gau eder batek ninduen
hatzeman mendi gainetan.
Iguzkia aintzinean
emeki etzan zitzautan.
Azken abereak etxera
zoazin ene oinetan,
bazter guziak zituztela
inharrosten marrumetan.*

Bi kanta horien hasierekin jabetuko da irakurlea J. Barbierren nor-tasunez. Piarres Lafitte dugu bere bizitza onduen aztertu duena eta bere esanen hildoz adiaraziko dugu, laburki, bere bizitzaren berria. Sorterrian, Hazparden, Larresoron, Baionan eta Tolosan egin zituen eskolak. Teologia dotorgoa bildu-eta, Larresoroko Seminario ttipian erakasle sartu zen. Orotan denek haren lana ezinago estimatua zen. 1913an Senpereko erretorgoa hartzen du, artoski, kartsuki, maiteki gidatzen duela. 1931ko urrian hil zen.

Euskalduna baitzen errotik, bere aita-amen mintzairari funtsez heldua zegoen. Baxenabartarra ikasia zuen bere etxeokekin, bainan Lapurdin egotearen bortxaz eta lapurtarren liburuak irakurtuaz, mintzaira ler-ratu zitzaion «nafar-lapurtar» esaten diogun hizkuntzaruntz.

Haren lumatik atera diren liburuak izan dira: *Nere kantak* (1910), *Ama Birjina Lurden* (1920), *Supazter xokoan* (1926), *Ixtorio-mixterio* (1930), *Légendes du Pays Basque d'après la tradition* (1931). Beste lan asko aldizkarietan argitaratu zituen: *Kauserak edo Kruxpetak* izeneko antzerkia (1924), *Piarres* eleberria (1926-1929); bi zatitan, eta abar.

Lafittek dionez, bertso lanak irtetzen zaizkion bezala jartzen zituen, inolazko konponketarik gabe. Behar bada hobeak izango ziren begira-mendu gehiagoz landu balitu, baina dauden bezala, herritasunez beterik daude, bizitasun berezia dariela. Eta honek ere bere alde onak ditu.

1925ean, *Trois legendes su Axular* bilketa lana agertu zuen «Gure Herria» aldizkarian, Geroago, bertan oinnarriturik edo, Axularren itzala izeneko bertsoak egin zituen. Urte batzuk dira J. M. Barandiaranek ere bildu eta aztertu zituela honelako kondairak, Axularren itzalari buruz. Barbierren poemaren bi bertso soilik emango ditugu, itzal merezi-garriaren ohorez:

*Zuhaitz handiak, lore ttikiak
berekín dakar itzala,
nahi bezenbat argitugatik,
gizon orok hala hala!
Itzalik gabe, aditua naiz,
Aingeruak ditezke-la.
Huna non dioten Axularrez:
Itzalik gabe bizi zela.
«Itzalik» gabe, hura bezala,
nahi girea, anaiak?
Gure axular bezenbat garbi
nahi girea guziak!*

*Galtzagorri, harek bezala,
utzi erdaldunkeriak,
aztaparretan utz debruari
beraren kaskoinkeriak!*

Literaturan biltzaile eta sortzaile zenez, aztertzailetarako ere dohain bereziak agertu zituen; honen ondoriozkoak ditu egin zituen saiaera laburrak hauen artean, heriotzari buruzkoa, bertsoz ere jarria; azkenaldi hontan euskaraz eta erdaraz gai hau erabili dutenek aprobetxatu gabea.

Bere paperen artean, P. Lafittek, argitaratu gabeko lan asko aurkituak ditu, batez ere bertsoak. Baina argitara gabeko hauen artetik berezietako bat buhamien (ijitoen) bizitza eta ohiturazko lan eder bat, 1971. urtean Lafitte berak argitaratua *Antxitxarburu-ko buhamiak* izenez. 1895ean idatzia zen. Behar bada gai berarekin frantsesez beste lan bat egina zuelako edo egiteko asmoa zuelako utzi zezakean argitaratu gabe, zeren 1904-1905 urteetan *Les Bohémiens d'Antchitcharburu* bere irakurtzaileei eskaini bai zien.

Lerro hautatik bijoaz gure laudorioak J. Barbier zenari bere ehungarren urteburu honetan.

J. S. M.



Karmelo Etxegarai Idazle Gernikan


Karmelo Etxegarai lurperatuta dagoen Gernikako Kanposantuan atzo arratsaldean egon nintzan. Bere emazte Konsuelo († 13-3-68), seme Karmelo († 4-1-02) eta Fernando (†11-5-64) eta anai Bonifaziogaz (†24-12-56) datzan hilobia, Seber Altube, Gernikan bizi eta hil zan beste beralako euskaltzain eta gipuzkoar ospetsuaren alboan dago. Harek, azpeitiarrak, bigarren bizi erdia igaro zuen herritik, hona, bere sortherrira, agur bero bat eta euskal kulturaren goigizon izan zanen oroipen merezia dakarkizuet.

1966an Gernikan Urisortzetik VI garren Ehunurteburua ospata zanean, Karmelo Etxegarairi Udaletxeak kale baten izena eskaini zion. Kale hortan bizi naiz, alegia: Batzar Etxea dagoan mendiskatik Saraspe edo Zuhaitzpe enparantzara daramakigu noski. Baina uts haundi bi egin zituan Karmeloren izena daukan burni-hostoan: «Cronista del Señorío» dio eta. Zeren 1895 eko Abenduaren 6 an, Bizkaiko Diputadu batzuen xedez lanbide hori Etxegaraientzat eskatu zanean, Jaurherri hori lege ostenduta zegokigun, eta horrez gainera, Etxegaraien lanburua hiru «Provincias Vascongadas» txarto deituak ziran. Uts hoiak ofizialki zuzentzeko erarik onena hauxe izango da, behar bada, plaka barri baten historiaren egia eta hanbidearen benetazko garrantzia jarritz.

Joan San Martin, nere mahai-lagunak, berezko jakituri eta esate gozoagaz, Etxegaraien ikertzaile alderdiak azaldu ditu. Nere lana, ostera, mugatuagoa izango da: Etxegarai idazle Gernikan estudiatuaz, bere bizitzaren aldi batzuk, ezagunabeko idazlan zenbait bitartez zehaztutera noa. Harek adimenera jo du; nik bihotzera. Eta gehiago etorri beharko dira Etxegaraiek merezi duen biografia betetzeko. Adimen sakon eta bihotz biguneko gizonai dagokion biografiaren oinharriak jarri daiguzan behingotz.

Zuhaitza frutu bitartez ezagutzen dan bezela, idazle baten biografia bere bibliografia zehar osotu dezakegu. Bestalde, idazle baten betitua bere lanetan betiko bizi da. Eta une hontan Etxegarai Jauna gure artean ez da oroimenez bakarrik bizi: fededunentzat, ez da bere izpiritua gugandik urrun izango, eta gainera idazlanetan bere pentsaera eta

bihozkadak ematen zaizkigu. Asmo honetan saiatu ziran Gregorio Mujika, «Euskal Erriaren Alde» an heriotz ondoko egunetan, eta geroago, 1928an, Euskal Diputazioak Etxegarairi eskaini zioten omenaldi liburuan. Osoagoa eta zehatzagoa izan zan 1950 eta 1951n «Boletín de la Sociedad Vascongada de Amigos del País»ko orrialdeetan bere seme Fernandok argitaratu zuen Bibliografía, baina, zoritxarrez, 1882tik 1901era bakarrik osotu zuan Fernandok. Gure egunotan, Auñamendiri esker, Jon Bilbaoren Bibliografía be badaukagu. Osoena hauxe izan arren, utsune batzuk badauzka eta utsune hoiek, nik dakidanez, betetzera natorkizue.



Marcelino Menendez y Pelayo'ren adiskide eta lagun haundia zala Karmelo danok dakigu. Bien arteko eskutizetatik, une askotan, dato interregarría darigu. 1896ko Oñsailaren 13an lanbide barriaren izendapena jakin-eraziaz Donostitik karta bat idatzi zion. Egun batzuk barru Gernikan auzotu zan, ostatuan noski, eta eten gabe lanean jarraitu. Batzar Etxeko Katalogoa eta Sagarminaga Jaunaren Bibliotekakoa amaitzen ditu Gernikan, hemen egindako lehenengo lanak bukatuaz.

Aldi hontan Donostira osterá asko darabil, eta handik 1896ko Azilaren 27an Menendez y Pelayori Bizkaitzat lehenengo aburua agertzen dio:

«Privan con exceso las letras de cambio para que nadie fije su atención en las bellas letras ni en las investigaciones históricas».

Urte batzuk lehenago, 1892an, El Escorialko artxiboetan bilari zebilela, Aita Eustakio Uriarte, durangoarra, ezagutu zuen. (Orain 75 urte bete dira praile hau Motrikon hil zanetik eta nere ustez omenaldi bat zor diogu). Musikologoa eta Kronista batera heltzen dira Gernikara 1896 an; hura Agustionen Kolejié barri batera irakasle zetorren eta kurso barrien asieran, Iraileko 26 an, Etxegarai Jauna hitzaldi bat ematera behartu zuen. Orain arteko Bibliografiétan idazlan hau «Discurso» lez agertzen da, título gabe. Baina honen barri eman nezake: gaia «Papel de los Agustinos en la Machinada de 1718» izan zan. Lan hau atzemateko itxaropenik ez det galdu, Fernando Etxegaraiek beze-la, lorratz bat esku artean daukat eta: Gernikako Andra Mariren Parrokiako Koruan aurkitu nuen, Gounoden Mezaren azal orde, liburuska baten ataria: «Memoria de la Inauguración del Colegio de los Padres Agustinos de Guernica». Haritik harira joateko neiko ote da?

1897 ko Azilaren 18 an, Aita Uriarte elizkizunean apaiz zala, ezkondu

zan Etxegarai Santander'ko San Franziskoren Parrokian Konsuelo Etxegarai Abascal lengusinarekin.

Azken gizaldiaren bukaeran, argazki albun baten, Estazioko kaleko etxe baten argazkia argitaratu zuen Barcelonako Lux Irarkolak. Etxe egin barri hartan balkoietan dindilizka maisterzapiak zeuden, eta hara, orain Adolfo Urioste izendatua dan kaleko bigarren zenbakira, bizilekuaren bila, bere bizi guztirako pisua alogeran hartuaz, Karmelo Etxegarai, oraindik ezkongai, joango zan. Baina ezkondu ondoren, Etxegarai sendia Gernikan auzotu arte, urte bete guttienez igaroko da. Bitartean Santanderen bizi izango zala uste det, 1898 ko Abenduaren 25 ean Menendez y Pelayori Zumaiatik dio eta:

«He venido a este pueblo a pasar estos días en compañía de mi madre ya que no ha sido posible por ocupaciones oficiales y perentorias ir a Santander, como me proponía, a pasarlos con mi mujer e hijo que todavía continúan en la capital de la Montaña aguardando a que vaya yo a buscarlos para traerlos a Guernica, en cuanto esté preparada la casa en que hemos de vivir, y que excuso decir a usted que estará siempre a su disposición».

1901 ko Apirilaren 2 an Gernikan zegoan, bertatik Menendez y Pelayori idazten dio eta:

«Ahora voy a imprimir un tomito de «Esbozos Críticos» que tratan de autores vascongados. Entre estos Esbozos aparece una noticia bastante curiosa de Andrés de Poza y una semblanza de mi llorado amigo el P. Eustoquio de Uriarte que murió inopinadamente en Motrico el mes de Setiembre último»

Aita Uriartek Etxegarairen «De mi País» liburuari (1901) hitzaurrea idazten dio eta liburu hortan, ordez, Etxegaraiek Uriarteri «A propósito de Música e Historia» eskaintzen dio. Adiskidetasun hau ez da Uriarteren heriotzagaz bukatzen, urte batzuk barru 1917 ko Abenduaren 19 an Donostiko Centro Católico-an «El Padre Eustoquio de Uriarte»-ri buruz hitzaldi bat irakurtzen du Karmelok eta. Idazlan hau argitaratutako Bibliografieta agertzen bada, badauzka gure Etxegaraiek gai hontan beste hiru idazlan inun bildumatu gabekoak, 1925 garren urtean, bere biziko azkenengo urtean, idatzita. Uztaillaren 20 an, Bilboko «El Nervión» egunkarian, «Un insigne escritor vizcaíno: El Padre Eustoquio de Uriarte» argitaratzen da. «Guernica» errebistarentzat be, egun haietan, «A la dulce y veneranda memoria del Padre Eustoquio de Uriarte» idazten du, eta beste idazlantxo bat «Padre Eustoquio de Uriarte, Agustino» Agustindarren «El Buen Consejo» errebistarentzat.

Gizaldiaren hasieratik Gernikan daukagu finkatuta gure idazlea eta Bizkaiko euskal kulturaren pizkundeagaz oso arduratuta. 1908 ko Apirilaren 1 ean, Olaskoaga Jaunagaz batera, «Boletín de la Comisión de Monumentos de Vizcaya» ren sortzaile da. Bost urte zehar 38 ikerketa lanak bertan argitaratzen ditu.

Hurrengo urteko Uztailean beste arlo zabal eta bihotzezkoa lantzen ari zaigu San Franziskori zaletasuna agertuaz. 1965 an, Etxegaraien jaiotzako Ehunurteburua ospatu zanean, «Aránzazu» aldizkarian «El Fraciscanismo de Carmelo Echeagaray» idatzi nuen. Bere lau idazlan aipatu nituan nere lan hortan:

Hirugarren Ordenako I go Batzarra Santiago de Compostelan 1909 an antolatu zan eta hara joan zan gure Karmelo euskal ordezkari eta hizlari. Han eman zuen hitzaldia Jon Bilbaok «Discurso» gehiagoko barietik deitzen du. Baina benetazko gaia «La Democracia Cristiana y la Orden Tercera de San Francisco» izan zan, 1920 an J. Baladok argitara eman zuena.

Gerotxoago, II garren Batzarrean, «Espíritu de sumisión y reverencia omnímodas de los Terciarios al Vicario de Jesucristo y al Episcopado» gaitzat erabili zuen.

Arlo berean, 1916 ko Maiatzaren 16 an, Begoñan Batzar Nagusi baten Porziunkulako VII Ehunurteburua ospatu zanean, antolatztile izan zan Etxegarai eta 92 orriko Kronika bat idatzi eta argitara eman zuen. Ez det inun lan hau biduta ikusi, ez eta bertan egunean egin zuen hitzaldia: «Popularidad de la Orden de San Francisco en el Pueblo, Vasco». Eta hemen, gernikarra naizenez gero, derriorezko ohar bat egitera behartuta nago: bertan egunean, Gernikako Parroko Jauna zan Jose Domingo Iturranek euskeraz sermoi bat egin zuan «Zertarako etorri gara» izenburuagaz. Etxegaraien Kronikan argitaratzen da, eta sermoi horrek bere egilearentzat gure literatur liburuetan toki bat, txikia baino ez bada be, eskatzen du.

Laugarren aipamen bat, oraindikan, arlo hontan: 1921 ko Abuztuaren 14 an, Gernikako Fueroetako Enparantzan, Hirugarren Ordenako Sortzearen VII garren Ehunurteburua zala ta, «El espíritu de las Instituciones Franciscanas» irakurri zuan.

Azkenekoz, Etxegaraien beste bihotzkada bat. 1912 ko Abuztuaren 1 go egunean Gernikako Gau-Gurtzaileen Taldea sortu eta antolatu zan. Gertaera hontan kanpotik izan arren, Taldearen sortzaile izan zan Karmelo Etxegarai. Talde honen azkenengo Buru izan nintzanez gero, bere Erregistroko Liburuak neure babespean daude eta alako baten lauga-

rrren fitxa Karmelo Etxegaraiena da. Zehatzki bertan, Soreasun, San Sebastianen Parrokian bateatua izan zala, eta ogibidez Kronista, idatzi zuen. Orduetik aurrera, bere bizi guztian 13 urte zehar, Taldearen Sekretarioa izan zan, aproposalana noski, eta Agirien Liburueta hainbat Memoria eta Agiri bere eskuz idatzita daude. Ez dira ba galdu bonbardeoan erreta idazki hoiak bere seme Fernandok uste zuan lez, eta egunen baten argitara emateko asmo ba dut.

Bere fitxan agertzen dan bezela, 90 gaubela egin zituan, azkenengoa 1925 ko Maiatzean. Baina danen artean bereziena Loiolan, 1916 ko Uztularen 22 tik 23 rako gaban egin zuen gaubela aitatu beharko da. 1926 ko Urtarrilaren 2 tik 3 rako gaban Azpeitin egin zan herri hontako Gau-Gurtzaileen sortze gaba: hemen egon behar zuen Karmelok, baina hilbarria zanez gero, eta horregaitik, bere izpiritua hemen izango zan ziurki. Etxegareien utsunea Gernikako Taldean Leandro Omaetxebarria, pronzizkotarren aita zanak, bete zuen.

Ogeitamar urte bizi izan zan Etxegarai Gernikan. Zaila da denbora hontan idatzi zuan guztia jakitea, ez ziran bere idazki guztiak argitaratu eta. Argitaratutakoak, liburuetatik aparte, aldizkari honetan agertzen dira: Euskal Erria, Euskal Erriaren Alde, Euskal Esnalea, Itzaldiak, Vida Vasca, Hermes, Boletín de la Comisión de Monumentos de Vizcaya, Revista Internacional de Estudios Vascos, eta abar. Hamalau liburuetatik aparte, nik argitaratuta ikusi dotazan honek dira: 130 artikulo, hogeitazaldi, hogeitabost atari, bost olerki, itzulpen bat, hogeitabost memoria eta berrhogeitaz hamabost irizipen.

Amaitzera noa. Egun bi barru bere heriotzaren 50 urteburua beteko da. 1925 ko Abuztuaren 23 an, igande arratsaldean, Araban eta Bizkaiko Orozkon eta Orduñan ikerketa lanak egin ondoren bere seme Jokin laguntzaile zuala, sendia egoan Alzolako Uretxera geizorik etorri zan. Abuztuko 26 an sendi guztia Gernikara etxeratu zan eta Karmelo Diaz Enparanza osagilearen babesean jarri. Baina ez egoan zer eginik. Azilako 4 an, goizaldiko bost ta erdietan, santuro eta xoilki, bizi izan zan lez, hil zan Karmelo Etxegarai eta Korta.

Bere anai Bonifazioren hitzekin, amaitzeko esango dut: «Karmelo, jakituna, izildu zaigu; baina Karmelo donea, bere heriotzaren eredu betiko mintza». Goian bego.

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA

Bachiller Zaldibia

Gipuzkoako historigilearen laurehugarren urteburuan

Martxoaren 28an bete dira laurehun urte Bachiller Juan Martínez de Zaldibia hil zenetik. Bachiller Zaldibiak idatzi zuen Gipuzkoako lehen historia, *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas* deritzana. 1560an Gipuzkoako Batzarrari eskaini zion, argitara zezan, baina ez zuen izan argia ikusterik. Harrigarria bada ere, 1944ra arte argitara gabe iraun zuan. Urte honetan, Joakin de Yrizar jaunaren eskariz, probintziako Diputazioak argitaratu zuen, Fausto Arozenaren sarrera eta oharrekin.

Bachiller Zaldibia, tolosarra zen. Noiz jaio zenik ez dakigu, baina 1575eko apirilaren 28an hil zela bai. Garibay Mondragoarraren garaikoa zen, baina honek bere *Compendio historial* baino lehenago idatzi zuen Zaldibiak bere *Suma* delakoa. Lan honen orijinala ez, baina bere zenbait kopia heldu ziren gure garaira arte.

Gure aspaldiko berriok oso baliozkoak ditugu. Gure lehenari buruzko agiri idatzirik urri bai dugu. Eta Fausto Arozenaren sarrerak asko jazten du liburuaren gaia behar bezala irentsi ahal izateko. Historiak, beti, historiagileen araura izan dira, batez ere lehengo denboretan. Baina Arozena bezalako histori-kritikagile baten eskutik segurantzia gehiago dugu hobeto bideratuak joateko.

Euskaldunok erromarrekiko guduari badakigu jaramon guti egin behar zaiola. Zaldibiak harrotu zuen gerrate haiei buruzkoa A. Schulten-ek arrazoi bidez desegin zuen. Egun badakigu Beotibarko gudua bera ere ez zela izango hain garrantzitsua, baina ezta Campionek eta K. Etzegaraik uste zuten bezain borroka tipia ere.

Ahaide nagusien borroka berri jakingarriak eman zituen, batez ere anai-arteko hauzien sorreraz. Gainerako gehiengan gipuzkoartasunak daroa egilea.

Garai hartarako, Zaldibia, kulturaz jantzia genuen, probintziako Ordenanzen bilketan lan egin zuen, 1582ko gutun batean agertzen denez. Azkenik Migel Aranburuk burutu zuen *Nueva Recopilación* delako foru-testugintza eta 1696an argitaratua izan zen.

Tolosako alkate izana zen, eta 1557an herriak kapitan ere izendatu zuen. Zenbait aldiz diputadu ere izana zen eta hauzi nekezetan gidaritza eraman ere bai. Osasunez apenaz omen zen sendo eta apoplegia gaitzak eraman omen zuen mundutik.

Bere ondorengo historigileak, gure probintzian, batibat, Lope de Isasti eta Pablo Gorosabel izan ditugu lehengo mendeetan. Gerokoentzat nahi ta nahiezoak dira hoién iturri ezaupenak.

Zaldibiaren garaian, gure alde hontan (Hego Euskal Herriak esan nahi dut) ez zen euskarazko obrarik idazten, eliz-dotronatxoren bat edo izan ezik. Kulturazale handi nahiak bakarrik ziren bestelako zerbait idazteko gauza zirenak, eta hauek, beren handi nahien, eta Gaztelako erregeak emandako aitonen- seme tituluen pozez, gaztelararen zale borrokatuak agertzen ziren. Beraz, hori hola zelarik ez zen batere harritzeko beren lanak erdaraz egitea. Eta, ordainez, herriak ez zuen erantzunik herri-gogora heltzen ez zenarentzat. Hala ere, aitortu beharra dugu, liburuak tarteka ematen dituen euskarazko zatiak bizi-biziak direla, esan nahiez eta idazmoldez.

Beotibarko guduari buruz, hedatua omen zen esan hura: «Beotibar, Beotibar hic dia dutac Martin de Oybar». Eta beste bertso hau, antzi-nagoko esku-izkriburen batetik jaso:

*Milla urte igaro eta, hura bere bidean,
Guipuzcoarrocar sartu dira Gazteluko echean;
Nafarroquin bildu dira Veotibaren pelean.*

Zaldibia berak jarritako ortografia errespetatzen dugu, bere letrari zintzoago itsasti gaitzen.

Zenbait urtetan Hondarribian bizia omen zen, 1516garren urte inguruan behinik-pehin, eta bertako berriak beste toki batzuetakoak baino zehatzago jasotzen ditu, Tolosa eta Donostiarekin batean. Mugaherriko gertakizunen ondorez hara zer bertso jaso zuen:

*Juan de Lazcano Beltzarana,
Guipuzcoaco Capitana,
Franzez osteac jaquingo du,
ura ondarribian zana.*

Chanfarron jaun frantsezak egin zuen desafioari erantzun zion Juan Pérez de Azkue hondarrabiarrak eta heriotza eman zion honek. Bere oroiz dator ondoko bertso hau:

*Mosiur Chanfarron jaun andia,
Irun calean daza illa.*

J. S. M.

Karmelo Etxegarairen Historia Iker Lanak

(Hitzaldia. Azpeitian K. Etxegarairen heriotzaren

50. urtemugan. 1975-XI-2.)

Azpeitiko herri eta agintari, jaun andreok, agur.

Pozgarri zait Karmelo Etxegarai zenari buruz bere jaioterri honetan aurkitzea. Karmelo hil zen urte berean, duela berrogethamar urte, 1925. urteko ekainaren 25ean, hemen, toki honetan egin zuen bere euskaltzain sarrera hitzaldia, Mogeldarrei buruz, gero «Euskera» aldizkarian argitaratuko zena («Euskera», VII, 1926, 8/25 orr.). Eta, Mogel euskal idazleari buruz nere lehen liburutxoa idazterakoan Karmeloren azterketa lan hura izan nuen bide gidatzailerik onenetako bat. Baina, esan beharra dut, bai ordurako eta bai geroztik ere, bere lanetara jo beharra maiz izan dudala, bide seguru samarrak aurkitzea nahi izan dudanean. Izan ere, nere jakintzaren eskasian, zer hoberik maisu onaren ingurutik joatea baino?

Karmelok, bere lehenengo lanak euskaraz idatzi zituen, euskaraz poesiagintzan hasi zenez. Irakurle bizkorra zen eta bere aurretiko poeta erromantikoen lanak ezagutzen zituen nonbait, eta erromantiko kutsuzkoak izan ziren bere hastapenetako lan horiek. Garai hartarako ez nolanahikoak. Garai hartarako eta adin hartarako, zeren hamazazpi urte besterik ez zituen Donostiako Lora-Jokoetan (1882) aipamen berezia jaso zuenean; eta urte bete geroago, hamazortzi urte zituelarik, Iruñean, Donostian eta Markiñan, 1883ko urte berean, lehen sariak eraman zituen. Gainera, sari hauetatik Markiñakoan D'Abbadie jaunak urtero eratzen zuen sariketako ontzako urrea irabazi zuen. Gero, hogetiru urte zitunetik, kondairazko ipuiak euskarazko prosan idazteari eman zion, zenbait sariz jabetuaz. Geroago hitzaurre eta hitzaldi jakingarririk eman zuen gure hizkuntza zaharrean. Beti bezala, guziak jakingarriak.

Bere ogibidez erdaraz idaztera beharturik aurkitu bazen ere, bere bizitzan zehar, hil arteraino jarraituko zuen euskara idatzia lantzea utzi gabe. Euskara landu zuen eta lantzen jarraituko zuen, noski; Euskaltzaindian sartu zenetik behar bada gehiago, baina guzior zoritxa-

rrerako galdu genuen jakintza aldetik bere bizitzako unerik heldue-
nean, hirurogei urtekin.

Karmelo, gaztetxo gelditu zen aitarik gabe, eta estudioetan lagundu
nahi zion osaba ere laster galdu zuen. Osaba hau Santanderren bizi zen
eta hango Institutoan estudiatu zuen 1881-1882. urteetan, Baina osaba-
ren heriotza ondotik bere gogozko asmoak etenda gelditu ziren, ez or-
dea bere barnetikako gogoaren ahalmenak. Hamazazpi urterako, poesia-
gintzari ekin zion garai hartarako, bere familia behar gorrian aurki-
tzen zen eta lanari heldu beharra izan zuen.

Argitasunak beti irekitzen du bideren bat, eta 1884an Gipuzkoako
Diputazioak bere artxiboa ordenatzeko eta bertatik «archivo manual»
zelako bat antolatzeke hartu zuen. Bere lan hau burutu ta laster,
1885ean, Diputazio Jauregia erretzean, han galdu zen Karmelok egin
zuen lana. Baina bere kemena eta ahalmena ongi frogatuak jarri zi-
tuenez, urrengo urtetik lan handiagoa eskuratu zioten, Diputazioko
artxiboa eta liburutegiaren antolaketa. Geroztik, Karmelo Etxegarai,
eten gabeko lanean jardun zen azterketetan eta antolaketan. 1891an,
Diputazioak, ofizial mailara jaso zuen eta bost urte geroago, bere iker-
keta baliosen eskergarri eta aurrerantzean aukera hobeak izateko, Ara-
ba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak hiru probintzietako kronista
ofizialtzat izendatu zuten. Orduan, bere bizileku Gernika hartu zuen,
eta bertan hil 1925eko azaroaren lauan. Etzi beteko dira berrogetaha-
mar urte.

Eusko-Ikaskuntzako burutzakoa izan zen, Euskaltzaina, Real Acade-
mia de la Historia-ko urgazlea eta Bellas Artes-ko ordezkari. Guziok
bere lanen ordainez merezimendu handiz irabaziak.

Hala ere, tituluak ez dute egiten gizona, Karmelo Etxegarairen kasu
honetan merezimendurik aski bazegoen ere. Honegatik, hemen, laburki
bederen, bere iker lanen nortasuna soilik agertu nahi nuke. Nortasun
hau, Karmelori, historia ikerketa aldetik zetorkion. Badakigu M. Me-
néndez Pelayo-rekin har-emanak izan zituela eta beragandiko ikasiak
ere izango zituen noski. Karmelok ohore handia jaso zuen Menéndez
Pelayo-gandik, honek bere hilburukorako «albacea»tzat izendatu zuenez.

Bere iker lanean, Biblioteca Nacional-eko agiri zaharrak aztertu zi-
tuen, bereziki Vargas Ponce-ren kolezioa Academia de la Historia de-
lakoan, baita ere El Escorial-eko biblioteca, eta azterketa horien fru-
tutzat agerrerazi zituen historiazko lehen liburuak.

Lehen lan berezi hauek «Investigaciones históricas referentes a Gui-
púzcoa» (1893) eta «Las provincias Vascongadas a fines de la Edad
Media» (1895) izan ziren. Bigarren liburu honegatik hara zer zion Ar-
turo Campión-ek: «dentro de la interesantísima labor histórica de Car-

melo de Echegaray descuella el libro que modestamente calificó de "Ensayo" y trata de las *Provincias Vascongadas a fines de la Edad Media*. Nos demuestra que el autor era capaz de entender y de explicar una época entera, abarcándola completamente en sus ideas y sentimientos directrices y en su gesta complicada». Izan ere, ezer gutti zekiten garai hartan Erdi-aroko historiaz eta Karmelo izan zen argi-urratse berriak ekarri zituen.

Gorosabelen «Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa»ren bost tomoak argitaratu zituen, bere seigarren bat gehituaz (1899-1901), Geografía General del País Vasco-Navarro-ren «Vizcaya» tomoa egin zuen (1921). Euskal forueri buruzko lan ederrik ere egin zuen, hauen arteko «Compendio de las Instituciones Forales de Guipúzcoa» (1924) lana, Fausto Arozenaren iduriz, gizarte-historiaren estudio osoa da.

Bere hitzaldi guziak irakurriak izaten ziren eta gehienak argitaratuak izan ziren. Iker laneko saiera sakonak dira gehienak. Euskarazkoetan bat ezagutzen dut oso polita, «Euskalerriko itsas-gizonak» (1923-an argitaratua), bale arrantzaz, merkatalgoz, Amerika eta Ozeania-ko itsasoak eta lurrak konkistatzen ibili ziren euskaldunen berri ugariak ematen dituen. Euskal artista zaharrez ere gauza guti genekien bere «La tradición artística del pueblo vasco» (1919) bi hitzaldiak arte, eta ordutik dakigu hemengo seme asko, bertan ez ezik, herbesteetan ere parte hartuak direla monumentugintzan, eskulturagintzan eta pintore gisan.

Bere esperientzia luzeak oso ongi aprobetxatu zituen bere anaia zen Bonifaziok (Euskaltzaindian anaiaren hutsunea betetzera etorri zen hau), estudio lanak bideratu bai zizkion, eta denok dakigu zein zientifikoak izan ziren Bonifazio Etxegarairen lanak, batez ere gizarte-historia aldetik.

Karmelo Etxegarairi, bere ospe handia, ikerketarako zuen meodologiari eta bere kriterio zentzuzkoari esker burutu zituen lan bikainetatik zetorkion. Beraz, lanbide eraketaz eta historiaren ikusmoldez zenbait ohar egingo ditut, eta honetarako ere beste historiagile famatu bategen markatu zituan punduetatik joango natzaizute, Fausto Arozenaren eskutik. Gogoan izan jaun honek egin zuela, Karmeloren heriotza ondorean, lanik bikainenetakoa bat «Don Carmelo de Echegaray y la Historia del País Vasco» izeneko (1926). Hala ere, ez dugu ahaztu behar omenez eskaini zioten liburu eder hura, «Homenaje a D. Carmelo de Echegaray» (1928) Diputazioen eta Eusko-Ikaskuntzaren babespean Gregorio Mujikak bildua, eta honen bio-bibliografiaz hornitua.

Bere langintzaren heldutasuean, ekintzak hortara eramanik, Historia ikerketa zuen bere gai nagusia; gainerakoak hemendik sortzen zitzaizkion adarrak besterik ez zirela, esango genuke. Diputazioan artxiboa-

ren antolaketa ongi etorri zitzaion, eta hortik konturatu zen azterketarako katalogazio on batek zuen balioa. Paper eta liburu artean, no-raezean bezala, bilaketa ibilia denak bakarrik omen daki katalogazio on baten laguntza zer den.

Historiaren kontsetuaz hitz egitean, bildurgarria iduritzen zitzaion azterketa, gauza bitxia liluraturik eramatea. Holakoetan komeni zela buru hotzez argitasuna bideratzea, emozioak uste gabeko bideetan zehar galtzeraino eramango ez bagaitu oso zentzunez jokatu beharra dugula. Historiagile baten lanak, geroago eta gehiago izan behar duela jakintza-aren arrazoi bidezkoa eta agirien frogantzakoa, inoiz alperrikako ibilaldiak eginarren, agiri baliosak eskuratuko badira.

Azterketetarako irakaspide horien helburuak markatu zizkigun. Lana burutzeko, inoiz ere ez omen gara joan behar metodo gabarik, no-raezean bezala; baizik ahalik zuzenen eskuartean daramagun materiaren ingurutik hertsu ibiliaz. Eta agiri eta bibliografia erabiltzean jatorrizko iturburuetara ahalik hurbilen jo behar dugula, bigarren eskutikakorik ahalik gutien aprobetxatuz.

Artxibo antolatzea zen bere ardurarik handienetako bat, eta Serapio Mujikakin baten amaika lan egin zuen arazo hontaz. Beretzat, oso inportantea zen materialak ondo ordenaturik jartzea, ikertzailea denborarik galtzeke harira joan zezan.

Hain oinharritzko diren agiriak gabe ordea, berak zionez, irudimena-
ren bidez ametsezko historia errazak egitean historia gustagarriak bete genezazkeala, baina mamirik gabekoak; eta holako azalezko historiak edozein afizionatuk, lanean zerbait zailtzen dakienak, bere argudioz baztertu lezazken kriterio arinak besterik ez zirela.

Beste harrisgu bat pertsonaje handien atzetik ibiltzea omen da, handi nahiez liluraturik, bitxikerien ondotik, denbora galdu eta detaile tipiago baina hobeak baztertzeko biderik egokiena zela. Honegatik, behin eta berriz gogoraziko zituen metodolojia hobetzea eta seriotasuneko kriterio zintzo, argi eta onez jokatzeko, norberaren burua engainatu eta besteen aurrean barregarri geldituko ez bagara.

Gainera, beretzat, Euskal Herriko historia nagusia on bat burutzeko, herri bakoitzeko historiak eta gai berezien monografia mailako lanak ugaritu begar ziren, honek beronek historia orokorra gorpuztuko zuenez. Herrietako historia tipietan, berak zionez, gauzarik tipienetara jotzen zela, detallerik ximpleenetara, eta historia orokor batean hain beharrezko direnak biltzera. Bere lehen liburu hartan ongi zionez: «si tales investigaciones son en todas partes útiles y fecundas, puede considerarse si lo serán en un país como Guipúzcoa, donde siempre se ha gozado de cierta amplia y provechosa descentralización, y el munici-

pio se ha desarrollado con vida propia e independiente». («Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa». San Sebastián, 1893, p. 89).

Euskal Herriko historiak arrazoi bidezkoa behar du izan. Gertatutako gauzak zerk gertarazi zituen adiaraziko duena, eta ez gertatuak soil soilik agerraraziaz utziko dituena. Bere gogoz, Euskal Herriaren historia, mendeak zehar herri beraren bizitza adiaraztea zen, lanaren ekintza nagusitzat herria bera harturik. Hau da, herria bere bizibidearen eboluzioan. Bere ikasleak hain ongi erakutsi zigutena, zeren hala bai dira G. Mujika, F. Arozena eta bere anaia Bonifazioren lanak. Gure egunotan J. Caro Barojak agertzen digun bezala.

Historia lanerako kriterio garbiak finkatzeaz aparte, iker lanetarako bideak ere markatu zizkigun, eta agiriak non aurkitu genezazkeanari buruzko lan bat ere badugu: «Informe acerca de los documentos referentes a la historia vasca que se continen en archivos públicos» (1919).

Lan honetan aipatzen ditu gure historiaren argigarritzko agiriak non aurkitu genezazkean, batez ere Euskal-Herritik kanpo. Aipatzen dituen guziak esatean luze joango nintzake, eta zehatz jakin nahi duenak aski du lan honetara jotzea.


Eta Karmelo Etxegarairen lan osoaren bibliografia Jon Bilbaoren «Eusko Bibliographia»ren III. tomoko 265/273garren orrialdeetan aurkituko dugu.

Historia kontuetan lan egin nahi dutenek bere lanak zehatz ezagutu eta aztertu beharrezkoak ditu. Egia esan, ez dira hain errazak eskuratzeko. Aspaldikoak direnez, kasik denak agortuak daude, baina bibliotekarik nagusienetan ez dira falta.

Eta, gaur, ezerk berriz argitaratzerik merezi badu, bere lanik oinarritzkoenak merezi dute. Lan guziak argitaratzea oso nekeza fitzake eta behar bada ez hain premiazkoa, egilerik gehienak bezala lehenago erabilitako gaiak berriz ere ikutzen dituenek, gehigarriak eta zuzenketak erantsiaz, baina bai mereziko luke bere lan hautatuen argitalpenak, bai erdarazkoak eta bai euskarazkoak, historiagintza bizkortzeko eta hobetzeko hain premiagarri direnez.


Agur eta ohore hainbeste zor diogun azpeitiar jator eta gizon zintzo Karmelo Etxegarai jaunari.

JUAN SAN MARTIN



Jan-edan-gai auezaz, gaur dan egunean, sekulan baño geiago idazten da. Gai auekin zer-ikusi duten sariketak ere aspaldi ontan asko ugaritu dira. Baña, ala ere, ta esate baterako, eztakigu emendik urte batzuetara orain baño obeto jango degun edo ez. Entzun.

Orain illabete batzuek, Frantziako aldizkari batean irakurri genduan, Parisko jatetxe ospetsu batean ango moko-fin ezagun batzuek berealdiko bazkari bat egin zutela, ta beraren jaki-errenkada au izan zala: urdai-azpikoa, zekor-aragi txikitua, ollaskoak eta arraultz-opil gozoa. Baña *menu* au, naiz txarteletan orrela ezarria egon, zearo gezurrezkoa omen zan, eta jaki guziak *sojarekin* egifiak, bai, Txina-ko illarrarekin egifiak eta gertuak izan omen ziran...



Esan bezala, aspaldi ontan jan-edan-sariketak asko ugaritu dira. Gipuzkoan bertan urte ontan zortzi-amar-bat izan ditugu. Donostian, Ondarribian, Pasaian, Ordizian eta beste erri batzuetan ere bai.

Donostiako sariketetako jakietan bakallaoa izan zan oñarria —*Piperrak bakallaoz beteak* eta *Drungulua*—, ta Ordizian berriz gazta.

Gipuzkoako azkeneko urteko sariketetan aurkeztutako jaki batzuen pretaerak gordetzen ditugu.

Ona emen laburkiro lengo urtean, 1974garrenean, *Tolosako Nazioarteko Perretxiku-Zaleen Batzaldian* lenengo saria irabazi zuan jakiaren errezeta. Jakiak *Perretxiku-cognac-patea* zeritzan, eta Jose Ramon Gonzalez tolosar jaun ezagunak gertua ta aurkeztua izan zan.


OSAGARRIAK (sei personentzako)

Tipula bat (ez aundia). Bi baratzuri. Gatza. Seireun gramo perretxiku. Irureun gramo gurin. Sei kollaratxo cognac. Trufa bat.


PRESTAERA

Lendabizi ondo txikitu ta pikatu perretxikuak, eta berdin tipula ta baratzuriak. Gero kazuela batean ipiñi olio pixka bat tipula ta baratzuriek, eta su il-samarrean eduki, tipula ia zearo oritu arte. Ondoren perretxikuak eta gatza bota kazuelara ta guzia, geldiro erabilliaz, ondo-samar *egin*. Segituan atera sutatik perretxikuak eta iratsi berai guriña, arraultz-gorringoak, cognac eta trufa. Azkenean dana ondo nastu ta batu, malatsean pasa ta oztutzen utzi.

Lur-ontzitzo batzuetan edo kiskaldutako ogizko *canapeetan* serbitzitzen da.




Gipuzkoako sukaldari batek baño geiagok ere irabazi dituzte or kanpoan sari ederrak: Juan Mari Arzak-ek, Luis Irizar-ek eta abarrek. Are geiago: Donostiako *Cofradía Vasca de Gastronomía* deritzan elkarteak orain illabete batzuek, Madriden, España'ko jan-edan-elkargo guzien arteko lenengo sari bat irabazi zuan.




Euskalerriarekin zer-ikusi duten jan-edan-gaieko liburu asko-samar eskuratu ditugu azkeneko illabete auetan. Liburu oien artean Madriden argitaratutako iru auek arkitzen dira: *Guipúzcoa Gastronómica* ta *País Vasco Gastronómico*, *Cofradía de la Buena Mesa*'k argitaratuak, eta Gonzalo Alfonso Sol de Liaño-ren *Guía Gastronómica del País Vasco*.

Lan ernagarriak dira irurak, baña beren orrialdetan badatozte *xelebrekeri* bat baño geiago ere.

Onela, ta adibidez, batean, bidenabar, Vergara erriko *Catedral*-a (?) aitatzen da...




Madrideko aldizkari ezagun batek uri artako moko-fin onentxoan batzuei —Conde de los Andes, Conrado Blanco, Víctor de la Serna, Ansón, Alfaro, Sánchez Bella eta abar— bertako jatetxei buruz beren iritzia eskatu die, ta baldin leiaketa ori ontzat artzen badegu, Madrideko amar jatetxe onenak auek dira: Horcher, Jockey, *Zalacain*, El Bodegón, *Principe de Viana*, Horno de Santa Teresa, Figón de Santiago, O'Pazo, Mayte ta Valentín.



Aurtengo udazkeneko egun batean, Gipuzkoako erri bateko laguntalde batek astakume bat jatea erabaki zuan.

Il zuten astakumea, ta sukaldari egin bear zuanak galdegin zion taldeko buruari:

- Eta... anak nola maneatu bear dira?
- Egosita erantzun zion besteak.
- Eta azpizuna?
- Arranbarrillan erreta.
- Eta burua?
- Buruarekin arrai-zopa egin bear da.



Astakumea jaki bezala aitatu degun ezker, zertxobait berari buruz esan bearko degu.

Persak antziñan jaten zuten asto-aragia ta erromatar batzuek ere bai noski. Frantzian ere, diotenez, XVIgarren mendean gutxi edo geiago jaten omen zan.

Italiako sukaldari aditu batek, iru edo lau urte baño geiago ez dituan astoaren aragia ez dala txarra, dio.

Bein batez, eta Jose Orueta-k bere *Memorias de un bilbaino* liburuan dionez, Bilboko *Kurding* zeritzaion elkargoaren bazkide batzuei astakume bat erreta, basauntza balitz bezala, serbitzatu omen zien, eta txit gogoz jan ondoren, jakin zutenean egiaz zer serbitzatu zieten, bazkide batzuek gaxotu egin omen ziran...

Juan San Martin adiskideari berriz entzun genion, bein batez, gai onekin zertxobait artu-eman duan Euskalerriko antziñako pandero-jotzaillan kopletaکو bertso jator bat. Onatx emen:


«Neuk ikusitakoa
Neure begiekin,
Astoa kazuelan
Belarri biekin».

Lengoan, Donostiako *Parte* zarreko *Bar* batean, bertako bi mokofiñ, zertxobait edanda gero, elkarrekin jan-edan eta politikaz mintzatzen ari ziran...

—Nik, baldin jatetxe baten nagusia baniñukek, jaki-errenkadan berdel-izenaren ordez *democracia cristiana* ezarriko nitek.

—...?

—Bai, batzuek berdela, *democracia cristiana* bezala, txit gogoko baiditek, eta beste batzuek berriz —geienak— batere ez...



Or dijoakizute ondoren, orain 45-bat urte *Euskal-Esnalea* zeritzan aldizkari jatorrean argitaratu zan izkirimiri txiki bat.

«Zereko erretoreari bazkari on bat kendu bear ziotela bada-ta, bein batean joan ziran bere etxera inguru-errietako apaiz guziak.

Sartu zan neskamea ollo-zopa koipetsua zekarrela, ta maian utzi orduko asi zan:

—¡Ai ta ai! ¡Jesus ta Jesus! Amairu dirala maiean. Bat-edo bat bijoa bere etxera bazkaltzera, Jaungoikoaren izenean...


—Baña ¿zer diozu Kataliñ? Utzi dizazu txorakeri oiek.

—Ez dala txorakeria, jauna. Nik badakit ondo orlakoetan zer gertatzen dan.

—¿Zer gertatzen da bada, zer?

—Amairu lagunek alkarrekin bazkaltzen dutenean, beti norbait iltzen da beste guziak baño lenago.


“Ja, ja, ja” ta ‘kar, kar, kar’, bapo bazkaldu zuten amairu apaizak».



J. M. L. - Gipuzkoan lanperna deitzen zaio ta Bizkaian anperna noski. Gazteleraz *percebe* esaten diote ta frantzesez berriz *anatife* eta *poussepied*. Dana dala, berari buruz Euskaltzaindiko aurtengo billera batean Pierre Lafitte jauna mintzatu zitzaigun eta, Miarritzeko *Les Chevaliers de l'Operne* elkarte aiatu ondoren, lanperna itzak gaztelera-kin zer ikusirik ez duala esan zigun.

Baditeke, baña —ta barkatu, Lafitte adiskide maitea— gaztelera-kin bada beintzat itz onekin antz aundia duan beste bat ere: *Galamperna*. Bai, *galamperna*, *lepiota procera* perretxikua.

Izkuntza-eztabaida auek alde batero utziaz, beste egokiera batean idatziko degu lanperna edo anperna jaki-gai bezala erabilliaz.



Jakinzale (Bartzelona). - Len aitaturako Ordiziako gazta-sariketa oso enagarria izan zan.

Ia ogeita amar artzaiek aurkeztu zituzten beren etekiñiak, eta esan genezake —guk gerok dastatu genituen amar-bat— guziakgain-gañekoak zirala.

Sarituak iru artzai auek izan ziran: Zaldibiako Jesus Mendizabal, Urbasako Nikolas Ramiro Murgia ta Eulate-Urbasako Joakin Ruiz Aldamendi.

Beraz, gazta-gai auetan ez goaz euskaldunok ain gaizki. Badakizu noski gañera, *Jakinzale*, Erronkariko gazta-arazoa ere erdi-zuzendu dala. Orain urtebete ango bost-bat pamiliek bakarrik gertutzen zituzten gaztak, ta gaur berriz, eta Naparroako *Aurrezki-Etxearen* laguntzarekin, elkarte batzuek ere, ta gogor-samar gañera, ari dira lanbide ontan.

Gaiñontzean, arrazoi dezu. Alegia, gero ta garestiago saltzen dirala Euskalerriko gaztak. Bai, gizona, baña ori gaur gauza guziekin eta lur-bira osoan gertatzen dan ezbear bat bait-da.

Tolosar bat. - Bai, guk ere Erriojako ardoa oso gogoko degu, batez ere Arabakoa. Jakinko dezu gañera Labastida-ko ardo-etxe ezagun batek atera duala euskal-usai aundia duan *marca* berri bat. Bai, GAROA.

Jakiña, ardoa ere, ta beste gauzak bezala —ta bear bada are geiago— garestitzen ari da.

Bartzelonako subasta-etxe batean, eta oraindik denbora asko ez dala, Erriojako ardo-bonbilla batengatik amar milla pezeta ordaindu zituzten.

Ori bai, *marca* ezagun-onekoa zan eta gañera zarra. 1913-1914 urteetako.

Angula-zale bati. Egia esan, aurtengo angulak onak dirala uste degu. Gañera, lengo urtekoak baño gizenxeagoak ote diran iruditzen zaigu.

—o—o—o—

«Kaskoinen maats, ardo ta umoreak tristuraren sendagai bikain batzuek dira». - *Montesquieu.*

—o—o—o—

«Jan-edan-kulturak ez dio beñere ñori kalterik egiten. - *Tancrede de Vison.*

—o—o—o—

«Txakoliñak neskatxa eder-beltxaran baten ezpañen saporea du». *Donostiar bat.*

A. A.



Sagarra eta Sagardoa Euskal Herrian

Sagarra eta sagardoa noiztikakoak ditugu Euskal Herrian? Aspal-dikoak noski. Baina gauza zihurrik ez dakigu. Historia idatziaren agiririk zaharrenetan galtzen dira lehendabiziko berriak. Agirietatik harat, lehenagokorik usteen ametsetan galtzen zaigu.

Zientzia aurrera doa, eta arkeologia bidez bada lehen gizonen azter-nategien estratoetan landaren haziak bilatzeko era. Ekainen egin diren azterketan, adibidez, urritzaren haziak eta beste zenbait landararenak aurkitu eta zehatz ikusteko bidea izan dute, garai haietako frutuak eta klima ezagutzeko. Holako zerbait posible izango litzake Erdi Aroan zehar historia aurreko garaietara heltzeko. Baina holakorik ez dugun artean beste bide seguruago batzuk aprobetxatu beharko ditugu. Eta gaur gaurkoz agiri idatziak besterik ez dugu.

Hala ere, esan dugunez, gure historia aurrean agiri idatzirik gabe galtzen zaizkigun gauzen artekoa dugu sagar eta sagardoa. Martin de Angulozar idazlearen ustez (1) arabeengandik hartua izan leike, baina gogoan izan behar dugu erromatarrak ere ezagutzen zutela, eta hau hola delarik leikeana da berengandik ikasia izatea. Autore batzuen iritziz, eta hauen artean E. Labayru bere Bizkaiko historian (2), XIV. mendean Euskal Herriak Normandia-ra eraman zituzten sagarrondoak eta, inguru haietan hedatu ondorean, handik zabaldu omen zen Bre-tainia-ra ere. Dena dela, Andrea Navajero italiarrak gure herrian ikusi zituen gauzen arteko dugu sagardoa eta 1524an bere ibilerak kontaktzen dituen liburuan jasotzen du hemengo edaririk ezagunena bezala.

Bestalde, Euskal Herriko deiturarik zaharrenean artean aurkitzen ditugu «sagar» eta «sagasti» sustriaiak. Hamabosgarren mendea baino lehenagoko deiturarik urri dugu, baina hala ere, ordurako anitz hedatua aurkitzen dugu gure geografia guzian. Hara hemen deitura batzuk: Sagastizabal Azpeitin, Sagasti Seguran, Sagastigutxia Beasainen eta El-

(1) M. de Angulozar, *En el Pirineo vasco*. Buenos Aires, 1944. 87/90 orrialdeetan *La sagardoa* izeneko kapitulua.

(2) E. J. de Labayru, *Historia general del Señorío de Vizcaya*. Lehen argitalpena 1895 eta bigarrena 1967. I tomoaren 495/499 orrialdeak.

getan, Sagastiberridi Itsasondon, guziak XIV. mendekoak; Sagarminaga Zeanurin eta Arteagan, Sagastiberria Ormaiztegin, Sagarzirietan eta Sagasti Elgoibarren, XV. mendekoak.

Donazio zaharretan sagastiak agertzen zaizkigu. Elizaren ondasunen arteko ziren sagastiak bere aberastasun bezala hartzen ziren. Adibidez, Bizkaiko Elorrioko San Agustín-goa San Millan de la Cogolla-ko Monastegira bere ondasunekin eman zenean, 1053garren urtean, latinez idatziko agirian zion: «Et dedimus hereditates, terras et mançanares» (3), eta Gipuzkoako Astigarribia (Motriku) elizagatik, 1128an —Garibay-k dakarrenez— «notase tener esta Iglesia pastos y montes y mançanales, y puertos para pescar» (4).

XV. menderako sagardoak zuen balioa argi ta garbi dago Bizkaiko foru zaharrea. Foru zahar hauek lehenagoko ohitura zaharren araura idatzi eta onhartu ziren 1452an. Eta honen XLIXgarren kapituluan dakarrenez, asmo gaiztoz sagardoak upeletatik hustutzen dituenak zigortzat heriotza izango zutela. Bestalde, sagastiak jartzeko arauak ematen dira foru bereko CL. kapituluan.

Gipuzkoako foruen XXI. tituluan ere, sagardoa behar dezala gordezko, antzerako erabagiak agertzen dira.

E. Urroz Errok *Compendio historial de la villa de Tolosa*-n dionez, herriko ordenanzetan erabaki gogorrak arkitzen dira sagardoari behar baino ur gehiago botatzen dioten sagardogintzat. Hala jasotzen du Martin de Anguiozar-ek bere lanean. Gainera, egile honek dionez, S. Agirre Miramón, Muzkiz dorreko kondea, Euskal Herrian sagardogintzari buruz egin den lanik handienaren egile omen da. Lan hauek ikusterik ez dut izan.

Bilbo hiriko ordenantza zaharretan ere sagardo salketarako erregelak agertzen omen ziren eta geroago, 1534 eta 1539ko lege berritzean lehenengo haietan oinharritu omen ziren.

Gai hontaz zerbait idatzi duten gehienak aipatu dute Fr. Gonzalo de Arredondo-k 1500ean Fernán González kondearen historian jarri zuen bertso hura, 931. urtean Hacinas-ko guduan parte hartu zuen Bizkaiko jaunari buruz esan zuena:

*Conde Don Lope, el Vizcaino,
rico de manzanas
pobre de pan y vino.*

(3) L. Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Madrid, 1964. 31 orrialdean jasotzen du.

(4) E. Garibay, *Compendio Historial*. Barcelona, 1628. Tomo 2, cap. XXIII, 54 orrialdean.

Baina, politena, zera da, Hacinas-ko gudurik ez dela izan historian, poetaren irudimenean baizik. Dena dela, gure herriaren sagardo aberas-tasuna eta ogi eta ardo eskasia adierazten ditu XV. mendearen bu-kaeran autoreak, baina inondik ere ez X.ean.

E. Garibay-k bere gaztaroan jaso zuen Andre Milia Lastukoren ere-sia, Miliaren aizpak bere heriotza bide jarriak. Aipatu dugun *Compen-dio Historial*-en jasotzen du eta Mitxelenak ere estudiantua *Textos ar-caicos vascos* izeneko liburu horretan. Kanta bera XV. mendearen lehen partekoa da. Sagar errea aipatzen duen partea soilik hartuko dugu:

*Zer ete da andra erdiaren zauria?
Sagar errea, eta ardao gorria.
Ala baña, kontrarioa da Milia:
Azpian lur otza gañean arria.*

Hemen, sagar errea adiarazten digu andre erdiaren (erdiuaren) alimentutzat. Gutenez sagarraren estimazioa erakusten digu Erdi Aro-ko bertso honek.

Era berean, Domenjon de Andia tolosarrak, ahaide nagusien borro-ken kontra Gipuzkoako Hermandadeen eta Gaztelako erregeren alde bikain jokatu zuena eta honetatik hain ospe handia irabazi zuenez, 1489an, bertso hau jarri zioten:

*Sagar eder gezatea,
gerrian ere ezpatea
Domenjon de Andia
Gipuzkoako erregia.*

Askoz geroagoak dira Miraballesko adar kontuarenak. Sagarrak di-tuen vitaminen berri bazekitela adiarazten digute, Andre Milia-ren er-ditze zaurian sagar erreak zuen alimentua bezalatsu, gordin helduak hezueri gaitzarentzat. 1619an Tolosako herrian paskin batzuk agertu ziren, beretako bi euskaraz idatziak, bertso traketsez. Miraballesko jaunak, ez fama onik eta gainera hezueria (= gota), omen zuen, eta hoietako bertso batean sendatzeko kontseilua eman zioten:

*Rezeta eske oi abil galdua,
gotak ondo ezтик galuoa;
edukak geldirik porrua
eta jan egik sagar eldua.*

Bertso hoiek ere Mitxelenak jasotzen ditu aipatu dugun liburuan. Oraintsuago, joan zen mendearen azken partean, Pepe Artolak eta bestek bertso ederrik egin dute sagardoari buruz.

Gure folkloreko sagar-dantza bera ere oso aspaldikoa da.

Gai honi buruz, S. Agirre Miramón, Muzkiz dorreko kondearenaz aparte; Gipuzkoako Diputazioak 1918an argitartu zuen pomologiazko albur bat; F. Mokoroak ere egin zuen sagardoaren estudio eder bat (5); B. Arrabal Alvarez-ek zabalkundezko liburu batean eman zituen bere denborako sagastien berriak (6); J. M. Busca Isusik gure janariari buruzko lan batean agertzen ditu sagarraren dohainak (7) Beraz, ez da lehenago ere ikutu gabeko gaia.

Argi agertzen da sagastien berriak gure historia idatziaren hasieran bertan lausoturik galtzen zaizkigula, eta lehenagokorik zerbait jakin nahi baldin badugu beste bide batzuetaz baliatu behar garela. Esate baterako, P. Areso sedimentologoa lehen aldiz ari zaigu gure harpeen azternategietan lore-hautsak eta haziak biltzen eta analisatzen, eta hemendik lortu genezake gure herriko sagastien aintzinasuna ezagutzea.

Juan SAN MARTIN



(5) F. Mocoroa, «La sidra» (*Munibe*, V, 1953, 145/156 orr.).

(6) B. Arrabal Alvarez, *Guipúzcoa. Lecturas*. Tolosa, 1930. 75 orr.

(7) J. M. Busca Isusi, *Alimentos y guisos en la cocina vasca*. Donostia, 1958. 145 orrialdea.

BIDEZ BIDE

Koldori, aspaldiko eta laburreko, hurrean betiko, adiskidantzaz.

HALA BIZ.

Goizeko hamaikak eta bost. Zeredozer egin gogo dut. Gomutak dartzkit eurrez. Hits nago. Triste. Hamaikak eta bederatzi. Gasteizen nago. Ez da itsusi. Eguraldi ederra. Oraindik. Ez dakit sargori izanen ote den. Beharbada bai, hala izan zelako atzo. Eguraldi nazkagarria! Tristezia. Desesperoak harrapatzen nau. Histasuna. Atzo aspaldiko eta laburreko adiskide batekin para nintzen. Derrepentean gertatu nintzen. Ez nuen espero, ezta hura gogoratu. Uneon konturatu nintzen zein nuen maite. Oihanean askatasuna. Bakea basoan. Lagunarteko adiskidantza. Estibalitz ikusgarri da. Zuberoa ere. Liluragarria. Maitasuna ere. Araba neronek uste baino gehiago. Zoragarria. Bultzatzaileak behar ei ditugu; bide ditugu. Osterantzean... Kaixo mutila, zelan bizi?... Ondo, ezta? Aspaldi honetan elkar ikusi gabe... Ene, ondo edo... Aurrera, hits zein indarge. Aitzina baina. Orain urte bete, Zuberoa lagungile gertatu zitzaigun. Lehendik maite nuen, horrelakorik, ez eta horrenbesterik, ez nukeen edo sekula, inoiz, espero. Gaueko hamabietan, atzokoetan, aspaldiko, eta laburreko adiskide bat berridoro nuen. Mendixka hau ederra. Euskaldunon erretiragune. Gernika bezala. Bakegune. Herri-gintzagune. Askatasungune. Adiskidetasungune. Maitasungune. Nahikunde- eta nahigune. Zelan hago mutila? Ondo, eta hi? zidan erantzun. Uneon ohartu nintzaion. Zein nuen maite. Adiskidantza. Araba pentze zabal, ordoki gotor. Landa sendo. Estibalitzeko lurretan. Tontortxoaren gainean. Nafarroa, Nafarroa, oi Nafarroa..., lotu gaituzu. Ihaz. Zuberok. Orain Arabak. Euskal Herria, maite zitugu, elkar, dugu. Ustez,

dut eritzi. Beduka hark. Betiko. Denboren errematean. Lagunartean, adiskidartean. Goizeko hamabiak zortzi guttiago. Lasaituz noa, deses-
peroaren indarra ahaulduz, indargetuz. Ez adiskidetasunmina. Adis-
kideminez dut idazten. Gogoz. Kanpaiak gora. Gora, errerika, gora.
Apaldu dira honez gero. Patxaraldia berriro. Gauez berriz nuen adis-
kide bat ediren. Ez nuen espero. Eskerrak zuri. Zarenari. Edo ez za-
renari. Ezari. Zaratekeenari. Berdin dit, nor zaren, bost axola eta
ardurarik ez. Naizen edo honengandik, eskerrik asko. Esker mila.
Hanitz.

Andolin Eguzkitza



HERENSUGEA (El Dragón)

Madril-go Ateneo-an
1975-ko otsailaren 3-an
emandako hitzaldia.

J. M. Satrustegi

Pozgarri da neretzat Madrilen, eta Ateneo-an, euskal euskal gaietaz hitzegitea.

Eta pozgarriago dela esango nuke oraindik, eratzailleak berak, gure euskaltzain lagun Bozas-Urrutiak eskaturik, aitonen semeon euskara maitean ipuin zaharrak adierazteko bidea izatea. Era hontan, ahoz-aho entzundakoen gozamen beresia, itzulpenik gabe, zabaltzen ahal du hitzez-hitz hartutako esaerak.

Baina, gure poz eta atsegin guzien gainezka, halare, erdal uri nagusiko hainbat euskaldun, gaur eta hemen, elkarrekin biltzea. Hitzaldiaren ondotik, galde-erantzunen epe bat izango da.

Olerkari zaharrak, artist-amets eta euskaltzale sutsu zen aldetik aspaldi esana zait gogora heldu:

*«Euskara, euskara, jalgi hadi plazara!
— jalgi hadi kanpora!
— jalgi hadi mundura!»*

Eta ez esan neri, ez zaizuenik gertatzen zeuron buruok, noizbait, ameslari senditzea. Gure hizkuntza kuttunaren etorkizuna gogora ekartzean, nork ez du asmo hoberenen gordailutik pitxi beresia opatzen? Ama batek bere haurtxoarentzat bezala, bizi luze emankorra nahiko genuke gure hizkuntzarentzat...

Eta hara nun ametsak, nolabeit betetzen hasirik. Euskal Herriko hibai eta mendien zurrumurru gozotik urruti, euskeraz mintzo eta euskeraz aditzen ari.

Ezin nuen, barneko pozaren eragina zuci agertu gabe hitzaldia hasi. Goazen orai harira.

IPUINAK

Herri kondakizuna, haurren gauza bezala hartu izan da gure artean. Su baztarreko betegarri, famili txikiaren oheratzeko tresna. Herrialde aurreratuenek, beste alde, jakintza sakonak ateratzen hasiak dira ele-zaharretatik; gero ta garrantzi gehiago eman ohi zaie. Pentsamolde askoren bilduma omen dira eta ikasgai izkutuak gordetzen omen dizkigute. Gizon ikasi eta jakintsu haundiak heuren azterketan ipuiak lan-tzeaz ez dira lotsatzen.

Nik esan dezakedana hauxe da: istorio-misterio hauetan sakonduz bezala, herrialde zaharren joerak elkarrengandik gertuago eta berdina-go agertzen zaizkigula. Lurrez eta itsasoz sakabanatuak diren herriak, dantza eta folklore gaietan kutsatuak agertzen zaizkigu maiz asko. Munduan zehar oso ezagunak diren ipuin mireagarriak, orai duten zabal-kundea izan aurretik ere ezagutzen zituzten gure arbasoek.

Euskal Herriari buruz, bere aberastasun haundienetatik bat herri kondakizunetan duela ezin uka. Aspaldiko herri zaharra izanik, txal edo aetxe larrutan oso idazki gutxi utzi digute gure aurrekoek. Euskal liburuak oso berriak dira, XVI. mendea atzo goizeko argi sentia baizik ez bai da herrialde ikasien aldamenen. Euskaldunok, beraz, hainbeste mila urtez egositako jakintza eta gertakizun haundien testigutza, ahoz-aho egindako kondairaz bakarrik dakigu. Kondakizun politetan eman zaizkio haurrari bizi-legeak, esames zaharretan du gazteak zuhurtasuna-ren gain maila, hitz laburrez eman ohi du agure zaharrak borroka gu-zien barne muina. Jokabide maltzurra eta gaiztakeria gaizki ikusiak dira, eta ipuinetan badute beren zigorra. Garai bakoitzeko sinesteak utzi du ezaugarrien bat eta, gizonaren asmo eta gura nagusiak barne dira gehienetan. Datozenen hezibide eta igarotakoen lekuko ditugu esames asko.

Bilduma onak baditugu. Azkue, aita Donostia eta Barandiaran izen agurgarriak dira herri jakintza gauzetan. Azter-lana, halare, herri ba-ten sakontasun osoan egiteko gogoa banuen nik, eta hemen duzue orai lan honen atal txiki bat. Herensugeaz esango ditudanak, ez dira inungo bildumetatik hartuak; Naparroako herritxo batean neuk jasoak baizik. Urdiain, joan deneko hamar urtean bizi naizen herria, euskal kutsu za-harreko harrobi aberatsa gertatu zaidala esan beharko nuke, noski. Ikus, zer uste gabeko isuria darion.

HERENSUGEA

Oso zaharra da Euskal Herrian Herensugearen ipuina. Era askota-ko izenak ditu: *Lerensuge* (Ezpeleta), *Astru* (Oinati), *Maju* (Azkoiti),

eta abar (1). Urdiain-go zaharrek *Iransube* deitzen diote. Gazteak, berri, *Ireinsube*. Altsasun bizi den emakume urdindar batek *Iransubea* esaten du. Garbi dago Sakanan «*sube*» dela; ez «*suge*».

Gai hontaz, modu askotako ipuinak badira, eta bai beste izen batzuk ere: *Luzifer* da ezagunena. «*Su-ta-gar*» joaten omen zen Aralar-dik Urbasa mendira. Esaera honek «*Sugaar*» hitza dakarkigu gogora. Barandiaranek uste du «*Suge-harra*» izango zela hasieran eta, nola nahi dela, Herensuge baino zaharrago ditake (2). «*Deabrua*» ere, azkenekotz, sartzen dute urdindarrek ipuin hauetan.

Esaera zahar hauetan garai askotako asmakizunak elkarrekin xertaturik eta bat eginik bezala datozkigu. Nola berestu? Zahar eta berri, aintzinakoak eta oraitsukoak elgarretara ekartzea izango litzateke arrisku bat. Baina, denak denbora berean jaso ditugu eta herriak ez ditu deusetan bereisten. Biltzeko lana, behintzat, urteak eta adina alde batera utzi-ta, gaiari lotuaz egingo dut.

Hiru maila nagusitan sartuko nituzke jaso ditudan guziak:

I — *Lehen maila: su ta indar hutsena.*

Luzifer sutsuak Urbasa-mendian du neguko egoitza. Uda denbora nahiago du Aralar mendia. Su printzez ufaka aldatzen da batetik bestera:

«Luzifer, gauaz ikusten diren su-kolorezko izar batzuk (dira). Sua dariola San Migelen atera ta *Artzaan*-baratzen sartzen zala esaten zuten. Gauaz ikusten zan. Artzai batzui begien aurrean pasatu emen zitzaien Bargan.» (Lucas Zufiaurre, 1965).

Urtezahar batez, gau erdian, mutilen «*Ur berriari*» zai geneudela, hala esan zidan herri-agintari batek:

«Luziferrek bazituben hemen komediyek. Luzifer ibiltzen zan airien; *su-ta-gar* pasatzen zan. Hala zan:

—Beira, beira Luzifer! *Artzaan-baatzeko* koban sartu emen duk; Lokitzen pasatu emen duk...

Buztana sutan ehaten zuben, gar haunditan. Gauaz, udako bero haundiyokin-ta, *zaldiya bezela*, koloria gorriya. San Migel-dik etortzen emen zan. *Artzain-baatzien* sartu baia, handik Lo-

(1) Beste izen batzuk: *Erensugue* (Sara, Zugarramurdi), *Herensugue* (Ezpeleta), *Errensugue* (Camou), *Hensugue* (Laguinje), *Herainsugue* (Ezpeleta), *Edensugue* (Sara), *Edeinsugue* (Saint Esteban), *Edaansugue* (Uhart-Mixe), *Egansugue* (Rentería), *Iguensugue* (Zaldivia), *Iraunsugue* (Ataun), *Sierpe* (Lequeitio, Zubiri), *Ersugue* (Ochandiano), *Lerensugue* (Ezpeleta). (J. M. Barandiarán, «El Mundo en la mente popular vasca» (Añamendi) IV, p. 140.)

(2) Barandiarán, J. M., l. c. (p. 136).

kitzeá eta handik Logroño aldea faten zan. *Zaldiyeen itróta, eta zaldiyeen buztana ta bee buztana sutan ta garretan* faten zan aurrea.» (Javier Goicoechea, 31-XII-1973) Segundo Galarza-k laguntzen zion.

Beste batzutan katu itxuran ikusten zuten. Argia ere, joan etorri-ka ibiltzen zitzaiola adierazten digu orain berri emaleak:

«Luzifer garra bezela gauaz ikusten zan zer bat (da). Katu-bain formia ibiltzen zuen. Ihazi ta itzali. Bi aldiz ikusirik daukat nik. Aldi batez, Odolkitik San Migel aldera jo zuan. Eguna bezela argitzen dau gaua.» (N.G. 77 urte. /U/ 1970).

Orai ez da, ba, ikusten! esan zion bere emazteak.

—Lo egoten gara ta! erantzun zion berak.

Luziferrek udarako eguraldi on eta txarrekin zer ikusi haundia zuen. Euriak eta ekaitzak berak astintzen zituen Aralar mendi tontoretetik. Duela urte gutxi arte konjuroak egin ohi ziren herrian. Maiatzaren hiruan mendira joaten zen apaiza, herriko agintariekin. Abere batean eramaten zien herriko-mutilak bazkaria. «Mugetako kurutzeak ezartzea», deitzen zitzaion lan honi. Zurezko gurutze txiki batzuk uzten zituzten, aize gaistoak eta bahazizkorrak urte guzian kalterik ez egiteko.

Hontan ere sineste zaharrak badira. Nunbaiteko harzuloren bat ba omen da Urbasa alde hortan, Luziferren koba. Hara zer jokua egiten zioten urdindarrak:

«Maiatzien kuutzak paatzea faten zan apiza ayuntamentukoekin. Harriya bota "Artzain-baatzeko" lezien eta gora itzultzen bazan, han zoon (barruben) Luzifer. Kuutzia paatzen zain eta preso gelditzen zan. Harriya barrura faten bazan, Luzifer Aralar mendian fana (orduako)». (Martin Agirre, 1969).

Lehenagotik entzuna nuen ipuin hori. Izadiko indar izkutuak barne dira kondakizun hauetan.

«Esaten zain "*Kuutzetako harriyen*" ba zala koba bat, eta apizak bonetia botatzen zuela barrura. Deabrua han balin ba zoon, bonetia gora iyotzen zala. Orduen apizak errezuek in eta bestia urte guzirako preso geratzen zala. Kuutzia paatzen zitubain koba baztarrien eta ur beikatubakin musti.» (Lucas Zufiurre, 1965).

Gure gizonak bazuen gauza hoi-zen zalantza bizia. Ikus eta sinets egin nahi zuen, nunbait, aspaldiko Santo Tomasek bezala eta ez cut uste ur garbirik atera zuen. Hona bere hitzak:

«Askotan ibiltzen nitzan koba horren bilan eta nik behintzat ez nuen arrapatu. Urbasako artzaiei galdetu, eta haiek ere ez zakiten nun zegoen.» (ibid.).

Barandiaran-ek uste du Sugaar eta Mari elkarren antzekoak direla biak (3); eta Urdiain-go Luzifer ere berdin. Emakume jantzien ikusia dute, gainera, beste batzuk:

«Aita, beste lagunekin, San Migel mendiyen eh! ta andra bat ikusi (zuten) "txomoluekin" (chanclos). Gero itzali (in zen).» (Francisco Ayestarán, 1966).

II — *Bigarren maila. Aztikeria*

Haizpe ta koba-zuloko biztanle itsusia, ez da orai euria eta idorteak gizonari sortzen dizkion indar bildurgarria bakarrik. Gizonarekin buruz-buru borrokan hasia dugu: giza-aragiz alatzten da, eta bere mizto zikinarekin herri osoak galdu behar ez baditu, egunoro norbait bialdu behar izaten zaio bere leze ahora.

Gizonak aztikeriaz, magia, ekiten dio. Garailea, izen gabeko norbait da beti, artzai, gudari edo herriko mutil gazte bat. Emakumea agertu ohi da arriskuan.

«Irairubia Mendarteko lezian egoten emen zan, eta gauero herriko neskatx majena jateko ataatzten emen zan lezetik. Gau-eko neskatx bat. Leze puntan emen zoon neskatxa bere burua orrazten eta mutil bat joan emen zitzaion, neskatxain partez irainsubiaingana sartzeko. Indar asko bai zuen irainsubeak, burruka beltza sortu emen zan.

—A! oraintxe neskatxain musu bat banuka eta pinta bat ardo! Irabaziko nitek bai...! esan zion mutilak.

—Arraultziaikin bekainien jo ta ez bada, ez dok nei irabaziko dianik, —erantzun omen zion irainsubiak.

Nexkixa noa-edo-hara joan eta arraultzia ekarri ta kox! jo eta subia hil emen zain». (Plácido Aristizábal, 12-6-1971).

Gure berri emalearen alabak beste berri batzuk ematen ditu. Sorgina bazen herrian, eta honek eskolaturik egiten ditu gauzak neska gazteak:

«Ireirubia atátzen zen lezetik eta eguneko neskia jaten z(u)-en. Herriko neskekik obeena. Zôn atso bat, sorgina edo dana dala, eta erakutsi zean:

—Eraman zan arroltze txiki bat eta jo ireinsube horri bost al-diz arroltziakin kopetan. Berak eman zean arroltzia.

Ireirubia ataa be(ha)r zuen zuluain aurrien zôn neski hori orrazten. Mutil bat agertu eta esaten dio:

(3) Barandiarán, J. M., «Mitología Vasca», p. 101. Cf. «Mari o el Genio de las montañas», Homenaje a D. Carmelo de Echegaray (Sn. Sn. 1928), p. 265 y 267.

—Zer ari haiz hor? Nik muxingatu be(ha)r dinat horrekin. Ataa zen ireinsubia eta hasi zien biak burrukan:

—Neska baten besarkat eta pintat ardo banuka, dominatuko nikek bai nik hau!

Bitartien, kox, kox, jotzen emen zean neskak arroltziakin eta bost aldiz jo zeanien hil emen zan ireinsube hoi.» (Sabina Arisitizábal, 17-X-1971).

Arraultzea da bigarren maila hontako tresna beresia. Arraultze txikia. Nundik eta nola sortzen zuten? Oilanda baten lehenbiziko arraultzak bere kokka bazuen Urdian-en:

«Oiluek arraultze txikia egiten zutenien, bide kuutzetan (arraultziak) hautsi egiten genduzen. Nik in dot bi edo hiru aldiz. Gorringoik ez dai ibiltzen, zuringo hutsa.» (Engracia Galarza, 75 urte. 18-XI-1973).

Beste berri emaille batek gehiago esaten digu: bide kurutzera eraman eta hautsi ondoan, su ematen ziotela. (Bibiana Goicoechea, 1973). Hau ote herensugea hiltzeko on den tresna?

Chaho-k harrigarriago den berria dakarkigu: «oilar batek arraultze txiki bat ezarri omen zuen eta ongarri (zimauro) azpian sartu. Arraultze hortatik sortu omen zen Herensugea.» (4).

Gauzak oso zailak ezartzekotan, halare, bada arraultze txikia eskuratze bide luze bat. Entzun:

«Deabru batek zeukan etxea. Etxe hartan zeuzkan jendeak, hartu ta be(re)tako eremanak. Jende tarte artan zôn mutil bat. Gau batean aitu z(itu)en otsak kanpuen. Atâ zan, eta zailtzan pisti batzuk asto zar baten aragien ezin partituik. Mutil arek puskatu z(u)en asto ura zatikan eman zeon bakoitzari berea. Orduen pisti aik eman zeo(te)n "don" bat: esan *Jan-goikua eta leona* ta biurtu zan leo(i)a; eta besteak ere, zer nai z(u)en, ura. Sartu zan etxera, eta etxen atso sorginak deabruari burua ikusten, galdetu zion sorginak:

—Nagusia, noiz il be(ha)r za?

Deabruak erantzun zion:

—Ni, sekula ez; ni iltzeko il be(ha)r dai Aralar mendiko iraunsubea. Iraunsubea il, tripea zabaldu; andik atâko da erbia korrikan.

Ura arrapatu ta il, tripea zabaldu ta andik atâko da usoa egakan.

(4) Chaho, Agustín, «La Serpent du Valdextre». «Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan», I, pág. 172.

Ura arrapatu ta il, ari tripea zabaldu ta arrontzia atâ.
Arrontziarekin kopetan jo ta ilko naiz. Ori zein(ek) egingo dau? Iñork ez.

Mutil orrek aitu z(i)on ori ta etor zan Aralar mendira, ta an zen neska bat belauneko. Iransubeak jaten z(u)en egunero jende bat, ta neska orri tokatzen zaion. Mutil orrek esan zion:

—Zer egiten dezu emen?

—Iransubeen espera nago.

Ta esan zion mutiko orrek:

—Kendu zait(e), jarriko naiz ni.

Jarri zan mutil ori iransubeai espera.

Alako bateen atâ zan iransubea kuebatik eta mutil orrek esan zion:

—Jainkoa ta leona! Ta biurtu zan leona.

Asi zan mutxikan ta iransubea larritu ta sartu zan kobean. Gosek zegon ta berriz ere atâ zan ta orduen mutilak il z(u)en iransubea. Orduen tripea zabaldu (ta) atâ zan erbia korrikan. Mutil orrek esan zion:

—Jangoikoa ta galgoa!

Txakur biurturik, arrapatu zen erbia eta tripea zabaldu(z) atâ zan usoa egakan. Esan z(u)en mutil orrek:

—Jangoikoa eta arranoa!

Arrapatu z(u)en usoa, il eta tripea zabaldu; atâ zan arrontzea. Orduan esan zion:

—Jangoikoa eta gizona.

Artu arrontzi ura ta fan zan deabruen etxera. Deabrua oso gaixo zôn oian. Esan zion atso sorgiñak:

—Zer gertatzen zaizu, nagusia?

Deabruak erantzun zion:

—Il dinai Iransubea.

Orduen ailatu zan mutila. Esan zion deabruak:

—Orrek, orrek il din iransubea; orrek il be(a)r nau ni! Mutil orrek arrontz(i)ekin jo zon kopetan ta il zan deabrua. Il zan garaien etxe ura argi argi egin zan. Len ilunpetan. Orduen mutil arrek ango jendiak bialdu zituen ebein etxetâ eta bera, an zeon neska batekin ezkondu zan.

(Bibiana Goicoechea-k esan eta bere alaba Amaia Oiarbide-k idatzia. 1973-X-1).

Lehenbiziko mailan deabruaren izena aipatzen zen. Hemen, deabruaren bizia eta Herensugearena elkarrekin lotuak dabiltz. Aralar-ko basapistia hiltzetik datorkio infernukoari bere heriotza. Arraultzea bera, deabrua hiltzeko tresna da. Aztikeria sinesmen mailara aldatzen hasia.

Ondar maila hontako ipuinak dira ezagunenak. Kristau zalduna dugu orai Herensugearen garaile. Azterketa aldetik, Zaldunaren nortasunak Edipo eta Julian santuaren bizitzarekin duen har-emana adierazi berria digu Julio Caro Barojak (5). Dudarik gabe, Santiyo bideko beila-riekin asko aberastuko zen Aralar mendiko euskal kondakizuna.

Nola nahi dela, ez dezagun hauts orai gure haria. Izen haundiko jaunak ditugu maila hontan Herensugearen garaileak. Goñi-ko Zalduna gutzat izen nagusia.

Aralar mendia da, berriz ere, gertakizun guzien odol-landa. Hasiera hasieratik azken urratseraino, Euskal Herriko izen honen inguruan dabiltz kondakizunak.

Sinesmenez zuzentzen dira, azkenean, oztopo guziak: bekatu latzaren zigorra jaso duen gudaria, Mikel Goi-aingeruaren laguntza, eta Gurutzearen garaipena dira zutabe nagusiak.

Herri ipuinetan, beste alde, ezberdintasun jakingarriak arkitzen ditugu. Batzuek, hala gertatu beharra, basa-pistiaren hortzetan zegoelarik neska gaztea agertuko zen Teodosio azkarra.

«Len Ireñsubioi (ba) emen zan. San Migeleko haitzien edo an nunbait ataatzan zan eta jaten z(it)uen personak; aldian bat, tokatzen zianien, fan in ber zian jatea... beregana fan eta arek jan.

Aldien batien aillatu zan nesaki gazteen bat eta (bazihoan) jatera. Teodosio fan zan orduen; Teodosiok apiki alto in zean eta nesakia libratu jan bee, burruka sayua haundia in-da.

Eta neska fan zan etxeâ, Huarteâ edo Irañetâ edo hala; bestiak burruka sayuen hil zuen Ireñsubia». (Javier Goicoechea, 31-XII-1973)

Honen antzekoa da Urdiainen bertan bildutako beste ipuin bat. Emakumea hiltzera dihoa, baina otoitza egiten du eta orduan da agertzen Teodosio. Neskaren ahoan ezartzen du, beraz, otoitza.

«Gue amak esaten zuen Irainsubia Aralarren etzaten zala, txerri buruba baino buru haundiyokuekin. Egunero persona bat jaten zuela, eta faten ez balin bazan herritâ jaisten zala.

Suertetâ botaik nor fan, neskatx(a) maja maja bat zala jateko, ta gero neskatx hura han zôla koban espea ta atâ zala Irainsubia. San Migeli laguntza eskatu ta Goñi-ko Zalduna agertu zala. Ezpataikin hautsi, subiai lepua kendu ta neskatx hura goitik behera etorri zala. (Engracia Galarza, 72 urte. 1970)

(5) Caro Baroja, Julio, «La leyenda de Teodosio de Goñi». Ritos y mitos equivocados (Madrid, 1974), pág. 182-183.

Hirugarrenean, Teodosio bere pekatu latzaren ordainketa egiten ari den erromes damutua bezala agertzen da. Kate lodiak daramazki arrastaka, eta ez du inorekin hitzik egiten. Huartetik joandako emakumea ikusi du bidean eta bere ordeztu badihoa Herensubearen koba zulo bildurgarrira. Bidera atera zaio leze barnetik basa-pistia eta hasten dira biak burrukan. Larri ikusi duelarik gizonak bere burua Mikel Goi-ingeruari dei egiten dio, eta ezpatatz ehakitzen du honek Herensugearen burua. Denbora berean, hautsirik gelditu ziren Gofñi-ko Zaldunaren burniak, Jainkoak pekatua barkatu ziolako marka. Era honetara kondatzen da gehienetan.

LABURPENEA

1) Aralar ez da Euskal Herrian, esamesen arabera, Herensugea agertu ohi zen mendi bakarra. Era honetako isinpruak, Urdiaingo hiztegia erabiliz, oso ugariak ditugu baztarretan. Arneguy-n, esate baterako, Luzaideko mugan bildu nuen honako hau:

«Xiximurru, Arneguy-ko aldean dagon mendiska baten izena da. Aspaldiko denboretan zazpi buruko subea izan zelako sinestea gorde zaigu. Harat zoan neskato gazterik ez omen zen gehio etxerat itzultzen. Burnizko kurutze bat bada orai han, *Xiximurruko kurutzea*.» (1958).

Zazpi buru hoi berririk ez dut jaso Urdiain-en. Zerri burua bezain haundia zuela esan du bakarrik Engrazia Galarza-k. Su-garretan itsasoan amiltzen ere ez du inork ikusi. Urrutiegia, nunbait, itsasoko putzua (6). Lokitz menditik Logroño aldera joaten zela besterik ez dakite Urbasa-ko artzaiek. Lekuan lekuko gauzak.

2) Oraintxe ikasi berria dudana ipuinak, Teodosio gizajoaren beste berri txar bat dakarki. Kateak hautsirik ikustean, alegia, bere etxera joan zela ostatu bila. Emazteak ez zuen bere senarra ezagutu eta, afaldu ondoan, ohe bat eman zion gela beresian. Gau-erdi inguruan nun hasten diren, dilin dalan, herriko ezkilak beren buruz jotzen.

«Atea zabaldu eta koartora sartu ziranean, danak arrituta gelditu ziran ango argitasuna ikustean. Lau kandela aundi zeuden piztuta leio ondoan, ta Zalduna oiaren gainean zegon luze-luze etzanda, ilda. Buru inguruan koroia eder bat zeukan, ta argitasun aundi(a) botatzen zuan. Eskuetan, berriz, liburu txiki bat zeukan ondo estututa. Bata ta bestea asi ziran liburu ura kendu naiean, baño inork ezin zion kendu. Etorri zan alkatea ere, ta ark ere, egiñalak egiñ arren, etzion kendu.

(6) Azkue, R. M.ª de, «Euskalerriaren Yakintza», t. I, p. 440 (Madrid, 1959).

Deitu zioten apaizari ere, baño onek ere ezin kendu izan zion. Bitartean erriko kanpaiak, tilin, talan... ixildu gabe ari ziran, geroz azkarrago ta ots aundiagoan. Azkenean Zaldunaren emaztea ere asi zan liburu ura kentzeko asmoan, ta ikutu orduko, ildakoaren eskuak zabaldu ziran, ta liburuaz emaztearen eskuetan gelditu zan. Une artantxe ixildu ziran kanpaiak. Asi ziran ikusten liburuak zer ote zekarren eta andixek jakin zuten ildakoa, Goñi-ko Zalduna bera zala. (Jose Arratibel, Ataun. 1974)

Gure haurtzaroan, Arbazu-n, modu hontako heriotza, Alejo santuaren bizitzako gertakizun bezala entzuten genion geure amari. Munduan beti eskale ta behartsu izan zen etxealde oneko semea, bere etxera heldu zen gau batez ostatu bila, eta emazteak ez ezagutu. Eskaler azpiko txokoan eman zioten etzateko lekua, eta han il. Herriko ezkilak, inork eragin gabe, zalapartaka jotzen asi zirelarik jakin zuten hilaren nortasuna.

3) Euskal Herrian zehar ipuin ederrik badelarik gai hontaz, herri txiki bateko sineste zahar eta isinpruetan sakondu nahi izan dut nik, oraikoan. Aralar mendi inguruko berriak dira, alde batetik. Herri euskaldun eta jatorra, beste alde; kutsu aberatseko ohitura eta esamesak ere gorde dizkigu. Jasotakoaren berri eman dizuet: Luzifer su-garretan oraintxe arte ibili zaiguna, arraultze txikiaren indarra, eta San Migelen garaipena Aralar mendiko kondairan (7).

Eta besterik ez. Danoi eskerrik asko, eta gau on!

(7) Satrústegui, J. M., «Reminiscencias de culto precristiano en la devoción a San Miguel». Cuadernos de Etnografía de Navarra, n.º 6, p. 287.

PELLO BIURKA

Munduan gizon ulerkaitzik baldin bazan, uraxe zan.

Ez nintzan beñiere aise egon bere ondoan. Ez nuen beñiere asmatu aal izan berarekin iketan egitea. Bai zera! Olakoxea zan ba Pello gure gizona. Besteak ez bezelakoa. Aparta! Bai, aparta!!

Asteko, zergatik artu ote zuen akuran nere etxeko gela oso bat, ez ordea ogatze bakar bat, beste lankideek oi zuten bezela? Eta zer asmo ote zerabillen goi artan? Emakumerik ez beintzat. Ez orixe! Ardorik edo ttottarik ere ez ain segur. Ez bere gelan, ez edaritegian.

Goiz batez, lantegira bidean, gizon jantzirik ez baño, momoxarro jantzirik zijoala iduritu zitzaidan, nik dakita zergatik. Baxoerdi bat eskeñi nion.

—Eskerrikasko —esan zidan amultsuki. Eta ontzitxoa eskuan artu ta, nere iduriz malkoz beterik zeuzkan begi eder aietaraiño jaso zuen. Eskua dar-dar asi zitzaion.

Uste nuen ba, ardoa mai gaiñera botatzera zijoala. Izan ere, Pello gure gizona gizon bortitz eta indarkerizale zan. Bere kolkorako bakarririk ordea. Eta oietxek izan oi dira okerrenak. Ez zuen olakorik egin. Alare!

—Ez! Eskerrikasko —esan zidan—. Ez dut edan nai! Eta ontzitxoa mai gaiñean utzi zuen.

Noizbeinka, ogatzerakoan, bere gelan marmar ari zela igarritzen nion. Baño marmar, zertaz? Egunaz berriz, bere buruarekin izketan zegola nabari zuen, ero bat antzo gora-gora asteko ba-lego bezela. Bere lankideekin berriz aopetik doi-doi elekatzen zan, bildurraren bildurrez edo. Olako gizon puska!

Ori bai, beti prest zertan edo nolatan urkoari laguntzeko. Alare ez zuten lagunak oso maite.

—Au ez duk guretarra! —zioten elkarri. Ni ere ez naiz jende oieta-koa, Jainkoari esker. Baño bere penak aaztutzen laguntzen diet nola edo ala. Bederen, igandeak eta jaiegunak gogoraazten diet nik. Pello gizaño orrek berriz...! Zoaz!

Gaurko gertakizunak arrabots aundia izandu du baztarretan. Gaur GABON dugu, izan ere. Pello ez zaigu etorri. Bere gelara itzoro naiz

eta, ango naasketa! Jantziak ete bere zitun tresna batzuk erabat utzirik bide ditu agidanez.

Egun goizetik bere galdezka dabiltzkit erritarrak eta «Olaundi»ko langilleak, edateari ere jareginik. Nik esaten diet:

—Ez dago ba emen gure Pello!

—Etorriko ote da?

—Zer dakit ba nik?

Oietako batek, ukabilaz maia astintzen dula, esan du:

—Etorri bear luke ba, oraintxe bertan!

Nik, biar goizean, auxe jarri bearko dut nere etxe aurrean zintzilik: «AKURAN DUT».

Gaueko amaika t'erdiak irian, edaritegia jendez mukuru beterik zegon. Kristalak, jendearen atsakin, laifioturik zeuden edo an-emenka kurrumaz estalirik, ataria txitean-potean idekitzen ba zan ere. Ontan, mendigoizale bat sartu zitzaigun eta aize otz bolara bat ere bai, bera-ekin batera.

—Gabon danoi! —esan zigun. Eta atsegin irrimurtzi batekin, soifnekoan zekarzkin amokelak inarrosiz eta oiñetakoango elurra astinduz, beatz puntta mautuei arnas zemakiela, lagunartean, supekarreko alki gaiñean toki billa asi zan, ipurdiari arat-onat eragiñaz.

Nik telebista ixegiñik neukan, zer ikus. Betiko tetelkeriak! Bezperako gertakizunak eta modan zeuden abestiak. Barneko erasiak eta marmarrak ordea musika itto egiten zuten, eta telebistako ibillerak zipotz-tximukeri mengel batzuk ziruditen. Eskerrak botilla asko bete nitula aurretik! Mai orotan, botillatako ardoa jetxi ala, erasia gora zijoan. «Ez al da iskanbillik sortuko beifnik-bein!», nion nik nere baitan. «Joan den larunbatean muturrekoka asi ziran ba, ta kanpora bota bear izandu nituen zalapartan. Gaur, bi serbitzariak baizik, emakumerik ez dago aretoan beintzat eta», egiten nuen nik nere kiko.

Nik ez nuen gure Pello ikusi ta neretzat bere gelan zegon, ain segur. «Jai arratsaldea izanik, nun dagoke bestela?» esan nuen nere kolkorako.

Bai, zera! Toki onean nebillen nere zori txarrerako!

Izketaen erasiak eta botill eta ontzitxoan klin-klankak zirela ta, ifior ez zituen gauerdiko ezkil soñuak aditu, eta berebat ifior ez zan konaturatu telebistak bere iduriak txoil aldatu zitula. GABON gauerdiko meza alajainkoa!

Bi lagunen artetik beako bat egin nion nik telebistari. Zenbat eta nolako gogorakizun etorri zitzaidan burura! Nere jaioterriko apezxaarra! Nola zeritzaion? Eta zer erantzuten genion bere «Dóminus

vobiscum» arri? Ez dakit! Nik dakitena orduan oso zorioneko nintzala!
Bai orixe!!

Aretoan, nik ezezik, beste batzuek ere ortxe-ortxeko gogorakizunak bide zerabilkiten buruan: baxoerdia eskutan, irrimurtzi batekin begiratzten zituzten telebistako irudiak. Ontan, Pello begiz jo nuen ustekabean; eta ain zegon besteak ez bezela, ezin bait nitien begiak gaiñetik kendu. Txoko illun batean zegon kukubiko, zorroa belaun artean, xakurtxo beltz bat bait-litz. Okolondoak belaunetan, aurpegia bi eskuz estaltzen zuen, Bereala oartu nintzan beatz tartetik kirikekan telebistari so egiten ziola. Lilluraturik nabari zuen. Jendeari ere begiratzen zion tarteka, batean oni, bestean ari, baño ifiora gabeen, deus ikusiko ez ba lu bezelaxe, orain asarre ta moker, gero urrikal eta samur. Bat-batean zutitu egin zan, zorroa eskuan, ta edale artean okolondoka bide egiñik, telebistaruntz joan zan eriosuber.

—Aizak, i, aldera adi, ez diat ikusten eta!

Nere bildurra, zalapartaren bat sortuko ote zelakoan!

Pellori dei egiten nion, «eit, eit!», baño ango kalapitak nere otsa iresten zuen eta alferrik nebillen. Orduan Pellok bere zorro beltza telebistari arrika bota zion oldarrez eta indar guziz, eta pantaila milla puskatan lurrera joan zan klink eta klink.

Telebista gaixoa! Begioker gelditu zan eta begi uts aundi artatik barneko tresneri guzia agirian genkusan: eletrika-ari, xaretxo, zondoko, grisela... nik dakita zer ondamen delikatua. Urrutitik bonbaz erraus-tutako iri bat zirudin.

Jesus-amen batean denak ixil gelditu giñan arri ta zur. Pello bera ere an finkatu zan zutik, muzin ergel batean. Ni asi nintzaion oiuka lenbizi:

—Baño, baño! Ze arrayo gertatu zaik? Zein arkakusok ozkatu au?
—esan nion iketan lenbiziko aldiz.

Ba zirudin itzartzen zijoala, ta bere begitarteari alako ukigarri bat zerion, nun ta nere asarre gordiña begi-ixte batean eztitu bait zan. Okotza dar-dar zebilkion. Baño nere telebista xeakatuari so egin nion ta berriz ere zaiñetako odola irikiten jarri zitzaidan ta bururaiño itzoro. Besteak, zozo batzuk egiñik, batean Pello bera, bestean telebista begiratzten zuten, mirakuluz berrituko ote zan edo; bestean ni nerau.

—Ots! Ez al duk erantzun bear? —akar egin nion.

Pello'ren ezpafiñak ifiork aditu ez zituen itz batzuk esan zituzten aopetik.

—Ze arrayo ari aiz or txutxu-mutxu? Tetela! Tetel alaina!

—Onek ez zezaken ola iraun —esan zuen.

Gero, bere baitara itzulirik, bere lagunak inguruan zitula oartu zan,

eta inguru guziari begi itzuli bat egin zion, sekula santan ezagutu ez nion begitze bitxi batez: gogor eta ezti, zorrotz eta bigun, aro batean.

—Ez! —esan zuen berriz ere, oraingoan gorago— Ez zezaken ola iraun onek! Abeslariak, fartzuntziak, gezurrezko ipuiak! Eta egiaz gertatzen diranean..., zer?

—Baño, zer esan nai diguk?

—Ementxe! Gure begi aurrean! Pantaila txiki ortan goseak gizonak iltzen ditu, edota bizia galtzeko arriskuan dabiltz! Zuek berriz emen, jan, edan, ta bapo, jaunak! Gazte asko gizonki jokatzan ari da zuzentasunaren alde, askatasunaren alde, egiaren alde, barrikadetan, lan-oporretan, beti presondegira bidean eta eriotza keifuka. Zuek berriz, ajolakabean ondotik pasa ta goitik bera erdainuz begiratu! Ze arrayo! Ikusle utsak izan bear ote dugu ba? Beti ikusle? Eta gizakien oñazeak? Eta munduko gertakizun latzak? Ikusgarri uts ote guretzat? Indarkeria, zapalkeria, injustizia, erriaren deuseza, edo ez ezagutu, edo ukatu egiten genitun. Eta ez bide zan gurea errua! —azken au aopetik esan zuen—. Gaur ordea ez dugu aitzakirik eta ezin gure burua zuritu ifiore! Ez al duzu zuk onela ikusten?

Inguruko mutillak ago zabalik zegozkion begi-ixterik gabe. Lilluraturik zeuzkan. Ni ote nintzan ba erruduna, telebixta begien aurrean ezarri nielako? Pello berriz ifior ez bezelako obengabea, xeatu egin zuelako? Ifiun direnak!

—Itzak itz, nork erosi zuen telebista au eta ordaindu?

Begiak ernatzen zijoazkion, agi zanez; eta pilota partida batean ari balitz bezela, nereganuntz itzuli zituen ni aitzindari bait-nintz. Itxumutxu, bi sobre atera zituen korotilloko ezkeraldeko barne-sakeletik, (egunartan eta aurreko illean jaso zituen lan-sariak nunbait) eta neri eman zizkidan bestaldera begira.

—Tori ta kitto! —esan zidan moker antz.

Nik ba dakit ongi aski zenbat ematen dioten langille bakoitzari «Olaundi»n, eta segur nintzan beste telebista bat erosteko ta gauzak konpontzeko ainbat diru izango zala sobre aietan. Ostatu-dirua ezik, ez bai zuen deus geiagorik xautzen gizajoak! Baño, ez zan ura konponketan asteko ordu egokia, ta esan nion:

—Bai! Zuk ordaintzekoak ordaintzen dituzu, bidezko danez. Baño, orra! zure lagunak telebistarik gabe dagoz aldi baterako. Ta auxe zuten bere jostabide bakarra! Zure erruz!!

—Gañera —esan zuen penaz inguruko lagun zaar batek— gaur gaurdiko meza ikusi nai genuen.

—Meza? Orri deitzen diozu zuk meza? —esan zuen Pellok erantzuki—. Ez dakizu zer dan ere! Meza ez da gero zineko ikuskizun bat,

ongi apaindurik xede ta asmo zabalak erakusten dituna, patxadan ikus leikena taberna batean, kofiak ala wiski artuz bidenabar!

—Bai; arrazoi duzu!

—Tabernak bai, bearrezkoak ditugu; —esan zuen goxokiago—. Ez ordea Meza kutxatxo batean, emakume jostaguraz inguraturik, entzuteko.

—Meza —esan zuen len izketan asi zan lagun xaarrak— elizan bakarrik entzutekoa da noski. Eliza ordea emendik amar kilometrora dugu; elurra dekar; bisutsa ere ba da. Besterik ezifean, ongi zetorkigun tresna ori! Orrengatixe etorri naiz ni gaur onera, ta ez bide naiz ni asmo orrekin etorri bakarra. Orain arrapa zak ankatik!

Pello'k aurpegia eskuartean gorde zuen berriz ere. Artean gu denok ixil! Burua jaso zuelarik, bi matailleak malkoz estalirik zeuzkan eta ez zitzaion ortaz ajolarik batere, gu oso urduri geunden biztartean. Gizon xaarrari ondoratu zitzaion (besteak alderatu egin ziran eta) ta bi eskuak bi beso-burutan jartzen zizkiola, au esan zion:

—Bai! Izango duzute zuen meza, izango duzutenez! Ken denak mai gafiñetik!

Egin ere, ala egin zuten.

Pello'k, mai bat artu ta, txorikume lumatxo bat bait-litz, buruen gafiñetik txoko batean jarri zuen denen aurrekoaldean. Serbitzari bati galde egin zion:

—Ekarzkizu bi zapi zuri! —Eta besteari:

—Nere gelan dagon ezkoa ta argimutilla, otoi!

Gero, emeki-emeki, nere telebistaren puska tartetik bere zorro beltza jaso zuen, zabaldu ta meza emateko bear diran guziak andik ateratzen asi zan. Gure arridura!

—Ardo ta ur xorta bana! —eskatu zidan azkenik.

Jende guzia zutik zegon, arri ta zur. Marmario bat edo beste ere eldu zitzaidan belarrietara: «Au apez duk, iñundik ere!» zioten elkarri ez ta bai, «apez langille oietakoren bat edo. Eman ote lezake meza onek?».

Berak ere marmarioa aditu zuen nunbait, zeren eta marmar egin zutenaruntz itzuli ta asi zitzaian:

—Bai, apez langille nintzan ni —esan zien iya ats-estuturik— kisuzkille ain zuzen. Duela bost urte nere nagusiek nere apez lanetara itzuli nendin agindu zidaten, baño nik amor eman ez. Nere ustean nik langilleen artean neukan nere tokia, auetxek bai ziran zoritxarrenekoak... eta ez bai zuten... Jauna ezagutzen. (Azken itz bi auek ixil-mixil esan

zituen) —Ene aburuz, ezin alde egin nuen oiengandik, iges egite ori meko egitea zitzaken ta. Azkenekoa, ots!

—Bai, jauna! Azkenekoa!! —erantzun zion batek.

—Ni ere ortantxe nago! —beste batek.

—Eta debekatu egin al zizuten? —besteak.

—Ez; nik neronek alde egin dut Elizatik. Ni nerau asi nintzan, eza-rien-ezarien, mezari jareiten. Baño gaurkoa ikusirik...! —Eta keiñu batez puxkalan egindako nere telebista erakusi zigun, eta berriz ere negarrari eman zion kupel bete malko. Geroxeago amultsuki begiratu zigun, irriño bat ezpañetan.

Kanpoan aizeak, orroka ta marrunaka, etxe aurrea gogorki astintzen zuen. Gu ordea aterpe goxo artan eroso geunden patxadan. Bost ajola guri aizeak, eta bisutsak, eta elurrak!

Pelloc «Aitaren» luze bat egin zuen, etxeko leioak idekitzen ari bailitz, eta ango geienek ere gauza bera egin zuten. Asi zan meza ematen geldi-geldi, itz bakoitzari bere doñua ematen ziola, goraki baño neurritz. Gu gure aurtzarora itzuli giñan gogoz eta buruz, eta berari ere besteorrenbeste gertatu zitzaiolakoan nago, ots, aurtzaroko amets politak bururatu zitzaizkiola alegie, politagoak ez baziran. Zeren eta, meza asi orduko, bere begitarteari ta aurpegi osoari alako argitasun bat dir-dir zeriela nabari zuen. Gure erantzunak, banaka-banaka, aurtzaroko oroitzapen goxoak zekarzkiguten gogora, Eguberriak zerbait esaten ziguten zorioneko garai aietakoak...

Meza bukatu zuen guri, oraiño belauniko geundela, bedeinkazioa emanaz. Mezako gauzak, liburua, kaliza ta gaiñerakoak bere orro beltzean sartu nai zituen, ezin ordea, eskuak dar-dar egiten bai zioten. Baita ezpañak ere, guri irrimurtzi goxo bana zegigutela bidenabar. Berriz ere batzarre artako guziok Jesusamen batean begiztatu gindun. Eta gu mutu! Aren jokabidea onartu genuen ordea gu bakoitzak, gu bakoitzarendako ba litz bezelaxe.

Nik entzun nion aopetik esaten: «Pakea zuekin! Pakea zuekin!».

Gero, beste itzik gabe, atera egin zan.

Elurra mara-mara ari zuen ta amokelak gizona itzaltzen-itzaltzen zijoazen gero ta geiago. Azkenean erabat izkutatu zan besteak ez bezelako gure Pello.

INOZENZIO AYERBE

«ARTXUETA'ko UNAYA»

(G. CESBRON'dik artua)

Mariren azken eguna

Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zaga, zoga, bele, harma, tiro, pun, kili kili zaldakin...

Zer gertatzen hain berandu
leize zaharreko gizonak?
Zer gertatzen hain berandu
mendiko larrean?

Harri eta zur geratu naun haik agertu direnean. Ez zinaket espero ukan nik, horren laster etorriko ziratekeenik.

—Zer dela eta?, erran zidan amak.

—Alde egin beharko, zionatsat; ezin konta diezazuket.

—Hau ene seme hau, nora sartu haiz mutilori?

Badiatozan besteak.

—Eta nondik joanen naiz ni baina?

—Horren arriskugarri da ala?, errepikatzen zidan berriro ere.

—Baietz ba, baietz. Hara, arrapatzen banaute egurra astoarena eta gehiago joko zidatezu.

—Ai! Ene badatxoa, azkenean betiko legez amaren magalera etorri behar.

Badioan, orraztoki bat har eta galtzagorri batzuk ateratzen zitin.

—Begira, zioetan, gaur ilberria duk, eta gure familiar zurbil hauekin, baina lantsu, Eperlandara bidaliko haut. Han nire lagun min zenbait topatuko duk. Gauza bat kontutan hartu behar duk bakar bakarrik, Mari izanekoarengandik alde egiterakoan atzeraka ibiltzea; ez hadi hestu, ez larri. Bertokoekin ni konponduko nauk. Hauek lagunduko haute.

—Pan... pan... pan. Ireki zazute!

—Ea ba, galtzagorri horik, ene seme hau etxe guztien gaineratik eta hodeien orenen azpitik Eperlandara eroanen duzue. Nortzuk zarete zuek? Zer da hau gero, honelako orduetan jendea nazkatzen helduz? Aguro noakizue.

—Polizigizonak...

—Eta ni zuengana etorri naun.

—Ederto.

Urtzi jauna!... Urtzi jauna!... Urtz.....
Anbotoko amandrea da
leize zaharreko gizona
Anbotoko amandrea da
erratza gainean.

—Zuek amaren lagunak omen zarete.

—Bai horixe. Badakik nor naizen?

—Ez dun ideiarik ere ez.

—Ni Anbotoko Dama nauk.

—Mari haiz? Ene! (Ikararen beldurra, hau duk hau) («Ez hestu, ez larri»).

—Eta badakik nor naizen?

—Ez dun ere.

—Aketegiko Dama nauk ni berriz.

—Eta ni Muruko Dama.

—Kobako Mari ni.

—Marimunduko hemen.

—Jona gorri.

—(Amaren lagunak dituk, laguntza eskatuko zioet) Lagunduko nau-
zue?

—Zergatik?

—Amaren adiskideak zarete eta...

—Hire amaren errespetuz... bai, baina baldintza bat bete behar duk.

—Ea ba, zein?

—Gure zantxoei hiru biderrez erantzun beharko diek.

—Ondo, baniatorn horretan. (Hauek jan nahi bide nitek, hezur go-
gorra zehatuko ziate, bai!)

—(Hi... hi... hi, kaiku honek ez diakin bera janen dugunik).

Akelarreko baratzen, sorginak ezpatadantzen..., бага, biga, higa, la-
ga, boga... «Egunez zahar, gauez gazte»...

—Zertan lagundu behar haugu?

—Ene kide batzuk presondegitik aterako dituzue.

—Zergatik?

—Ez duzue zuek esaten «Anbotoko Damak zazpi seme lurrerako, bat
ere ez zerurako»?

—Hori oketa!

—Ez itaun beraz!

—Nondik baina?

—Sauribikoatik.

—Ondo. Hala egingen duk.

—Orain Donibaneko partera eraman nazazue!

—Mari, hik eroanen naun?

- Nik, ni nauk Mari.
- Ez dun, nik, ni naun.
- Nik.
- Denak ala inork ez.
- Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik Donibanerantz joan gaitezen.
- («Damen txangoak ekaitzak seguragoak» zioak jendeak, kontuz ibil gero; «ez hestu, ez larri»)
- Gure etxeak ezagutu gura dituk?
- Bai ba, pozarren ikus ere! Nora goaz?
- Gabaroko leizera.
- Hau da? Haitzaren ederra, ez da baina lar busti?
- Nire lepoaz barre egin nahi duk?
- Trankil egon.
- Gogoratzen haiz? Ene irrintziei ihardetsi bear diek.
- Iei...iei...iei...
- Iei...iei...iei...
- Kanpora goazemak. Har ezak ikatzarri horretatik zatitxo bat!
- Zertarako nahi dut nik hori?
- Har ezak!
- (Atzeraka ibili beharko) Eup! Urre gorria! Eskerrik asko.
- Eskerrak eman diezaizkiokek sartu haizen bezala atera haizenari.
- Patxadaz ibil. Ez naun horren laster arrapatuko.
- Aketegitik igaroko gaituk orain. Zegamatar asko jan ziat orain arte. Ene amaren kontrako mendekua hura lagun zuten herritarrek jasan beharko ziate.
- (Kontuz ibil gero, «ez hestu, ez larri»)
- (Donibanera, hire amaren errespetuz eraman beharko ez bahinduket, hi ere pozik jan)
- Iei...iei...iei...
- Iei...iei...iei...
- Horrelaxe.
- Bai jakina. Nik geure akordioaren zerak beteko zitinat. Zer da su handi hura?
- Zugarramurdiko akelarrea.
- Ondino badaude horrelakorik?
- Ez gara ala?

.....Akelarreko baratzen, sorginak ezpatadantzen... бага, biga, higa, laga...

—Zuek bezala egiten zinate haiek ere.

—Zer espero duk? Moden arauera ere izan daitezen?

—Begi, han diagon hire gizona, Maxue, beste hamaika neskatorekin.

—Neskato, bai zera. Puta horik! Emagaldtu halakoak. Ipurdia nik xurrukatuko dizuet.

—Ha... ha... ha...

—Zergatik barre egiten duk?

—Haizena haizen legez haizelako, Maxue bera lakoxea.

—Hire lagunak kanpoan diaudek. Laster amaituko ziagu.

—(«Ez hestu, ez larri»)

—Donibanera heltzeko gaituk... Bagiaudek.

—Ondo, eskerrik asko, agur.

—3. zantxoia falta duk baina!

—Bota ba!

—Ah!... Madarikatu hori! Jan beharko hindukedan.

Eta gorputzaren gerizpean 3 tiro sartu zioela lehengo urtean, Mari eta bere lagunak euskaldunak bakean utzi gintuen behin betiko.

Hala bazan, ez bazan
sar nadilla kalabazan.

Andolin Eguzkitza



BI ALDIZ IL?

(Rabindramath TAGORE'na)

— I —

Aren izena KADAMBINI. Alarguna. Saradasankar'tarra. Ranihat'eko *zemidar* (lurriabea). Alargun onek, aitaren aldetik aiderik bakarrik ez. Bata bestearen ondoren, guztiak il zitazkion. Aurrik izan ez eta bere senarraren aldetik iñori ezin esan:

—*Zu nerea zaitut!*

Kadambini'k maite zuen bakarra, bere ezkon-anai Saradasankar'en semea. Aurra izan ondoren, mutikoaren ama luzaro gaixo ibili, eta ua Kadambini'k azi zuen.

Emakumeak, besteren aurrarekin amatzakoak dagitzinean, besoetan darabilkinari izugarritzko maitasuna izaten dio; iñutzen duanarekin, maitasuna baizik, ezertxoren eskubiderik ez duelako. Onginaiak idatzizko agirik ez izan gizaurrean, izan nai ere ez, eta ies egingo diola dakian ua maitasarre itsuz maite izaten. Bi alako gar sutsuz. Orrela erruki garratz ua semetxo orrengan arek ustutzen.

Sraban gau batez, Kadambini bat-batean il egin zitzairen. Aren biotzak, —asma ezazu zergatik!!— taupakoak emateari betiko utzi egin zion. Ludiak, alderdi guztietan, bere betiko ioanean iarraitu zuan. Maitasunez makalik zebillen biotzean ezertarako geiago indarririk ez.

Ertzañek iakingo zuten beldurrez, zemindar'ko lau mutillek, illotza erre zezaten, ezertxoren ospakizunik gabe eraman egin zuten. Illotzak erretzeko zokoa erritik alenduxea zuten. Urruti. Toki artan, aintzira-ondoan etxola zâr eta pikondo aundi-aundia. Besterik ezertxo ere ez! Beifola, andik zear lats koxkorra zioan: orain, ordea, urik ez, eta latsa zana arru bihurturik zuten: norbaitzuek arru ortan delako aintzira ua atxurtu, illetetan oiturazkoak bete zitzairen. Aintzira ua askok uste zuten zatsaren zati'edo izan, eta guztiek aintzira orri alakoxe begirapena zioten.

Lau eramalle aiek illotza etxola zâr artan sartu zuten, eta bertantxe takatx-egin norbaitek errekiña ekarriko zuen ustean. Geiegi luzatzen zuten eta *Nitai* eta *Gurutxaran* aspertuta egurketariak zergatik ez zetozen ikustera ioan ziran. *Bidhu* eta *Banamali* illotza zaitzen geldittu.

Sraban'en, gaua bai illun eta beltz! Izar bakarrik gabe, goiko sapaï aunditik zintzillik aiek bai lañotzarrak!! Arako bi zaitzalle aiek, illunean exerita, isilik zeuden! Kirisellua za-zuten eta arrastariak ere bai. Alperrik! Bustiaren eze bustiz arrastariak ezin piztu eta kirisellua ere itzali zitzaïen. Orduan aietako batek:

—*Anai! Ke-belarra artzea âztu egin zaiguk! Billa ioango ote-gaituk?*

—*Uxturik bizkorrenean neroni ioango nauk. Nai deken guztia neuk ekarriko!*

—*Ori dek! Bitartean, ni emen bakar-bakarrik!!*

(Alegia, *Banamali* ioaten ba'zan *Bidhu* iratxoen beldurrez dar-dar egongo zala...)

Biak berriro isil! Unerik ttikiena eunki aundia zeritzaïen. Lën bizi ioan ziran bi aientzat, auek beren biotzean, iñongo bezkeriak biribiltzen, eta antxe egongo zirala txokoren batean berriketan. Gau illun artan, igelen karra-karra eta aintzirako kirkirren erausia nagusi! Ontan, illotzaren zerraldoak iauzitxo zegiala iruditu zitzaïen, eta *Bidhu* eta *Banamali* txutxuputxuka eta ikaraz. Berealaxe norbaiten intziritxo entzun zuten, eta gure bi mutillak angoak azkar egin zituzten.

Bi auek ikaraz eta beldurrez aldenduxe ziralarik, beste bi aiek aurkittu zituzten, lastargia eskuetan. Egurzun'edo ioandako bi aiek pipatzea besterik ez zuten egin, eta zerbaitetarako egurra bear zutenik ere ez aiei gogoratu. Ala ere auxe aitortu zuten: aldamenean norbaitzuek zuaizta erauzi zutela, eta ua txikittu orduko nai aña egur antxe zuketela. *Bidhu* eta *Banamali*'k gertatu zitzaïetenez ziardutela, besteak bieï parrez eta isekaz eragin zieten.

Gure lau mutillak arin-arin etxola zâr artara itzuli ziran. Atetik so-egiñez, an barnean ezer ez zegoela garbi zekusaten. Zerraldoa bakarrik eta iñor gaþe utsik. Lau mutillek elkarri begira geldittu ziran. Zerraldokoa basatxakurren batek eraman ote-zien? Arritzekoa!... ta, delako emakumearen soñekorik ez! Atarian, alabañan, alakoxe emakume-oin urratsak lokatzean berri-berri. Saradasankar iauna iratxoetan siñeste-zuna ez zala, eta ari olako txorakeriak alperrik esango zizkioleta uste izanez, laurak auxe erabaki zuten:

—*Onea besterik ez diagu! Erre degula esango ziogu.*

Biaramunean egurketariek, beren zama ekarriz agertu ziranean, besteak auri esan, luze-iritzirik emakumetxoa erre egin zutela: erre ere, errekiña antxe etxolaren aldamenean aurkittu zutelarik. Illotz-ebasleak gutxi izaten ziranez, aiek erre zutelakoa berealaxe sinistu zuten.

Azaletik igerri ez arren, sarri, giza-barnean biziak luze irauten. Ori ez dakianik ez degu. Eta ustez il zitzaiguna, berriro bizitzara itzuli diteke. Beraz, Kadambini ez zan il.

Bakar-bakarrrik bere biotzak oiko taupik ez ematen. Ori zergatik izaten dan nork daki?

Esnatu zanean eta berriro erara arnasa artzen asi, guztia illun eta beltz iruditu zitzaion. Betiko txokoan etzanda ez zegonik ezin sinistu zizuan. Arek deitzen:

—*Aizpatxo!*

Bañan, illunpe artan ifork ez erantzuten.

Zutitu-agondu zanean, orduantxe gogoratu zitzaion bularrean izan zuan min zorrotza. Alakoxe itto estua! Bere ezkon-aizpa zârrena aurarentzat esnea berotzen ari zan. Ontan, indar guztiak ioan zitzaizkion. Nora, ordea? Eta intziriz esan zuan:

—*Aizpatxo! Auxe da lana! Zer dedan ez dakit. Aurra ekatzu!*

Bertantxe, guzti oro illun eta beltz biurtu zitzaion. Alaxe, ikasleari axote beltza orri zurian zabaltzen zaionean. Gogamena, oroimena, ludi guztiko izakiak unetxoan illaundu zitzaizkion. Iñola ezin zuan gogoratu aurak, ain mateki, deitu zionik:

—*Izebatxo!!* —azkenekoz, noski! Bañan, ez zitzaion gogoratzen. Ain bereak zituan aiek utzi eta ez dakigun eriotzaren itzalera zioanean, ifork agur esan ote-zion? Alegia: maitasareak ain benetan eman oi duan azkeneko eskupeko beldurtia!! Lênbizi artan, txoko bakarti ua Yama'ren Etxea ote-zan iruditu zitzaion: an ezer ez ikusten. Txintik ez entzuten. Ezertan aritzerik ez. Eta guztia oro amaigabeko erne-bizitza. Ala ere, ate zabaletik zetorren otzak kilima egin zionean, eta igelen karrakak oartzean, garbi-garbi igerri, lipar-unetxoan gero!, bere soñean euriak egindako bustitze otzaren zirrarari, eta lurra eta buztiañia aide zituala nabaitu. Ontan, iuzturi-tximistaren argia!!... aintziragarbi-garbi agertu zitzaion, pikondo aundia, zelai-aran zabal-zabala eta urrutiko basoa. Bai ta, beñola aieka aietara bustialdia artzeko asmoz etorri zanekoa irudimenero argi-argi zetorkion. Orobat, orduantxe iltzea ikaragarri zitekela susmo egin zuanekoa... ain zuzen, antxe illotzak kiskaltzeko labe artan ildako baten soin-otza zegoan-da.

Lênbizi gogoratu zitzaiona bere etxera itzultzea... bañan, ioan al zitekean? Illa bere etxera itzuli? Beretar guztientzat arriabar eta elkaitzik beldurgarriena zitekean. Bere buruarekiko zion:

—*Nik eguzkipe ontakoak egin ditut, eta orain nere buruaren iratxo besterik ez naiz! Ezperen «zenana» izeneko emakumetegi artatik irten-*

go al nintzan? Ain estuki zaintzen diguten Saradasankar deitu txoko artatik nor irten? Eta erretegi ontara zer zioz agertu? Gauerdi-gauerdian, ain zuzen!! Are!: neri illetak egiterakoan bete bear ziranak amaitu ez ba'zituaten, erre bearreko ziran gizon aiek non ditugu?

Saradasankor'ko etxe alaiaz oroitzen zan, eta il zaneko unea ere ezin áztu zuan, eta orain illen egoitza artan bere burua ain bakarrik zekusan! Urrin! Illunpean! Legartzan! Ez!: ifõndik ere —*ni ez naiz bizi*en *sallekoa*— zirudion. Txorimaloen kideko, zoritxar-ekarle, bere buruaren zomorro gaizto!!

Buru-auste orietan nâsturik zebillela, lurgañekoaz zituan lokarri guztiak eten zitzazkion. Izugarrizko indarrak zetozkiola iruditu zitzai-on. Edozertarako aske. Nai zuan guztia egin zezakeala. Irudimen artaz beingoan ero, aize zurrunbillo litzan estalpe txar artatik irten zan, eta erretegian geldittu zan. Ez ikara, ez beldurraren izpirik.

Bañan, ioan eta ioan, ibili eta ibili, belaunak aultzen asi zitzazkion, soin guztia astunago biurtu. Eta, ugolo-soro-ereintzetan belauentaraño urean sartzen zan.

Eguzkiaren urrutiko lén-izpien argira, seskadietan txorien goiz-goizeko txorro-txio emeak entzun zituan. Ezin, ala ere, entzun, etxe ondotik zetozen txio zorrotzak. Oraingoan bai, ikaratu zan: txito ikaratu ere. Orain ludian biziekin zer artu-eman izan zezakean? Ezin asmatu! Zelai zabal artan zebillen artean, illen egoitza zabalean, alegia, Sraban'go gau illuna soñeko zuala, ezerk ez zuan beldurtzen ez ikaratzten. Aske zalako. Bere-bere zuan aginterrian zebillelako. Orain, ordea, egunez, gizonak bizi ziran etxeek beldurtu egiten zuten. Izan ere, gizonak eta iratxoak elkarren beldur! Beroien enda eta saillak, balbe-ibaiko alde banatan dabilta-ibili.

— III —

Soñekoak buztifñez narruan erantsi zitzazkion. Gau-ibilli aiek eta izan zituen irudikeriek, eroaren antza zemaioten.

Egiz, ala ere!

Ua ikustean atzeraka abiatu ez zanik bai-ote? Umeek, ikusi utsez arrika asiko zitzazkion. Bai ta: ikaraz ies egin ere. Bañan, bere onerako, lénbizi ikusi zuena bidazti zan, eta aurreraturik esan zion:

—*Ama! Noski, zu emakume zintzo! Orrela, nora zoaz?*

Kadambini, bere buruak zemazkionak ezin bildurik, bidaztiari so eta so galdittu zan. Isilik oso! Gizartekoa zanik ezin baieztu bere buruari, ez eta ezin sinistu emakume zintzo zanik, are gutxiago inork ezer galde zazaiokenik.

Bidaztiak, berriro:

—*Ama! Atoz nerekin! Zure etxera neronek eramango zaitut. Non bizi zera?*

Kadambini beti bere barrukoak iraultzen. Bere suiaren etxera agerztea burugabekeririk aundiena zitekean, eta gurasoen etxerik ez zuen. Bat-batean bere gaztetako adiskide Jogmaya'z gogoratu zan. Neskata-tik bein ere ez zuan ikusi, bañan elkarri idazteari ez zioten utzi. Iakña! Alakoxe aserretxoak ere izaten zituzten. Izan ere Kadambini'k aurrelaritza'edo nai Jogmaya'ri zion ongina ta maitasuna mugagabea zala adirazten. Bitartean, adiskideak bere zer-esanak izan: Kadambini'k ez ziola bear zanez erantzuten. Biak auxe sinisturik zenituan: elkar-ikusten ba'zuten, ez zituala ifiork bata besteagandik uxatuko.

Beraz, il gabe bizi zanak au erantzun:

—*Nisindapur'en bizi dan Sripati'ren etxera ioan nai nuke.*

Delako bidazia Calkutta'ra zioan, eta apurtxo urrindu bear-ta ere Nisindapur ez ain bide-galtze nabarmenez gertatzen. Eta, Kadambini Sripati'ren etxera eraman zuan. Adiskide biak elkar ikus al izan zuten. Bat-batean ezin ba elkarri antzik eman... eta gutxika eta apurka ume ziraneko aurpegia berriro ezagutzen asi ziran. Jogmaya'k:

—*Auxe ustegabeko berri alaia! Bein ere elkar-ikusterik ez genuela izango iruditzen zitzaidan. Bañan: aizpatxo! Au zer da? Suiaren etxe-koek zuri onera etortzen utzi?*

Kadambini'ri katuak mingaña ian zion: (guk euskaldunok umetan esaten genduan bezela). Gaxoari itzik ez zitzaion ialkitzen. Geroxeago:

—*Aizpatxo! Arren! Nere sua ez aipa neri! Ire etxeko txokorik kaxkarrena emaidan, eta ire neskametzat ar nazan, ire lanak pozik egingo dizkiñat.*

—*Zer dion?... I, nere adiskide mami... eta nere neskame ik izan nai denala? Bañan! Bañan...*

—*Eta, orrelaxe atertu gabe.*

Eta Sripati, etxean orduantxe sartu zan. Kadambini, adi-adi, gizon-ari so lotu zan, eta andik berealaxe irten. Kadambini'k bere burua ez zuan estali, eta begirune ttikienik ere ez zuen erakutsi. Jogmaya beldur zan, bere adiskidea Sripati'ri gogaikarri zitzaiokealako, eta bere adiskidearen gaitasunak esaten asi zan, ezin asmatuzko itzez'edo. Sripati'k Jogmaya'ren erausiak geienetan ontzat artzen zituan. Oraingoan, ordea, ez zuan ezer entzun nai, eta emazteari berriketa bertantxe moztu zion. Esatari zintzoa zer iardetsi ez zekiala geldittu zan.

Kadambini'k ifion esertzen ezin asmatu, eta bere adiskidearekin bat etortzea ezin iritxi. Eriotzak biak bereizten. Bere izatea enuxu-banuxu-

koa zitzaion bitartean Kadambini'k eguzkipeko iñorekin artu-eman iatorrik ezin izan zezakean. Jogmaya'ri so eta so, adiskidearekiko alakoze bururakizunak sortzen zitzazkion, bere barrurako ziolarik:

—*Jogmaya nere adiskideak senar ba-du, eta etxean lan ederrrik ere bai, eta nere gizartea eta orrena ain dira bestelakoak! Jogmaya'k maitasun-girorik ederrena dizu, eta gizarteko guztiekin artu-eman es-tuak Ni, berriz, itzal errukarria!! Ene adiskidea lur ontakoa! Ni aldia-ren beste aldekoa!!*

Jogmaya txito kezkatu zebillen, zer asma ez zekian. Emakumeak ez-kutukirik ez maite: bai, ez dakiguna eder eta olerkitsu biurtu liteke, arek lan arrigarrietara ere eraman gaitzake eta iakitun'edo ere gin gu... Ala ere, eguneroko zer-egihetan ezkutukiak utzi! Utzi!! Orrela, emakumeak zerbait ulertu ezin dunean, edo ua zertarako dan ezin asmatu dunean, delako zera bertantxe txirtxillatzen dizu. Surtan erre. Amorrus puskatu. Era bat áztu. Bai ta: bere-beretzako artu. Eta, olakorik ezer ezin egin dezakenean arentzat iguinik satsuen izaten.

Kadambini bazterragotzen zitzaiolarik, Jogmaya suminduago adis-kide errukarriaren buruan zertzu zebiltzan ezin igarririk.

Besterik ere gertatzen zitzaion: Kadambini bere buruarekin ikara-tzen zan, eta iñora ies-egiteko indarrik gabe arkitzen. Iratxo beldur direnek, aien atzean legokenaren ikara geiago izaten. Orobat, iñon ezer garbi agiri ez danean. Bañan, Kadambini'ren izurik latzena, ber-berak barruan zeramana. Gauerdian, bere egoitzan bakarrik karraxika asten zan. Esnai zegoanean, argiak itzala luzatzen zionean, izate guztia dardarka zuan... Orrela, Kadambini gaixoa beldurrez eta etxe artako guztiak ere beldurrez. Jogmaya eta aren etxe morroiek ere non-nai iratxo ikusten.

Gau batez, Kadambini bere egoitzatik negarrez irten zan, eta Jog-maya'ren atean intzirika asi zan:

—*Aizpatxo! Aizpatxo!! Zure oñetan etzan nadin utzi zaidazu! Lotara bakarrik ez ni bial!*

Jogmaya berotu egin zan, sutu eta asarretu. Bere onetik irten. Bai ikaratu ere. Bere adiskide purtzilla bertantxe pozik bialiko zuan... Sripati kankalluak, ordea, nolabait ere Kadambini isillazi zuan eta aldameneko egoitzan sartu.

Biaramunean, Sripati, ain ustegabea, gañera!!, bere emaztearen egoitzara deitu zuten. Jogmaya'k, oso gogor, antxe eraso zion:

—*Eta, i gizon al aut? Emen diagu bere etxetik ieska etorri zaigun emakume ori. Etxean sartu ba'zitzazigun sartu, illabete osoan gurekin diagu, eta iri burura ez etortzen emendik itzuli dedin esaterik. Orren-tzako biraorik ez diat entzun... Guzti-guztia zergatik dan oraintze*

bertan esan bear didak! Ire burua zintzo zuritu!! Gizon guztiek olakoxeak zerate, bata bestearen antzeko!!

Gizonezko eta senar geienek beren emazteei onginaie geiegirik ez izaten, beintzat maitasarre zintzorik bear bezela ez adirazten, eta orretxegatik ere zer-esanak maiz sortzen. Sripati'k, bere emaztearen soñña ikuitzeko ez beldurrik ez esparik ere ez zuala, beste alde ontara ere zin-egingo zukean, batetxo gezurrik gabe, Kadambini ederrarentzat zegiana ez zala ain egoki eta ez txito zuzen ere, ezik azalera bere biotza ezin agertu. Sripati'ri iduritzen bere etxekoek Kadambini gaxoa gogor artu zutela, eta alargun errukarriak zer egin zezakean adiskidearen itzalera babes-zun urbildu besterik? Ezin iasanezko zama, izan ere, Kadambini'rena. Gaxoak gurasorik ez, eta Sripati'k ateak itxiko al zizkion? Emazteari olakoak esan ondoren, auzia bertan bera utzi nai zuan. Gizon errukiorrak galde mingarriak egifnez Kadambini ez asper-erazi nai.

Ondoren, Jogmaya'k senar gibelaundiari beste ertzetik ekin zion, eta gizarajoak arazoa Kadambini'ren aitagarrebari agertzea erabaki zuan. Eskutitzez azaltzeak indar aundigirik ez zuala izango eta ber-bera Ranihat'eruntz abiatu zan. Zer gertatzen zan an ikusiko.

Eta Jogmaya'ren senar Sripati ioan zan.

Ondoren, Jogmaya'k Kadambini'ri esan:

—Nere Maite eder! Emen orrela ezin zindezke bizi. Auzokoek zer esango digute?

Kadambini'k benaz eta so zorrotzez adiskideari erantzun:

—Auzokoekin nik zer ikusi diñat?

Jogmaya arri eta zur-egifnik gelditu zan. Eta, bere arrimenetik ezia irtenik piperra baño miñago:

—Auzokoekin zer-ikusirik ez ba'den, guk bai ba-diñagu!! Besteren emakumea gerongan ain luzaro iagotea guk ezin zuritu diñagu.

Kadambini'k:

—Nere aitagarrebaren etxea non diñat nik?

Jogmaya'k berekiko:

—Purtzilla! Alakoa!! Onek esango ditunak...

Kadambini izketan asi zan. Beretzako bakarrik'edo:

«Zueri eta neri zer? Lur ontakoa ote-naun? Zuek algaraz zabiltzate. Negarrez ere bai. Bakoitzak zeronari eltzen diozute. Iñondik ez diozute utzi nai izaten. Nik olakoak, soil-soillik ikusi egiten dizkiñat. Zuek lurtarrak zerate... Ni itzal utsa! Iñondik nik ez ulertzen zergatik Jainkoak lur ontan naukan».

Aren iarduna bai tximen eta arrigarri. Jogmaya'k zerbait ulertu'edo zuan. Bañan, oso gutxi. Erdia ere ez! Eta, etxetik ezin bializ zezakela iruditu zitzaion. Are galdetzen ere alperrik zala. Eta, bere burutakizunak ezin uxatuz andik alde-egin zuan.

Sripati itzuli eta bere etxean sartu zanean, gaueko amarrak ziran. Ranihat lurraldetik zetorren. Goien-beean euria. Atertzeko asmorik ez! Uaxe bai euri egin bearra! Gaua ere bukatzen ez zana'edo. Jogmaya'k galdetu:

—*Zer berri?*

—*Bai! Oraintxe guztia esango dizut. Iakitekorik aski entzungo didazu!*

Ta Sripati soñekoak aldatu-ta maiean eseri zan. Bereala pipa piztu eta kea zeriola, zalantza utsean itzik ez zitzaion españetatik ialkitzen. Emazteak, ezpañak bilduz senarrari so eta so... bañan, ezin etsi eta zizallura urbildurik galdetu:

—*Zer esan dizute?*

—*Tuntun aundia zerala eta ezer ez dakizula.*

Oraingoan bai Jogmaya mindu!!

Tuntuna zala? Agian, bera ez beste emakume guztiak. Eta, egia izan-da ere, gizonak bere emazteari olakorik ez dio esango! Izatekotan ere, senarrak bere buruari deituko mokolo! Ta Jogmaya'k:

—*Garbiago itz-egin ezaidazu!*

—*Etxean degun emakume ori ez dala Kadambini.*

Eta, bat-batean Jogmaya bere onetik atera:

—*Beraz, nere adiskidea nor dan, nik iakin ez! Zuri galdetzea nai al dezu? Zuek gizonok bai zeratela izatekoak!!*

—*Gizonok zer geran ebazten ezin asiko naiz. Bañan Kadambini il danekoa, batere gezurrik gabe egiztatu nezake.*

—*Non ibili ote-zera? Beste norbaiten etxera ioan zazkit galdezka... Ala, entzun dituzunak, zuk oker ulertu!! Zergatik biali ote-zindudan? Obe izango dezu guztia idatzi, eta eztabaidak alde batera utziko dituzu.*

Oraingoan Sripati benetan sumindu:

—*Nere atsoak zer uste ote-du? Ain motela naizela? Ezer egiten ez dakidala?*

Eta ikusi zitunak eta entzundakoak banaka-banaka emazteari an esan zizkion. Alperrik! Gauerdia eldu zan eta senar-emazteen iskanbilla ez atertzen!! Ari eta ari Kadambini etxetik bialtzea erabaki zuten. Sripati'k uste, emakume etorkin ua bere emazteari gezurretan ibili zitzaiola, eta Jogmaya emagaldu txatxua zala... bañan biek ere berenari eusten: senarrak eta emazteak. Txilioka ari ziran, eta Kadambini antxe aldamenean lotan zetzala aiek ez gogoratzen. Sripati'k:

—*Ez zaitte ain buru gogorra izan! Guzti-guztia nere belarriek entzun!!*

Eta emazteak aserre eta zalapartaka:

*Eta, neri zer? Neronek nere begiak ez al ditut?... Bañan, esaidazu!
Noiz il zan?*

Eta, ementxe, Jogmaya'k senarrari gezurretan zebillela adirazi nai. Izan ere Jogmaya'k Kadambini'ren eskutizetatik egia atera zezakean.

Sripati'k Kadambini il zaneko eguna esan zion. Ain zuzen, delako arrotz-etorkiña etxera agertu zitzaien eguna aurrekoa. Jogmaya'ri biotzeko miña egin zitzaion eta Sripati ere apurtxo ikaratu zan.

Ontan, bat-batean atea zabaldu zan eta alakoxe busti-ezeak argia itzali zien. Aizearen burrundan itzala ere sartu zan eta etxe guztia bete. Eta, Kadambini antxe. Gaberdiko ordubata'edo zan. Atarian euria bein ere baño areago. Kadambini'k aitortu:

—Maite! Nerau naun! Bañan, ni bizizik ez, il-da baizik.

Jogmaya'k izugarritzko Ai! ots-egin eta Sripati itzik bage... Kadambini'k:

—Bai! Ni ildakoa naun! Bañan, iñori ez zionak zuzen ez danik egin. Biziek ez natxione nai. Illak ere ez. Nere errukarria! Nora natxiaken? Ai! Ai! Ai! Nora natxiaken

Eta bere negar-otsez Irazalea esnatu nai'edo zuan. Bai! Euri-eraso beltzean, gauean lo'edo zegoen Irazale Altsua esnatu!

Bertantxe, Kadambini zelaira irten zan. Jogmaya illunpean antxe bere etxean... eta illaren itzala alderrai leku eroso aurkittu naian.

— V —

Kadambini Ranihat'a eldu zanekoa, ezin ba iakin! Irira iritxi-berri artan iñorengana ez zan aurkeztu, eta egun osoa iainkotegi zâr zâr-pallean eman zuan: goseak zutik ezin egon.

Arratsalde euritsu ua, garaia baño len, ui beltzena baño beltzagotu zitzaien. Erriko biztanle guztiek bakoitza beren etxeetan elkarren ondoan estu-estu bildu ziranean... alegia, eraso gogorraren aiduru, Kadambini bere txokotik irte zan. Aitagiarrabaren etxera urbiltzean, biotzak iauzi egiten zion: *tunpa-tunpa!!* Bere aurpegia oial lodiz estali eta etxean sartu zan. Ate-zañek neskameren bat zalakoa sartzen utzi egin zioten. Euria, herriz? Ua euriaren-euria!! Suilka ari!! Eta azeri eta otsoek baño saunka beldurgarrigoz: aize-otsa!!

Saradasankar'en emaztea, bere aizpa alarguna lagun musean ari. Sukaldean neskameetako bat. Lo-etzauntzan, makalik, aurra lo. Iñork ikusi ez zezan, isilka, Kadambini umetxoaren tokira sartu zan: gaxoak, ber-berak ere ez zekian aitagiarrabaren etxera zertara etorri zan. Gero zetorkenari iaramon egiteke, bere barruan alakoxe dei kilimakaria nabaitzen, aurtxoa ikusi zezan.

Etzalekua argi, eta umetxoa antxe zekusan, eskuak bilduta lo, sukarrez sointxoa mêmê eta segail. So-egin zion, eta bere biotza legortxiortu zitzaion eta egarri nabaitzen bere barne guztia. Maite egarria:

—*Miñez zaudentxo ori, nere bularrean estu al ba'zindut! Ni ez naiz! Iñortzok ez ninduke ikusiko! Oraingo ama orrek auzokoak bakarrik gogoan! Berriketak. Mus-aldiak. Neroni aurrarekin nintzanean, iokalari orrek, kezkek gabe, umearen axolik ttikienik ez. Nik zaintzen nuanez, orain nork zainduko?*

Aurra zutitu zan, eta erdi-lo eska asi:

—*Izeba! Ur pixka bat nai nuke!*

—*Nere seme! Zuk izebatxo ez áztu!*

Eta Kadambini urduri eta beldurti ur-eske ioan zan, eta aurrari besoetan, bere bularrean estutuz edaten zemaion.

Èsku aietatik edaten oitua zalarik, aurrak lo zegoala ezer berririk ez nabaitu. Kadambini, ain luzaro nai izan zuanez muxu eta pâka asi zitzaionean, amak ez nai umea alperrik esna zedin... eta, ua esnatu eta begiak zabalik eta amatxo besarkatzen asi zanean:

—*Izebatxo! Il al zîñan, ba?*

—*Bai, Eder laztana!*

—*Eta, orain etodri zera! Benetan! Ez gero, berriro il!!*

Kadambini'k itzik erantzuteko tarterik ezin artu... Eta, etortzekoa etorri zan... Ain zuzen, neskametako bat sartu zan eskuan salda-ontzi, eskuetatik ontziak ies egin zion, eta neskamea bera zerraldo erori. Danbatekoaren otsera, ama, bere musketa utziz aurraren etzangura sartzean, zurrunez arri biurto zan: ez itzik, ez ies egiteko almenik. Oriek oro ikusiz, umetxoak ere izugarritzko ikara, eta begietan mañkoak eta karraxika. Negarrez urtu bear zuela zirudian. Eta:

—*Izebatxo! Zoaz! Itzuli zaite!*

Lênaz gañera, orduantxe Kadambini'k bizirik zegoela igarri. Etzauntza, lêngoa. Ango zertxo guztiak, lèn bezelakoak. Umea, lèn-lêngoxea. Maitasun-onginaia bero-beroa. An ez zan aldeketarik izan. Kadambini batetxo aldatu gabea. Guztia oro beifolakoxea.

Jogmaya'ren etxean bai, lèn zuen adiskideak ikusi zezakean, an illa zegoela. Aurtxoaren etzauntzan argi ikusi zuan izebatxo ez zegoela illa. Bai zera!! Ta negarrez iardetsi zion:

—*Aizpatxo! Nireganako beldur oriek zergatik? Lèn-lêngoxea naizela ez al dakusazu?*

Bere ezkon-aizpak geiagoko indarrik ez! Ua, antxe eziñez erori! Saradasankar ere antxe agertu zan eta eskuak otoitzerako bezela bilduaz, begiak malkoz, esan:

—*Auek guztiak zergatik? Satis beste aurrik ez det. Zergatik agertu*

zazkio? Guztiok ez al gear aide? Ioan ziñanetik, sukarrak umea egunetik-egunera geiago beartzen du: ian egin bear duala dirudi. Unero deika dezu: «Izebatxo»... Ludikoak utzi dituzu. Illetak egingo dizkitzugu eta gurekikoak egin itzatzu!... Eten!!

Kadambini'rentzat, ainbesteko biotzondoko eta eramankizunak geiegi izan! Karraxika zion:

—Ez! Ez! Ez naiz il! Ez naiz il! Il ez naizela ikusi dezazuten zer egin dezaket? Bizi naiz! Egitan! Bizi naiz!

Lurretik tupiki oria artu eta arekin bere bekokia zarta-zarta io eta odola zerion:

—Ikusten? Oraindik ere nik odola gorri-gorri!

Saradasankar abea baño zutikago eta igitzen ez zala, antxe. Umea karraxika. Ikaraz. Emakume biak lurretik iaikitzeke almenik gabe.

Eta, Kadambini'k berriro oiou:

—Ezetz! Ez naizela il!


Bêko osin-aora ioan zan eta bere burua antxe bota zuan. Goitik Saradasankar'ek urean dunbakoak atera-otsa entzun zuan.

Euri-eraso zitala batetxo ez baretzen. Gau osoan eta eguarterean ere ari eta ari. Urrengo eguerdian alertu.

Kadambini'k, egin zuana egiñez, artean bizien artekoa zala adirazi.

Euskeraz:

ETXEBERRIA'tar P., sj



AUNITZ

Lurraldeko nagusia, mugazabaletako baso eta txarak ikusi bearrez, oso astiro zebillen. Iñork ez zion igarriko eskuduna zanik. Sofiekoak txito maixak eta errikoek bezela. Ala ere, txiroa ez zanekoa igerri zezaiokean. Artean oiala zoztu gabe eta berri-antzekoa. Ontan *Aunitz* ere atxurra bizkañrean antxe aruntza eta onuntza. Ta:

—*Aunitz!* Egun on! Bai eguraldi ederra!

—Bai! Bai! Onako lur-puxka au besterik ez det, Emendik urte osorakoa aterako dedanik ez iakin. Lan ttikia dala uste al dezu? Larogei erregu ortxe-ortxe.

—Larogei erregu oietaz zer egin asmo dezu?

—Ogei erregu txartelentzat.

—Zer txartel, gero?

—Txartelak guztioi etortzen zaizkigu. Zintzo-zintzo etorri ere, eta aiek eskatzen dutena okerrik gabe ordaindu bear! Isilleko iturririk ez degunontzat izugarrizko buruaustek! Ondoren, beste ogei erregu, zorra kittatzeko. Urrengo ogeiak irabazirako. Azkeneko ogeiak ez ba-nittu bezela.

—Ipuia zer dan esango ba'zenit! Azkeneko ogei erreguak ez ba'zenitu bezela eta uzta ez ain iori... Estu ibil bearrean izango zaitut, arean.

—Galdelari politta zu! Agian ez zera asarretuko... eta, *txartelena* ongi dakizu. Iaurlaritza tarteko danean, guztiok ere beldurra obeto izaten degu. Eta *txartel* oriek kari, itzalera daramaztenak ere ikusten ditugu. Ondoren, *zorra* kittatzeko ditudanaz, aita oraindik bizi zaidala adirazi nai dizut. *Irabazitarako* ditudan oriek, semeari etorkizun ona eratzeko ditut...

—Eta beste *ogeiak*? Ez ba-zenitu bezela ibaira purran botatzen al dituzu?

—Alatsu! Etxean alaba tuntuna duenak, besterik zer egin dezake?

—Guztia ori al dezu?

—Orixe! Gure nexkak lèn ez dakit zer izango ziran... Bañan, orain, oriek bai aizea buruan eta... *ibili munduan*.

—Ongi da! Ongi da! Izketan ari zaizuna nor naizen bai al dakizu? Iaurerriko Nagusilena nauzu.

Aunitz ez geiegi estutu. Eta, txapela eskuan Nagusilenari be-agurrez menpetasuna adirazi zion, Nagusilenak, irriparez eta egiaz zebilkiola erakustearren, zillarkiz betea zizkutxo iaurti zion.

—*Ori zuretzat!* Bañan, zure uzta-zitua zer-nola eralgitzen dezun ez iñori esan! Ipuiz adirazi didazuna, bai lilluragarri eta polita! Neronek ere ori bera, garai egokian besteai esan nai nieke. Beraz, isilik! Nere aurrean ezik ortaz iñon ez itzegin.

—O—O—O—

Nagusilena ioan zan, eta *Aunitz* zutik gelditu zitzaigun zer asma ez zekiala. Andik laister, iri nagusian batzarra zan: aundizkiak, etxean-dere aundi eta iaun ospatsu, gudugintzako eskudunez, zirtolariek orritzean txito alai, ardoaren beroz itza bor-borrean eta abestiak durunditsu. Iñor baño geiago izatearren Nagusilenak *Aunitz*'i entzundakoa ialki zien:

—*Ortze egurastaldiz nenbillela baserritar burutsua nik upa. Uztak zer zemaioken galdetu niolarik, arek erantzun:* «—Larogei erregu geie-nez ere. Eta, ogei txartelentzako»; ogei zorra kittatzeko, ogei irabazirako... eta azkeneko ogeiak aldameneko «latsak eraman dezazkion». *Arek esan nai zidana neri nork asmatuko? Amabost egun damazkizuet. Erantzun iatorra dakarkidakenak saria izango eta gutzineko bere lanean nik ua malla batez iasoko.*

Nagusilenaren menpeko oriei orra izerdikizun ederra sortu! Ekin zioten... bañan, bai zera! Ontan, aietako bati zalako baserritarrarengana ioan bear zuela gogoratu eta ari galedu: ...bañan, eskutsik ioango al zitzaion? Zizkutxoia bete-bete *Aunitz*'i eman zion eta, arren!, ipiuiaren azalpena *Aunitz*'ek ari ber-esan zion. Ondoren, Nagusilenari itzez-itzez erausi zionean, Nagusilenak berealaxe igarri. *Aunitz*'ek itza ian ziola.

Aunitz'ek iri nagusira ioan bearra izan zuen. Ala ere, ez zitzaion iruditzen ezertan errudun zanik eta ezertaz ikaratzen ez zala, Nagusilenaren aurrean nare agertu zan:

—*Itzalerakó ogena egin didazu itsa!*

—*Iauna! Nik?*

—*Nere esana ez didazu aintzakotzat artu.*

—*Alderantzira ulertu ez ba'nizuan, zure aurrean ezik, iñon ez esateko agindu zenidan, eta ni zure aurrean mintzo izan naiz.*

—*Noiz izan zera irian, nere aurrean ari zaitezen?*

—*Zerorrek luza zenizkidan txanpon aiek eskuan nituan eta aiei so negiela nik nere zertxoak esan...*

—*Egia dek! Txanponetako irudia nerea...*

Eta *Aunitz*'i beste bein ziskua bete-bete ziolarik, nagusilenak bere aldamenekoei iardetsi:

—*Baserritar gutxi-ikasi onen burua bear genduke, geron arteko arazoetan erorikorik gabe ibili gaitezen.*

ETXEBERRIA'TAR P. sj

BETI IKASLE

- Auxe itz zalla!
—Zer itz?
—*Etoi*. Noiz esan? Non erabili? Ezin asmatu eta burua nâstu. Olako lanik!
—Entzun! Gure alderdiko laguna eta len gurekin ibiltzen zan adis-kidea, beste norbaitzuen tartera aldatzen danean, olako txoriburuari *etoi* esaten.
—Zergatik?
—Saldu gaitulako! Len ontzat artu zizunari oker iduritu izan zaio-ta.
—Ta beste aldera gertatzen danean?
—Zer beste alde? Zer esan nai didazu?
—Etsaien aiekatik gure aldera norbait etorriko ba'litzaigu? Ua zer?
—Olakoa *itzulia* litzake.
—Ez beti. Nik *anai-motz* ere entzun izan det.
—Izen ori, ogenetik onbidera biurtu danarentzat egoki.
—Ogena zer degu?
—Lur-zabalean edatuegia degun gaitza.
—Eraskorra ote?
—Izugarri! Ona: barruak debekatzen duena egitea.
—Zaude isilik!
—Zer ba?
—Olakoetan norbait *zintzotu* egin dala esatea askoz obe!
—Geron alderako zioak aurkitzen makurrak gu.
—Askotxo diozu.
—Euskera ongi dakianik bai al degu?
—Ni ta zu ez beintzat.
—Beste izkuntzatan olakorik gertatzen ote?
—Asko ikusia zaitut, agian.
—Diodana egia dala sinis dezazun urrutira ioan bearrik ez degu.
—Auzoan sukaldea ornituago eta maia aberatsako, ioriago.
—Ori nork erakutsi dizu?
—Lenagokoen esana degu: *Urrutiko kanpaiak otsa fiñe*, bezelaxe.

- Baserritarren siniskeriak.
- Arrantzaleak ere beren esaera zârrak ba-dituzte.
- Nork ikasi?
- Egunero euskeraz ari ba'gîña, esakun iator asko entzungo genituzke.
- Orain itz zârrak bakoitzak bere aldera darabizki.
- Itz berriak ere alatsu. Nork berak beretzat asmatzen.
- Ondoren bazter guztietan aserrekizuna.
- Ori ulerterrexa degu.
- Izkuntzak ez luke bear iñor sututzeko.
- Zer nai dezu? Alakoxe iakintsu ustekoak beti nagusi izan ditezten?
- Aziera kaxkarrekoa gizona, itz batzuk gorâ-bêra bere onetik ateratzen ba'zaizu.
- Ai diozuna egia ba'litz!
- Ta, alderdikieritan sartuko ba'gîña?
- Urrutitxo zoaz.
- Gu euskaldunok ez gerala erdibituta ibiltzen?
- Aspaldiko ipuia.
- Ipui eta atsotitzak sarritan beldurgarri.
- Umientzat parragarri.
- Ganboatarrak eta Oñaztarrak eta orain eun ure *karlistak* eta ge-roagoko astiñaldia, ta...
- Olako izkirimiriak ez al ditugu betiko âztu bear?
- Liskar guzti oien putzak oraindik ere gerok iasaten.
- Putz ari ere itz berria al dezu?
- Esaera zârrak diona: *itzak ederrak eta putzak miñak*.
- Esaera zârrak diotena egia beti.
- Ezik, esaera zârrak orain ez dizkizula iñork aintzakotzat artzen.
- Bai! Euskaldun asko emakumên antzekoak izan. Beti berri zale.
- Berria, berri izate utsez txartzat al damazu?
- Ume giñanean soñeko berri eta oñetako berriak iantziz, gu bai pozik eta arro.
- Euskal Erria'k ere berri izan nai du. Orain-oraingoa.
- Bai! Erria berri, odola zâr. Gaur goizekoak al gaituzu?
- Arzulotako arkikuntzak eta izkerak berak urte askoko aztarnak dizkigute. Lañopean galtzen omen gera. Aritz zârta txetatzea, lan go-gaikarria.
- Lan orietan dabilzaneî nik txalo ioko.
- Txiro-beartsuek urriñekorik ez ikusten. Euskaldunok gutxi gera ta lander. Agian ibiltari ipurloka eta besterenik onartzen ez dakigu. Gutxi ikasiak gaituzu.
- Zaude isilik! Elkano ta Xabier'ek beti *bertan goxo* egin al zizuten?
- Gizonak alderdi onak izaten. Bai zuloak ere.

—Noski! Urteak bezelaxe: uda eta negu. Aurten ere bustiak indar izan digu! Oso gutxitan izan ditugu olako eguraldiak. Eguzkia ere bere onetik irten ote-zaigun esan litekela uste det.

—Izketan bestela asi gu gaur.

—Itz zalletatik. *Malo* itz au ere oso zalla degu.

—Orobat *malluki*. Zuk itz zallei beldur diezu.

—Itz zallez gure izketak illun.

—Elkarri galdetzen eta amor ematen ez dakigulako.

—Sakoste bakoitzean, angoxe izkuntza berezia guk. Ludian bereizlari itxasoak orain. Garai zâr aietan bereizlari sakosteak Euskalerrian.

—Oñez bakarrik ibiltzen ziran antziñako garai aietan, bakoitzak bereari zûrkiago eusten.

Batetik bestera ibiltzeko aukerak ditugun ontan, itz zallen koskak eta izkelgien nortasunak emetzeko eta berdintzeko ere egokiera aundia-goak ditugu. Ortarako *gogo*a izan bear!

—Izkera bakarreko gizona errukarri.

—*Biotzean* izkera bat. *Buruan* nai aña.

—Azkarrago esan didazu!

—Azkar esan ba'dizut ere, *txarki* esan dizudanekoa ezin egotzi zuk neri.

—Orain, maxiaketarik iñork ez dizu maite.

—Egia mingarri izaten.

—Belarri gogorrekoentzat eta biotz zekenentzat.

—Belarriak *ezigarri* dituzu: txalak bezelaxe.

—Oraingo askok *txalak* zertzu diran ez dakite.

—Paris'en ere *ogi txuria* zer dan askok ez dakite.

—Ain aurreratuak izan eta orrenbeste iakin ez?

—Berein gizon abiltari bizkor. Mendigoizale gartsu. Zidorra attu arte aurrera eta aurrera. Gero, bidea ber-berek urratu. Euskaldun asko olakoxeak izan ditugu.

—Bañan, *ogi txuria* ain urri al da Paris eta olako iri aundietan.

—Gizadiaren erdiak otorduan *ugoloa* besterik ez izaten. Urean etortzen dan *oloa*, alegia.

—Gizarteko erdiak, beste erdiaren berri ez daki.

—Ez laurdenik ere. Eta askok euneko bostena doi-doi.

—Eguzkipean *ao* geiegi, agian.

—Euskaldunok lén baño geiago geralako ez, beintzat.

—Egia dala uste al dezu?

—Eguzkipean *ao* asko edo geiegi geraneko auzia, bai minkorra! Izketaldi luzeagoan astindu bearko genduke.

ABALEGI'KO P.

"BERTSO PAPERAK"

BELTZAK, TXURIAK ETA 1869-ko KONSTITUZIOA

Paris-eko liburutegi nazionallean

Patri Urkizu-k kopiatuta

1869-co CONSTITUCIYUA

CANTARTEA

Constituciyuaz / da España erori
Jel bedi betico / Paper-tzar ori! (&)

CANTALDIAC

- 1.— Ecin guc contatu / Ecin benetan
Cembat gaitz diraden / Paper orretan.
Luzblec sorturik / Impernuetan
Berac zabaltzen du / Bazter danetan. (&)
- 2.— Etziran aimbeste / Yzugarriyac
Egipton ciraden / zazpi izurriyac.
Sodoma urico / Sugar biciyac
Eta ur-ujolde / ondargarriyac. (&)
- 3.— Ori diyo etsayac / Milla dearretan
Leice bi irikiric / Orroarekin :
Leice bi minezco / Euskia ayekin
Ez beguira nairic / dago odehyekin. (&)
- 4.— Bata da naigabe / Ta odolezcua
Bestea tristura / Negarrezcua ...
Eta ay! su-leizera / Zucen dijua
Milloica gendea / Guizonezcua! ...
- 5.— Oh mundu gucia / gaitzen semea
oker da charkeriz / Dana betea !!!
Impernuco subaz / Betico errea
Madaricatua / Izan zaitea ...

par Mr. Demarq, fils p.70

BERSU BERRIAC / LAUCOETAN ESANAC / SOBRA EGUIA DANA

- 1.— Liberalac apaizac / Quendu nay dituzte
Pobrien mesedian / Ez dala nic uste.
¡Ay, Ay, Ay, mutillac! / Ez dala nic uste. (&)
- 2.— Cerurican espero / Ez dutenen lanac
Apaizac gorrotatu / Quendu amarrenac. (&)
- 3.— Apaizac maite ditu / Fedea duenac
Quentzen diozcalaco / viotzeco penac ... (&)
- 4.— Esan bear didazu / Clarota feonéz
Sinisten dezun alá / Eleizan edo ez ... (&)
- 5.— Gloriaco atea / Esaten du Eleizac
Idiquitzeco alá / Daucatela Apaizac ... (&)

- 6.— Eleizari quenduta / Beretzaco artu
Maizterrari itz onac / Bañan ez barcatu ... (&)
- 7.— Amarrenac gañera / Contribuciyua ;
Pobrien oneraco / Beltzen leciyua... (&)
- 8.— Apaizari eman ez / Maizterra cargatu ;
¿Cer nai lutequean / Dezute ezagutu ? (&)
- 9.— Apaizac pobretuta / Pobriac zatitu
Jaun oyen desiuia / ondo dá aguertu. (&)
- 10.— Apaizac cererebait / sobra zutenean
Etzan calte izaten / Pobrian artian. (&)
- 11.— Orañ vici dirala / Apaizac pobrezan
len becin emalleac / Nai ta ere eciñ izan. (&)
- 12.— Apaizac pobretuta / Zuc, pobre tristea,
ez dezu mesederic / Beltzac bay ordea ... (&)

N. B. Gueiyago ere badira! Oyeco arguitaratu dirá papel Unión Vasco-Navarra deritzanean. Urriaren 3-n 1869-n.

OGUEITA BI BERTSO-BERRI

BNP / FCB 169

- 1.— Ogueita amabost urte / Dira igaruac
Aguintzen digutela / liberal gaistuac ;
astuciya andiyakin / madaricatuac
engañatu cituzten / Carlista cintzuac.
- 2 — Judaso-ec saldu zuen / Ceruco Maisua
Maroto Generalac / Carlos guizasua
Billauqueri onekin / Jaso zan tronua
España danarentzat / Zori-gaistocua.

3. — Isabelen ondoan / Beltz infernucoac
Bete dituzte ondo / Beren polchilloac
Quendu diskigute ere / Gueldica fueroac
Ascoc artu dituzte / Grado ta empleoac.
4. — Inoiz azpertu eciñic / duten egarriya
ondata dute ederki / Españaco erriya ;
gueratu da erreinu au / ¡ Oh lotsagarriya !
Beren asmoargatic / Galduta guztiya.
5. — Eskerric beltzaenakin / ¡ oh ce gende piña !
Azkenic bota dute / Beren erreguina ...
Aguintari izatia / (Ez iñoren miña)
Izan da, liberalac / beti zuen griña.
6. — Aguintari jarrida / Gende ichusiya
Serrano ta Topete / Prim da familiya ;
Onela bete dute / Dauquen vaneriya,
Manchaturic galanki / Beren concienciya.
7. — Aguintari izateco / oyen astuciyac ...
Lenengo eman dituzte / Itzac pozgarriyac ;
Laster ezagutu du / Erreñu guztiyac
Nola beltzac diraden / Beti guezurtiyac.
8. — Ardi narru batekin / Jantzitaco otsuac
Izan dira, ta dira / liberal palsuac
Otso oyen artean / ez dira mancuac
Ardi triskiltzaraco / Gaurco ministruac.
9. — Eleiza Santagana / Dauqueen gorrotuac
Artu-eraguin dizte / Diabruzco asmuac
Erbestetu dituzte / Jesus-en soldauac
Eta bota chit arras / Mojen comentuac.
10. — Lenengo utzi dituzte / Ondasun bagueric
Guero bota dituzte / Beren etchetatic ;
¡ Orain moja asco daude / Gosiac iya illic !
Guizon gogor oyentzat / Ez dao barcamenic.
11. — Liberalen artean / Dauzca deabruac
Animac galdutzeco / Lagun trebetuac
Aitu ditu Madril-go / Diputau-lecua
Dar-dar eraguiteco / Itzaldi-moduac.
12. — Ucatu da Jesusen / Jaungoicotasuna
Ta berdin Mariaren / Dontzellatasuna
Aundiya de benetan / jaunen ontasuna
Igarotzeco isillic / Iraiñ aiñ astuna.

- 13.— Pecatu aimesterekin / aspertu bagueric
Aldendu nai luquete / Fedea gugandic ;
Beltzen gaistotasunac / Ez dauca neurriric ;
Ez dago oyen artean / Fededun guizonic.
- 14.— Desprecia dituzte / Erregu-beroac
Españan ez sartzeco / Jaungoico palsoac
Iriqui ditzatela, / diote, temploac
Hereje ta judiyo / Gentil ta Turcoac.
- 15.— Oraindaño badago / Españan lotsaric
Ecin litezque igaro / Gauza oyec gueldiric
Euscaldunen artean / Ez al da mutillic ?
Edo daude guizonac / Oillo bihurturic.
- 16.— Amar milla aingueruac / ez onelacoric
Euskaldunen biotza / ez dago olloturic ;
Iaiquico guer(r)a laster / Danoc bat eguinic
Liberal arruari / Jarquitzen gogotic.
- 17.— Egon ezquero danoc / alcar ondo arturic
Garaitza irabazteco / Ez dago bildurric ;
Noiz egongo bada / Españan paqueric
Ez du guelditu bear / liberal-sustrairic.
- 18.— Ea bada, mutillac / gogor sendoturic
Fusill eta makillac / Artu ber-bertatic
Jaunac egongo dala / Beti gure aldetic
Eta Virgin Mariyac / Digute cerutic.
- 19.— Esnatu da noizbait / Lo-egon dan legoya
Españan aituco da / Laster bere orroya
Alperric jeiqui contra / Tirio eta Troya
Carlosec jantzico du / Erregue coroya.
- 20.— Don Carlos-ec eman du / Erregue itz-andia
Nahico dubela gorde - Jaunaren leguia ;
Izaten bada Erregue / Bere mesedia
Sendotuco da Españan / Cristoren Fedia.
- 21.— Carlos zazpigarrena / ;Gure Jaun maitia !
Zure premiyan dago / Emengo gendia
Zapalduric betico / liberal-castia
Zurequin izango da / Bear dan paquia.
- 22.— Españaco coroya / Buruban janzita
Don Carlos izango da / Españolen aita :
Esan bada gogotic / bildurrari utzita
« Bici bitez Don Carlos / Eta Margarita ! ».

« TA NOIZ ZUAZTE »

Arana-k dionez: «Errepublikano chastar baten berso chartzar zacarrac».

- 1.— Donostiac / Baserritarrac
Eraguiñazten dizquigute farrac
Danac dira Carlosen maizterrac
ta noiz zuazte
Galdezca gabilitza jaita aste
Bañon ez guera / Juango eztet uste.
- 2.— Donostiac / Baserritarrac
Arturic, daude z(s)ubac eta garrac
Aplacatu dira oyen indarrac
Umilducoitu beren biarrac
ta noiz zuazte etc.
- 3.— Donostiac / Baserritarrac
Guciac eztrade guizon charrac
Antigualdian dira onshamarrac
Baño ausi bear zaizque bizcarrac
ta noiz zuazte ...
- 4.— Barullo franco / Izandu degu
Basarritarraquin uda ta negu ;
Bañon guc beti gauza bati eldu,
Ez beñere horandican galdu ;
ta noiz ...
- 5.— Jay egunetan / Basarrietan
Oyequin gabilitza beti erriyertan
bistan egongo da beguiyetan
Asten baguerade egiyetan
ta ...
- 6.— Astigarragaco / baserritarrac
Loyolan berriz ayec diadarrac
Vivaca Carlos ta carlostarrac
An sartu ciran gure atzaparrac
ta ...
- 7.— San Ignaciyoz / Da urte bete
Astigarragan goguan izango dute
Aurten ere etorri nai badute
Esanaz vi vacá Carlos siete
ta ...

- 8.— Astigarraco / Gende canallac
Eguin naciduzten an egiñalac
Urdindu ziozcaten bizcarrac,
jaunoyeri donostiarrac
ta ...
- 9.— Carlos setimo / Gabe etsico
Ecin dutela ta estutela utzico
Bañan isildu dira betico
Eztira len becin maiz asico
ta ...
- 10.— Basarritarrac / Duten pelia
Carlos setimo nai dutela erreguia
Guc berriz nai ura bañan obia
ori da gucien naigabia
ta ...
- 11.— Carlos setimo / Erregue jarri
Biar degu esanaz dabilta elcarri
Baldin nai badezute ecarri
Soroetaco chori izugarri
ta ...
- 12.— Republica da / Guc naideguna
Betico artu biardegun laguna
oraindic etorrico da eguna
pocez celebratu biaguna
ta ...

Abisua cantabec erosi nai dituenentzat.
Saltzen dira champon bana Garibay calian.
Letra B. Bostgarren vicitzan.

1869

ESPAÑAREN CANTA BERRIAC (1) / FCB 169. BNP. p. 344

CANTAURREA

- (*) España gorde zazu
Egui Erligioa
España ondatu zazu
PROTESTANTISMOA (**).

CANTALDIAC

- 1.— Guezurrac sortu dira / Londresco zulotic
Lutero zacarraren / Adar metondotic
Su-ta-gar eguin gogor / Luzbeli gogotic
Mundua garbitzeco / Bere oker gaistotic. (&)
- 2.— Impernucoen asmo / Galgarriz asea
Or dabil irrintzica / Calvino-gendea
Gartu bedi, cristauba / Gaur gure FEDEA
Gori gori aguer bedi / Obra onez betea. (&)
- 3.— Janci gaitecen gaurtic / Cerutic gudari ...
Guerra bici bat danoc / Protestanteari
San Miguel degula guc / Aingueru guidari
Onda dezagun arte / Ez barca berari. (&)
- 4.— Gure Erreligioco / Euzqui eder aurean
Odey beltz ori certan / Jarri da parean?
Gaisto illun oyec beude / Belzebu-en leizean
Jaincoarenac guera / Argui ibill gaitea. (&)
- 5.— Guere biotzac danoc / Alcha Jaunagana
Bere gloriaraco / Eguiñic aldana
Guc orain gorderican / Beraren esana
Betico emango digu / Coroi onen bana. (&)

Licdo. Esquiña 1869

(*) Edoceñ zortzicoren soñuban canta litezqueanac.

(**) Protestantismo, Inguelesac eta Alemanac. asmatutaco eta orain liberal bel-
tzac Españian sartu nailuquetean Erligiyo modu paisua.

BERSU BERRIAC INACIYO EGUIJARIYOC JARRIAC - 1869

Ler eguiten dabilitza / Apaiz devotóac
Baserriric baserri / Bildutzen votoac.
Esanaz, cristau onac / Baldin baguerade
Votoac emateco / Carlistaren alde
Eta contra ematen / Duben cristau charrac
seguru dituela / infernuco garrac.

Ori diote gauza / icaragarritzat
icararic ematen / ezdit neri beintzat
Orlaco guezurraquin / tontoac bacarric

izutuco dituzte / ez ernai z(s)amarriq.
; Baserrico gendea ! / Zaude bada ernai
ez apaizac esanta / sinistatu cernai.

; Ondo gogoan daucat / joan dan guerratea
ceren ecin litequen / burutic joatea !
Orain nola dabiltzan / oro ordubauden
apaiz cristau on oyec / icusi nituben :
Baserriric baserri / zapatac puscatzen
liberal beltz-en contra / buruac berotzen.

Aguintzen jartzen bazan / gende liberala
gure fuero maiteac / galduco cirala.
Amaica guizon prestu / irten zan mendiz,
bañan etxera berriz / ondo guchi gira.
Amaicac utzi zuen / larrua mendiyan
eta oroitza tristea / bere familiyan.

Noizbait zori onian / bucatu zan guerra
gueroztican paquean / gu bicitu guera :
Eta gure fueroac / Carlos izan gabe
liberalac maite ta / bicirican daude.
¿ Certaco biar degu / Paquian gaudela
igaro zan demanda / berritu ostera ?

Ernai, baserritarrac / ez izan tontoac
guerra zale oyeri / ucatu votoac.
Ni ere zuen guisa / baserritar bat naiz,
Soroan izardiya / quentzen detana naiz :
nere arto, sagar, ta / cecorren tartean
lan eguifi ta bici naiz / nuquena paquean.

Apaizac nai badute / ibilli guerretan
dijoácela berac / mendira tropetan.
Liberalaren contra / daude ernegatzen
ez erreligiyua / dutelaco galtzen
(berac becelacoric / ezta ortaraco)
Baicican liberalac / nai dituztelaco
diran apaizetatic / erdiyac guchitu
edo baten errentac / birentzat partitu.

Duan entierruac, / duan batayuac
illac duan graciya / orobat jayuac,
adisquideac, orla / izango ez degu guc
Gure Jaungoicoaren / graciya diru truc.

Ez dabilta jaun oyec / champon contu baicic ;
argatic, icusten da / orrelaco pilla
carlistaren aldeco / votoaren billa.

Cergatican carlistac / esqueñi dizcaten
Baldin ayec badira / aguintean jartzen.
Emango dizcatela / naico irabaciyac
amarrenac ere bai / eta primiciyac :
Gañera egongo dala / apaizaren escu
alcate cein ipiñi / ta ceñ diputadu
Berac izan ditecen / Contrariyo gabe
Erriyaren buru ; ta / Guizonaren jabe.

VERSO BERRIYAC INACIOREN CONTRA PEPECHOC JARRIAC

Docenacho bat verso / Zorcico berriyan
azaldutcera nua / Ni euscal-erriyan
Naiz dala calean da / eta baserriyan
Danac bizi ditezen / Jesusen leguean.

Iñaciyo eguijariya / nondic atera dezu
Zuc eguiya ori / Gusto emate arren
Cembait personari / Buruak galtzen zabiltz
Baserritarrari.

Iñaciyo cer diote / or cale aldean
Guezurra saltzen dute / egui colorean
Sarritan badabilta / Baserri videan
Provehurican gabe / alferric lanean.

Iñaciyo utci eiyezu / apaizac paquean
deadar eguin zuten / An Cadiz aldean :
Vicico guiñarela / gu libertatean
Ez guezurrezco legue / Char oyen mendean.

Pepechoc esaten die / Iñaciyo berriz
Guezur oyec saldutzen / alferrican dabilz
naiz datocela oñez / igual da zaldiz
provehuric ez dute / ateraco aniz.

Iñaciyo esango ditut...
badaquigu... / guc gueren votoac
gueretzat nai ditugu / Carlos eta Fueroac.
Alferrican dabilta / Guezurrac saldutzen

Carlos cale corrica / Zapatac urratzen !
Iñaciyo ez badira / Laister acordatzen
egon bearrac dira / Penaz cispurutzen.

Iñaciyo dabilta / Corrica alferric
Lutero ta Calvino / Berentzat arturic
Baserriyan ez da nausi / Gaiztuen legueric
Anima ta gorpuza / Galduco duenic.

Ai! Cembat nagusiren / Maister coitaduac
Vorchas (Borchaz) emanarazi / berentzat votoac
An dira menacheac / An desafioac
Orra Iñaciyocho / Cer legue moduac.

Baserriyan ez dago / gendea eroa
maliciariac gabe / ain gucis tontoa
irichi ... / oriyen votoa
Duda gabe bear du / arras tranposoa.
Gure Religioac / Iraun dezan garbi
Erregue eguiazco bat / bear da ecarri
Guztien oneraco / An tronoan jarri
Temploric eguin gabe / Protestantiari.

Protestante, Judio / Mahometanoac
Ez dirade guretzat / legue onecoac :
Españian guerade / Chit catolicoac
Guc ecin ametitu / oyei temploac.

Au Pepechoren alegrura.

Orra Iñaciyocho / Orra despeidan
Engañu gabe ez(s)an / gauzac nola diran.
Baguca bear degu / nori bere toquian
erri eta baserri / erreinu guztiya.

Reçue à 1869 Perpecho Eguizuriya

BERSU BERRIAC PRESTUTASUNAREN ALDE ARRAZOIZ JARRIAC

- 1.— Zortzico batzuetan / Guaz aguertzera
Munduac jaquin dezan / Gure guertaerá ;
Cer motivoz gaituzten / Erritic atera
Eta danoc ecarri / CARCELÁ BATERA. (&)

- 2.— Ichuraz bacarrican / gauzac juzgatzecó
culpadunac guerala / Bada pensatzecó ;
Bañan gogoa duanac / Ondo, jaquitecó
Ez du arrazoyen vistan / ala sinistucó.

- 3.— Diputazio jaunac / Ayuntamientoai
Eman die ordena / Urri eta zorroz, bay;
Arreglua jartzeco / ELEIZACO GAUZAI
Gusto emateagatic / Junta liberalai.

- 4.— Errespeto gustian / Degu contestatu
Gauza oetaracó / Esqueradela gu ;
Jaincoac dituala / Obispoac AUTU
Ta ayen gauzetan eziñ / Guintezqueala sartu.

- 5.— Berac ere dezalá / Chit ondo pensatu
Obispoac neurtzeco / Ez dala Aita Santu
Guere concienciric / Ez dedin cargatu
Ez degula nai orlacó / ordenic cumplitu.

- 6.— Diputazio jaunac / ¿FUEROAC NUN DITU ?
¡ Gobernadoreari / Da garratz quejatu ;
Esanáz obediencia / Diogula meatu !!
ORRA CEATIC GAITUZTEN / Presondeian sartu.

- 7.— Concienci garbia / Daucagun becela
Honratzat daramagu / oraingo carcela ;
Euscaldunac ezguiñan / izango bestelá
Jaincoac eta guizonac / JUZGA GAITZATELA.

- 8.— Erlijiyua degu / Gustien gañetic
argatic ezdegu nai / utzi ezergatic ;
Seguituco degu, bay ... / Firme beregatic
NAIZ DESTERRUA - EMAN / Orren gauzac gatic.

- 9.— Legueai faltatuta / Gauzac eguiteco
BELTZAC becelacoric / Ez da iñon sortuco ;
¡¡ cer !! ¿ Gu oyen guticia / Beti cumplitzeco ?
Ez, ez, ... bada infernua / Oyec quiscaltzecó.

10. — Ona emen esplicatu / Gauzac itz guchian
jaquiñ dediñ Españian / Ta mundu guztian.
¡¡ oh cembat gertatzen da / Gaurco egunian
Panfarroi daudelaco / Beltzac aguntian !!

Bersolariac presoai

Guizon prestu leyalac / Eguiaz barcatu
Licenci gabe badet / Zuen icena artú ;
AGUR batequin orain / Beardet bucatu
esanáz PROVINCIYA / Dezuela honratu.

1869



(&) Azcoitia, Cestua, Zarauz, Aya, Vidania, Segura, eta Cegamaco alcate eta Ayuntamentuco Jaun, ifiorc baño maiteago dituztenac RELIGIOA eta FUEROAC, AZPEITICO carcelan preso daudenac. 1869.

ASKATASUNA

Askatasuna, eder haizen hori
maite haut, nahi, eta behar igurtzi,
hire gorputz leun, azkor, oi Urtzi
lagun iezadazu su hartzen gori!
Askatasuna, gogor haizen ezti!
Gora hi eta zoldu gaitunanok!
Biba guok, urrera hatzaigunok!
Bizi gaitezen, oi gaitzanan bezt!
Bigun eta zoli, txairo maitale,
zimelik ez, gaztain koloreko'ri,
irunsi behar gaitun lagunzale,
jo behar, gauaz, larruen logale,
betiko elkarren jakinez berri,
Askatasuna, maite haut, SORTZALE.

Andolin Eguzkitza



IZEN GABEKO IPUIA

«Televisión Española»'n aurtengo (1975 g.) udaberriko arratsalde batean, entzun nuan, oso atsegín izan zitzaidan ipui bat, (erderaz, jakíña).

Ni aditzen jarri nintzanerako, bai ziarduan izlariak, asi berria zan arren. Augaitik ez dakit bere izenik. Entzun nion aintziñako ipui bat esatera zijoala, Madrid'eko «Biblioteca Nacional»'en irakurria. Esan zuan liburuaren izena, baita egillearena ere, baiña, nik ez nuan ezer idatziz artu buruz baiño, eta urrengo egunean ipuia idatzi nuanean, ez nintzan oroitu, eta gaur berdiñ gertatzen zait, naigabea ematen ditan arren.

Ondo entzun nituan itz batzuek ere aaztuak ditut eta ez det beste biderik ipui au emen idazteko (Donostia'ko «Egan»'erako José Uria jaunak eskatuta) neuk, aal detan eran esatea baizik, «Televisión Española»'ri, eta bazkalondoko izlariari, lenengotik barkazioa eskatuaz, eta bigarrenez eskerrak emanaz. Eta beste gabe, ipui politt au, idaztera noa.

Jaun aberats batek (Markesa, edo Dukea, edo orrelako Jaun aundiki batek,) bere morroyakiñ izketan ari zalarik, esan zion egun batean:

—Nik agintzen detan lurralde guzti onetan, lau sendagille besterik ez zio.

Eta morroyak erantzun:

—Jauna, barkatu beit, baiña, berori zor diotan itzal guztiaz esaten diot, lau ez-eze, lau milla ere, bai dagozala.

—Ik, ez dakik zer esaten dekan —esan zion Nagusi Jaunak—. Lau bakar-bakarrik zeudek, eta beurak bizi ezifnik, edo estu-estu eta naikoa lanekif:

—Ara bada, Jauna, nik berriz ere dirautzat lau milla ere bai dirala, eta berorrek nai ba'leu, danen izen-abizenak ekarriko nizkioke.

—Aizak, apostu bat egiñgo diagu.

—Bai, Jauna, berorrek nai duanean. Orixe onena.

Dukea'k:

—Ara, lau milla sendagille oyen izenak ekartzen ba'dizkidak, irureun pezta, (danak zillarretan) emango dizkiat.

—Bai Jauna. Tratua egiña gelditu zan.

Morroyak, seme gaztetxo bat, amabi urte ingurukoa zeukan, ikas-tolara asko juaten zana (utsik egiten ez zuana, alegia) eta guztiz azkar idazten zuana. (Eskuz alegia, orduan ez zan, idazteko tramankula politt oyetakorik oraindik agertu Amerika'n ere ta.)

Aitak deitu zion bada semeari eta esan:

—I, biar goizean, nerekiñ jua bear dek leku batera, eta, nerekiñ itz-egiten duten pertsona danen izenak artu, eta neri esaten dizkidaten gauza danak idatzi bear dituk itzez-itz, utsik egiñ gabe paper baten.

Egiñgo al diak lan au bear bezela?

—Bai, aita, egingo ez ditut bada? Ikastola lanean, neuk dakit ondoena idazten da?

—Ondo zeok, biar ikusiko diagu.

Biaramon goizean aita-semeok danba-danba, eleizako atera jua ziran. Eleiz ataira eldu ziranean, aitak, praken patrikatik atera zuan sudurzapi aundi bat, margo askotako laukiak zituana. Jarri zan eleizako ate ondoan zutik, buruagaz orma jotzen zuala, eta orroaka asi zan «Ai ene bada, ai, ai, aaaai, (sudurzapiaz agoa estalirik, eta txistuagaz bustiaz, eta gafiñera noizean beñi, buruagaz orma jo, ta zarata aundiak atereaz) «Ai ene bada!! burutik egiñ bear detala ba!!! Inpernuan ere aundi agorik pasatu bearko degunik ez det uste. Ai, ai! Zer da au? Au zer da?».

Txistuagaz eta izerdiagaz dana busti-busti egiñ zua sudurzapia; arpegian eta buru gafiñean, gelditu gabe zerabilen sudurzapi aregaz, ille guztiak arpegian beera ipiñi zituan, eta gure gizonak, gero eta orroa aundiagoak eta penagarriagoak. Alakorik!!!

Baiña bat-batean emen dator, bere Nagusien zaldigurdia, ta errukiz urreraturik dirautso Duke'ak morroiari:

—Mutill zer dek?

Eta morroioak:

—Agifiñeko miña Jaunaaa!

Ori baiño ez ba'dek, laister kenduko zaik. Jua adi eure etxera, eta bialdu zak emaztea gurera, ta eman dagioela «adormideras» izena duten kalabazatxo txiki batzuek. Bai aal dakik, gari artean azitzen diran lore gorri nabarmen batzuek? Oyek, lobelarrak dituk. Sukaldariak ondo zekik nola antolatu bear diran adormiderok, eta ik egiñ ark esaten diran bezela. (Au esanda sartu zan Duke'a eleizan Meza entzutera.)

Morroia'ren semea, an zegoan illunpe batean, iñork ez ikusteko leku egokian, eta idatzi zituan Duke'aren izen-abizenak eta Tituloa. Baita ere aitari esandakoak.

Bereala, eleizatik ertenda urreratu zan, erri guztiko andrerik erru-

kitsuena eta beartsuari geyen laguntzen zekiena. Nola igaroko zan bada Duke'aren morroiari jaramonik egiñ gabe, itxura negargarri artan ikusita? Andre on onek jakiñ zuanean orroalariak zer miñ zuan, onela esan zion:

—Bai, bai, baizekiat nik agiñeko miña zer dan. Azkenengo aldiz izan nuanean, Sevilla'raifio jua bear izan nian agiñ-sendagille batena. Txakurrari ere ez zioat opa agiñeko miñik.

Batzuetan, oso ona dek, ur otz-otza artu agoan, eta berotu artean eukitzea, ta berotzen danean bota kanpora ta berriz ere artu —ur otza ta jarraitu miña kendu arte.

Abadea ere erten zan eleizatik eta arek ere:

—Mutill zer duk? Sakristiatik entzun dizkiat ire orroak, eta zer pasatzen ote dan jakitera etorri nauk. Baiña agiñeko miña besterik ez ba'dek, nik esango diat nola kentzen dan. Sartu ezak agoan kutxare aundi bat bete tabako, maska-maskag egiñ ezak ondo bigundu arte, eta gero bota kanpora, ta agoa naiz ur otzaz naiz beroagaz, ondo garbitu. Aizak, ez dezakala gero tabakorik jan!

Urrengo etorri zanak esan zion:

—Agiñeko miña besterik ez ba'dek, laister alde egiñgo dik, nik esana egiten ba'dek. Artu ezak katillu bat bete ur bero, aal dekan beroena, erabilli zak agoan oztu arte ta gero bota. Artu ezak orduan katillua bete ur otz, aal dekan otzena ta erabilli agoan berotu arte, eta orduan bota. Laister igerriko dek miña gutxitzen nola dijoan, eta bereala zearo juango zaik.

Eta urrengoak berriz, buztifia pixka bat artu ta eskuetan erabilli zezala biribill-biribill egiñ arte, pelota txiki-txiki baten antzera, eta orduan, agiñak zeukan zuluen gaiñean ipiñi ta sakatu ondo, barrura sartu arte. Izan zeiken sendagarririk onena zala.

Beste batek esan zion ura ta opziña erdi bana zirala, agoa garbitzeko, beti agiñ ustela zegoan lekura eramana.

Onen ondoren etorri zanak ontzi aundi batean ipintzeko ur otza, eta beste ontzi aundi batean ur beroa, eta oiñ bakoitza ontzi bakoitzean sartzeko (bat ur otzetan eta bestea ur berotan alegia).

Urrengoak au esan zion:

—Urrutitxo dagon arren, jua adi Botikara, eta erosi ezak botillatxo batean *kreosota* izena duan botika bat. Ez duk asko bear, gutxirekiñ egingo duk. Eta etxera etortzean esan egiok andreari (euk ez euke gauza onik egingo ta) galtzeta burni bat sartu dezala botillatxoan eta bota deikala agiñ ustelen zulora tantun bat, eta itxaron, ia miña juaten zaikan. Juaten ez ba'zak, bota beste tantun bat. Iru tantun bota ordurako agiñeko miñik gabe aiz.

—Baiña esan egiok lenengo-lenengotik emazteari, kontuz ibilltze-ko sendagai orrekaz, Ezpaina, edo mingaina edo aldameneko beste agiñ bateri ikutuko ba'lio ke erre egiño diolako. Sendagai segurua dek, baiña arrixku aundikoa.

Ara emen beste baten erremedioa. Egiñ enplasto bat, olio, tipula, ogi-irina ta esneakaz. Arizko trapu zuri, garbi, batean zabaldu, eta agiñeko miña dagoan matraillaren gañean ipiñi, bero xamarra dagoalarik, otzittu baiño len. Zapiak ariskoa izan bear dik, algo doizkoak ez dik balio.

Eta beste batena: Katillu txiki bat bete pattar artu agoan, eta agiñ gaixoen aldera bota, eta nekatu arte euki. Agiñeko miña daukan aldeko besoa, gora altzata euki bear dek bitartean, aal dekan denbora guztian, eta ez orma ta ez beste lekuetan ipiñi gabe. Miña gutxitzen dala igertzen dekanean besoa jatxi ezake, eta zearo juan danean agoko pattarra bota kanpora.

Erri artan oso ezaguna zan gizon moskor bat zegoan, oraiñ esan detan au entzuten, eta izketan ari zana ixildu zanean esan zion agiñeko miñdunari:

Orrek esan dikana ona izango dek, baiña errazagoa ta obeagoa au dek. Nik oraiñ esango diatana:

«Agoan erabilitako pattarra azkenean edatea. Besoa gora altzata neketan eukitzeak baiño, garrantzi aundiagoa dik nik esan detanak. Agiñeko miñari, berriz etorri nai ba'du, etziok utzitzen da.

Au da, gutxi gora bera nik «Televisión Española»'n jasotakoa. Berriz ere deitu egiñ zidaten eta juan bear izan nuan. Berriz etorri nintzanean: telebista mutu zegoan, eta jantokian iñor ez.

Ala da ze, nik eziñ bukatu dezakedala ipui au. Eta irakurleai utzitzen diot lan au, egiñ nai ba'dute beintzat.

Etxean umeak dituztenak erraz erten lezateke lan onetatik. Umeai bukaera eskatuta. Lau ume diran etxean izan leike lau bukaera ezberdiñak, eta laurak *ad hoc* egitea.

Nik, ikastolan onela egiñ detanean (alegia, nik esandako ipui baten azkena umeeri eskatu) oso ondo erten izan dit.

Izena neuk ipiñi diot ipuiari, lan au ere iñoren gaiñ ez utzitzearren

Azpeitia'tar Julene

Eskauriatza'ren alarguna

Durango'n, 1975 g. Urrilla'k 12.

Erle Gobernatzallen Guidariya Liburua

Orain mende bat eterdi oso bakanak ziran profano gaiak erabiltzen zituzten euskarazko liburuak. Horrengatik aipatzea merezi du «ERLE gobernatzallen GUIDARIYA edo Erleak gobernatzeko Modua» izena duen liburu ttikiak. (IRUÑEAN—Erasun-en Echean. 1927 urtean). Euskarazko itzulzailearen izenik ez dakigu, bainan erdarazkoa-rena bai:

... *Aita Fr. Joaquin de Santa Bárbara Carmelita* zazpi parte edo *zati-tan gaztelaniaz arguitara emana, ipiñi du eusqueraz, provincia Guipuzcoa-co euscaldun batec.*

Nahiz 1827 urteko berriak eman, zehetasun asko probetxugarri ditazke, ideia bitxi bat edo beste gora beera. — 109 orrialde ditu liburuak eta derabillan euskara errikoya yastatzeko, lerro batzu ematen ditugu erakusgarritzat, oraiko grafiara apur bat egokitua, textoa osorik eta dagoen bezal bezala utzirik. — Astapeneko SARRERA-n dio:

«Iracurle ona: Autore batec, ondo eta iracurtzalleen gustora eta provechu-raco esribitu nai beditu bere pensamentuac, ipiñi, bear ditu oec claro, labur, ordena eta modu onean.»

«Era onetan bada emango det arguitara nere obra, —An icusico dezu claridade aundi bat, ceñean ez ditut paratcen hizqueta goaicarriac; labur arquitecu dezu, baña gauza premizco edo precisoric falta etzayola; modu eraguillean; baña edoceiñ persona ez jaquiñec aditu dezaquean eran, eta jaquintsuai agradatuco zayen moduan.

Gero textoan, «Erlateguia eguiteco modua» izenburuan dio: ... «Viclecu au eguingo da ordena ederreco eche bat. — Au ondo gogortuco da, barrendic eta campotic mortero onarequin; erleac otzac galdu ez ditzan, eta muscarrac, sugueac, suganguillac eta beste onelacoac gorde lecuric izan ez dezaten, eta oso perseguitu eta ill ez ditzaten.

»Atea iriquiya egongo da egutera aldetic, au ecin danean, sartal-detic, baña beñere ez Norte aldetic; modu onetan erleai quentceco temple charreco aiceac, ceñac erdi illean paratcen dituzte, eta / onela galtcen dute provechua, oen jabeac.»

Esan bezela, zazpi sailetan zatitua dago liburua eta hauek dirade:
... I.—Nondik erosi behar direan Erleak. = II.—Erladi batzuk nola aldatu behar direan eta zer denboraz.—Eultzak partitzeko modua. = III.—Erleak eta hauen humeak ez akabatzeko artu behar direan nehurriak.—Gaitzak ezagutzeko eta erremediatzeko.—Eultzak egiteko gayak.—Zikinkeriatik eta ustelkeriatik begiratzeko moldeak.

IV.—Nola ezagutzen direan erle zahar eta gazteak; eta ilik dauden edo ez.—Eztia eta argizaria nolaz egiten direan.

V.—Erlezainaren lan-abetesak eta eginkizunak.—Erle galduak edo iges-eginak atxemateko moldea.—Eztia ekentzeko sasoi eta denborak, bai eta usatzen direan tramankuluak.

VI.—Nafarroako mendialdetan, Gipuzkoan eta Bizkayan bizi diran jendeeri egoki ditazken Erregelak. — Zer ekeiaz behar direan Eultzak egin.

VII.—Erlategia egiteko moduaz; eta ekeyaz edo gayaz.

Erleen ugaritze edo jenerazio gayaz hala dio autoreak: ...«REAUMUR (erletan jakintsua) baño lenago izandu ziran autoreen iritzean... aseguratzen zuten ze, etzirala Erleak sortzen ar eta emeak, bata bestearekin juntatzetik, baizik Jaungoikoaren pribilejio espezialaz... itsasoan eta ibayetan dabilzan arrayakin, eta lurrean bizi direan xingurriakin egin zuan bezela.

»Baña esan degun autorea iritzi onen kontrakoa zan; eta beragatik esaten du, antziñakoen illuntasun au argitzeko, egin zuala esperienzia; sartzen zuala kristalezko ontzi batean Erregiña bat Zángano batekin; onek lenegoan etziola Erregiñari jenerazioa ugaritze gaiean kasorik egiten; baña azkenik emeak bereganatu zuala bere mugimentuakin, elkarganatu zirala biyak eta Zánganoa instante artan ilik gelditu zala.—Egin zuala berriz ere esperienzia au bera, eta lenbizian bezela gertatu zala.—Au da gauza bat Kasik sinistu ezin ditekeana, zirkuntanzia guziaz begiratu ezkeru.—Zergatik egiaz nork sinistu dezake ar emeak beñ elcarrekin juntatuagatik, ilko dirala erle ar guziak? Eta au ala balitz ere, ¿zein izango da aiñ zoroa eta igarriko ezduana, posible ez dala jenerazioak segitzea instante artatik?, zeñean (REAUMUR-ek dionez) arra edo Zanganoa iltzen asitzen da, aren gorputzeko miembroak torpeak eta mugimentu gutxirekin arkitzen dira, odola kasik izoztua, biotza apenas mugitzen da, eta azkenik, onetarako aren sentiduak igual egon bearrean guziak turbatuak edo ikaratuak badauzka?

»*Sugammerdam* deitzen dioten batek (gai horrei buruz) esaten du: REAUMUR-ek egin zituen esperienziak berak egin zituela, aren iritziya

segitu zuela denbora luzean, baña beti iruki zuela errezeloa ala zan edo ez. — Duda onetatik irteteko egin zuan esan degun hilikusker (Anatomia Ikertze), edo aen gorputzeko parteen etsamina; ikusi zuen bateatik Erregiñaren emetasuneko partea guziz txikia zala, eta bestetik atenzio eta arreta aundi batekin erreparatu zion Zanganoaren partearen aunditasunari.

Eta zirkunstantzia oetatik ezagutu zuan bere engañua, eta motibo onegatik mudatu zuan publikoan bere iritzea esanaz: ezin datekeela Zanganoa eta Erregiña elkarganatu eta jenerazioa andik sortzea.»

Orduko illunbe eta eztabaya horiek erakusteko eman ditugu goragoko lerro horiek denak; geroago argitu eta xuritu direanak.

Beste orrialde batean, dio autoreak: ...«Eztiya izan diteke iru klastakoa. — Onena da zuriena, usai aundikoa, eta erromero, tomillo, borraja, gari eta beste onelakoakin egiña; alako moduan ze, tenedore edo beste onelako gauza batekin ikutu ezker, zillar koloreko ari me bat ematen duana.

«Bigarren klasekoa da, pikortak dituana, len esan degunak bezelako usairik ez duana, eta zurikatxa, borraja, orégano, retama (?) eta beste onelakoagin egiña. — Irugarren gradukoa da kolore illuna duana, eta usai gutxikoa; eta baba, baberruna, mendaro eta gari komunaren zumoarekin eta fruituakin egiña. — Lore eta belar jenero oetatik ipiñi bear dira ugari, erlategia-ren inguru guzian, eztiya ona irten dedin.

»Oni usaya emateko saltzalle agudoak, erromero, tomillo, isprigu eta beste onelakoakin lurritzen dute; eta kolorea zuritzeko, arraultze gorringoak batitzen (Jotzen) diran bezela batitzen dute; baña au onela egin dutela ezagutzen da, baldin eztiyak piportarik ez badauka.

»Beste batzuek naastu oi dute almidoea-rekin eta iriñarekin. — Baña engañio au ezagutu eta agertzen da baldin desegiten bada eztiya urtan; zergatik orduan au esnatzen eta loritzen (loditzen) da. — Saldu edo erosi bear bada esan diran ezti oetatik, ezti berria eskojitu bear da; zeren zaarra baldin bada ozpintzeko perilla du, eta beragatik ez du estimaziorik izango, eta erleak berak ere jan naiko ez dute.»

Horren berria eman dugu, oso arraroa dalako Liburu hau, eta txoil bi ale ezagun diralako; bata, Gipuzkoako Aldundegi-URQUIJO-Liburutegian, eta bestea nere eskuetan dagoena. — Beyala, duela urte parrasta bat, A. Lino AQUESOLO-k Boletín de Amigos del País Aldizkarian, Liburu honen beste etsenplario bat baote zenez galdegin zuan (Artxiboko alearen berria ematerakoan). — Bai, bada, eta hartarik artu ditugu azaldutako zehetasun horiek denak.

A. Irigaray

Maitasunezko Bertsu Zaharrak

Euskal Literatura laburra bada ere, autore izen gabekoen Elexahar eta Kantak, bai eta olerkari eredu batzuen kobla zaharrak, ardura eta garrantzi aundiko dira, yadanik Literatura ikasi batzuen pareko diranak. Egia hau egiztatu nai duenak irakurri behar lituke, Azkuen eta besteen Kantategiak, bai eta Barandiaran-en Euskal Folklore Orri ezagunak; zenbait liburutan bilduak. Irakurtze horiekin, erriko euskara jatorra ikasiko genuke. Liburu haietan datza gordea izkuntzaren kutsu garbia, eta yoskera ona.

Autore gabeko diran Olerki horiek, aise geiago aurkitzen dira Iparraldekoen artean, gurean baino. Beuren etxetan mendez mende gorde izan diran *Kaierak* deitu bildumatxo zaharretan. Halako batean aurkitu izan ditugu 1790 urte inguruko kobla zahar asko; Franziko jazarkundearen aldeko diranak, bai eta kontrakoak, amodiozkoak, gertakariak kondatzen dituztenak... Huna Dassance jaun adiskide ospatsuaren bidez eldu zaikun *kayeran* arkitu ditugun amodiozko batzu.

Honen doñuak, A. Donostiak lau gisetara ekartzen ditu, eta itzak ere, bere CACIONERO ttipian, baina eleak moztuak daude, eta gurean diferent eta osorik. 83-a eta 112-koa gure 10-a da; 115-a da gure 8-a eta 167-a, gure 7-a. Hona olerki osoa:

- 1 Orain hasten niz kantatzen, suyet hoyen deklaritzen
Bi presunen amodioaz munduia duzu mintzatzen
(Bis)
Heyen kantiak emanagatik ezdira hanbat lotsatzen.
- 2 Irissarri-co herrian abenduaren erdian
Escolier bat eritu dela fama (du) jenden artean (Bis)
Bere errientac sendatzeco biac diren lecuian.
- 3 Gaitzac hartu zienean jarri izan zen ohiean
Mandatariak ekarri zu(ie)n barbera pressa handian (Bis).
Errientari plazer eiteko bere lanzeta escuian..

- 4 Errient horrek ederki nola minzatzen baitaki
jaun barberari galdegin (dio) eri ote den bortizki
(Bis)
hilzera utzi gabe(ta)rik behar gitzazko jarraiki.
- 5 —Etxeko alaba zu, ire aire handian zirade
luma eta ancria(tinta) eskuian ungi paretzen zirade
(Bis)
izkribatzen ikastera ez zitela herabe.
- 6 Fortuna hon bat izan duzu jaun zerukoak emanik
Zeren igorri baiterautzu Errienta kitorik
Mundu guzia kurriturik etzinduk(ei)en hoberik
Ez eta karaktera ederragoa duenik.
- 7 Etxeko alaba noblia, begi ederren jabia
Errientari egiozu bazkalondoan kafea (Bis)
Hak ere zuri-inen dautzu ganberan Lekzionia.
- 8 Eskolier gaztea otoi emazu bai guardia
(jaun) errientak ixur ezdezan zure alzora ankria. (Bis)
Begira zazu tonatzetik zure taulier xuria.
- 9 Izkribätzen luzaz artzeak (aritzeak) berotzen du odola
Zenbait *aldi(to)*z yalgi lite aire hartzera leiora (Bis)
Enseia zaite egitera errientaren gogora
- 10 Zaia gorri bat pollitik Donostiako aldetik
Eskolierak soinean du moda berrian yosirik (Bis)
Jaun errientak emanen dako oraino ederxagorik.
- 11 Frantza ere jaun errientak erakutsiren d(era)zu.
atenzione emozu ikasi nahi baduzu
Zenbait hitz(etan) mintzo direla norbaitek ditu aditu
Batak —*que si*—, berzeak —*que non*— direla libertitu.
- 12 Emazte alargun eztia, nun duzu adimendua?
Hola konsentitzen duzu(ia) zure alaba maitia? (Bis)
Zu horren laxo izaitez estonatzen (da) munduia.
- 13 Munduiak dio goraki, ezda mintzo segeretki.
Zure alaba dihuru truku eman duzula se(g)urki (Bis)
Aunitz denbora gabe(ta)rik izanen duzu urriki.
- 14 Etxeko andria soeizu, atenzione emazu
Zure begira-faltaz malurrik gerta(tzen) (balin)bazautzu (Bis)
Jaungoikoaren aitzinean kondu eman behar duzu.

- 15 Zenbait aldiz bazindakien biren konseillu emaiten
 Gisa hortan zabiltzanez espantu frango egiten
 Orai hasi (da) zure alabaz munduya irri egiten
 Ikasi behar zinduke zuk ere ixil egoiten
- 16 Flakatu zautzu buruya, ttipitu izpirituya
 Debozionatean zir(ad)enean iduri (du)zu seinduya (Bis)
 Bainan beldur niz ez ziraden berze bat baino hobia.
- 17 Zeru(eta)ko Jinko jauna! zuri nuzu gomendatzen
 Neure behar-ordu oroz zugana laster e(g)iten
 humilki eta bihotz xahuz otoitz d(er)autzut egiten
 (Zure) ministrok ikas dezaten etsenplu honen emaiten.

Ondoko olerki minbera huntan, autere ez-ezagun baten bertsu min-
 duak irakurriko ditugu, apezgai tronpatu baten tristurak eta arrangurak
 adiarazirik.

- I Pena dut bihotzean ezdakit zer dudan,
 xangrinik baizen ezdut orai nik goguan (bis),
 ni bezin malurosik ote da munduan?
- II Etsaiak baditudala orai dut erraiten,
 Nik ezdiot bada, faltarik (...) egiten (bis)
 Opinionez orai gituzte yuyatzen.
- III Yuyamenduya dute faltsuki altxatzen,
 Orai seinditzen dizut jendea mintzatzen (bis)
 Eznutela ikusi uste, mezaren emaiten.
- IV Hori aditzeaz iduri poxoinua,
 meza ez emaiteko ler dut arrazoinua (bis)
 neskatillen alderat sobera arin oinua.
- V Mezaren emaiteko xedea badut nik
 Grazia ardiets baneza Jinkoaren ganik,
 Grazia ardiets baneza Jinkoaren ganik,
 Urrun ibil nindaite andre gaztetarik.
- VI Hutsak egintudala orai dut aitortzen
 Zuek ere bai naski hala erremarkatzen,
 Zuek ere bai naski hala erremarkatzen,
 Zeren zautan ondotik norbait jarraikitzen.

- VII Nik erran ditudanak munduak aditu
 Eta heien gainean kantuyak paratu,
 eta heien gainean kantuyak paratu,
 Bat erran balinbadut nik hamar aditu.
- VIII Ene adiskideak bai gureez besteak
 Etsai bihurtu zaizkit neure uste gutiak,
 Etsai bihurtu zaizkit neure uste gutiak,
 Ahaide adiskide bai eta kusiak.
- IX Izar ederrik duzu agertzen zeruian,
 Hala baitut sofritzen nik anitz munduian,
 hala baitut sofritzen nik anitz munduian,
 Agiān izanen niz hil eta zeruian.

Olerki honek edertasunez leku berezia merezi du; eta berehala oroit-arazten du OIHENART historiagile eta olerkari ospetsuaren kobra hura: ... *Gauik, egunik, ezdinat hunik, hirekin ezpaniz Argia, hireki ezpaniz hitsu hutsa niz, zeren bai hiz en-argia...*

Huna autore ezagun gabearena

- I Ene izarra, maite bakarra
 nolaz eznuzu entzuten?
 Ai! zure gorra, bihotz gogorra
 Krudelki nuzu tratatzen.
 Bego koléra, obyet ederra
 Has zaite eztiki mintzatzen.
- II Zer-in dautazu, aitor ezazu
 falsu ooren buruya?
 Maitatu zitut, erran derautzut
 garbiki neure berria.
 Zuk aldiz niri, trufa eta irri;
 Hori da ene paguya
- III Ezduzu uste, bana oroit-zite,
 menturaz dolu dukezu,
 nik bezain maite, segurta zite
 munduyan nehork ez zaitu.
 Kanbia zite, bana arren fite,
 Luzatuz gal nezakezu.

- IV Ene bihotza, zertan zabiltza
Estakuruyen xerkatzen?
Zuk niri erteko, dudan yartzeko,
Zer suyet dautzut emaiten?
Eznuzu maite, nayago nuke
Klarki bazine mintzatzen.
- V Nehork munduyan, bere izaitian
etzaitu hola maitatu;
Zure barnian, ene idurian
Zerbait hoztasun baduzu;
nik begiez keinu, eta ardura ohiau;
bena zu gor eta mutu.
- VI Ai! zer gogua, nere agudua,
hortaz zireya samurtu?
Errazu bada, bai eta ezpada,
bai behar deya trenkatu?
Ezniz samurtzen, deus ezdut erten,
Plazer duzuna egizu.

Ondoko hau emazteki gaixo baten zorigaitzak dira, zinez eta argiegi aitortuak, edertasunez eta biotzondoaz ongi ornituak.

- I Malurak yiten dira leku orotara
eta orai azkenik ene presunara,
Senar bat hartu nuien nik neure gogara,
eta zeruko jaunak joan deraut tonbara.
- II Orai konsolatzeko bi haur ditizut nik
Ontasunik aski ere Jinkoak emanik,
Ezdut deusen faltarik ez eta eskasik,
kuriros bazinete, maiteño bat baizik.
- III Gaztea nuzu (bai) eta segur alegera
mundu orok badaki hori hala dela,
Maite baten hartzeko orai dut denbora
Arranguren beldurrez eznaite mentura.
- IV Begitartez eder niz, begiz amultsia,
behatzera iduri dut arrosa gorria,
ungi beha zadazu, mutiko gaztia,
niri plazer —eiteko hori da bidia—.

- V Pentsaketa niagozu gau eta egun oroz,
neure maitearentzat dudan amodioz,
Orai dizut denbora hitza emaitzekoz
Edo behin betikotz erraiteko adioz.
- VI Hitz hunen erraiteko ez dizut suyetik,
Egundaino ezdut izan zu bezin maiterik,
Orai kitatzen zitut nik neure miitik,
Ez, ez, bizi nizano neure bihotzetik.

Beste hau dokumentua litake, Jauregi aundi bateko alabari gertatu gaitzak.

- I Arberatz jauregian filia ezkondu,
bertze bat behar dute nonbaitik xerkatu,
herrian zaie batño propirik agertu,
Paberat joaiteko parerikan ezdu.
- II Primaderia gabe lili hau loratu,
negiak ere arabez indarrak baditu,
Edo berzela dute zerbaitek berotu,
Lehen aitzintzen denak behar du gozatu.
- III Neskabila xarmant bat izarraren pare,
Ezdeia bada pena bai eta dolore!
Paberat yin izan da jaberikan gabe,
norbaitek harzazie hartaz pietate.
- IV Eguerritik pazkora denbora luzia,
arte hortan egon da trankilki maitia,
bainan primaderari lili bat agertu,
harekin ezkontzeko du erresolitu.
- V Propi izanagatik eta xarmagarri,
Ez zira izan behar sobera arinegi,
maitiak egin dautzu ainitz present zuri,
Zaude beti bijilant, tronpa ez zitzan sarri.
- VI Koliera-ren hartia ez zen ohoria
Zure herrian duzu zuk zure maitia,
Eman duzun hitzari eizu ohoria,
Edo erranen dute nun duzun sentzia.
- VII Arraportak daizute hunentzat ekarri
pullitagoño bati zira beha jarri,
azkeneko, berze bat aberatsa jalgi,
Trufatzen zaitzu oro, pensa zazu ungi.

- VIII Zure aita amentzat ezda ohoria
herriak jakin dezan zure bizitzia,
ken ezazu burutik otoi, ironia,
Zuri beha dagola hemengo jendia.
- IX Oren bezenbat maite, inkonstant drolia,
Ala senar nahuzu mundu hau guzia!!
Konsidera ezazu, hoi! ene maitia.
Kontramintzo zautzula hiriko jendia.
- X Beldur ez banintz hautsi zure ohoria
Koblaz ezar nezake nik zure bizia,
Bainan dautzut erraiten hitz batez egia,
Hobeki einen duzula herrirat joaitia.

Maitasun olerki hautaz aipatu beharra da orai berriki A. Onaindiak agertu euskal Liburu ederra (*Las 100 mejores Poesías de amor...*). Baina horietaz landa, kobla zahar eder geyago badirela, eztago zer esanik ere, bereziki paper eta *kaier* zaharretan.

PRESONDEGI ETA URKABEKO OLERKIAK

Odolezko gertakari latzgarrien koblak ekartzen ditugu orai, aspal-dian gertatuak eta kriminal berak kondatuak; besteak bezala, *kaier* horietan gordeak, orai arteo agian argitaratu gabeak.

SARA errian gertatua.

- I Behin batez gan nitzen Sarako bestarat
Egun hartarik eznaiz agertu etxerat
Oraino heldu zaizkit nigarra(k) begirat
Altxatua ninduten yada karzelerat.
- II Lagunekin soberaxko edanez goizetik
Sendimendua gan zen neure bihotzetik
Han hil nuen gizon bat ezdeusen gainetik
Ez dakit zer pasatu zitzaidan burutik.
- III Libro uzten banaute sekulan hemendik
eznaiz geyago igaren Azkaingo herritik
Arnorik ez yautsiko ene zintzurretik
Edanen dut basoka Larun-go uretik.
- IV Aita nuen gizon bat errespetatua
herriko gradoetan aspaldi sartua,
Ama gaixoa ere denez maitatua
oraixe nahi nuke hetaz barkatua.

V Neure lau haurrideak ez ditut aipatzen
ezditut ez gaixoak segurki ahanzten,
Oi! nahi nuke nitaz balire oroitzen
Bainan segur naiz heiek naute arnegatzen.

Huna orai urkatzeko dagoen miserable baten azken eleak... ber-
tsutan!

I Kantore berri batzu lastimagarriak
Karzelan dagoenak berak ezarriak,
Orai eman dauzkute azken abisuak
Galdu behar ditugula gure biziak.
Edekiren dauzkute gose egarriak.

II Hau da kalabozua ilun eta triste;
ni hemen nagoela baditu hirur urte,
Libratzerikan ere nik eznuyen uste,
Bozik pasa nitzake bestehonenbeste;
Azkeneko ordena orainxe eman daukute.

III Ikusten izan zeraut anaya gaztia
lastimatzen zuyela ene ikustiak;
nola ote dirade aita ama gaixoak?
ni ere lotsatzen nau biziaren galtziak,
eskarmenta balite ni baitan guziak!

IV Gaztigatu diot ere neure arrebari,
gomenda nazayola Ama birginari,
urkatzeko egunetan nagoela sarri,
gaixoak harturen daut pena harrigarri;
eznuyen nahi, baina beharko dut yarri.

V Yinkoaren aitzinean nik daukadan lotsa,
zeren egin ditudan hirur heriotza;
urkatu behar dudala aitudut hotsa;
Lau kuarto egin eta kentzeko bihotza,
Urkaberat bideko ariaren hotza!

VI Adi-os Nafarrua bai eta Franzia,
Aspaldion largorik daukak Valenzia,
Urkabehar dutala ukan dut sentenzia
Urkabera heleta kentzeko bizia,
Geroztik borrreruak badu lizenzia.

A. Irigaray. Kopiazalea.

SUGE-LILIA ⁽¹⁾

Zueri, ene Herriko mutil-zahar barne-zaurtueri (2)

Suge-liliak gorri bere ezpainak
bereganatzen ditik erlastinak (3)
Enganatu hu pozoñak
Lili ederño horrenak
Ala min ezin-jasanak
Bihotzian dituzkanak
Zohaz maitia zohaz othoi
Ez nadien zutaz orhoit.
Aments eder bat nuen egin bestela
Ainguru batekilan nindagola
Jin zitazkit hegal-perat
Har nezazu arimarat
Bidajian gohatzela
Izarretan dut etxola

Zohaz maitia zohaz othoi
Ez nadien zutaz orhoit.
Amentsa johan zira oi laster airian
Ainguria hegalka zurekilan
Hotz nuen iratzartzian
Sohalda (4) bien erdian
Goibela zeru-aldian
Izarrak ziren dolian

Zohaz maitia zohaz othoi
Ez nadien zutaz orhoit.
Trixterik da bizia bakartasunian
Kontsola ahal banintz edarian
Liliaren pozoñian
Hilik hobeko zukian
Ez egoiteko mundian
Orhoitzapenen ganian
Zohaz maitia zohaz othoi
Ez nadien zutaz orhoit.

Eñaut Etxamendi

(1) Suge-lilia = DIGITALE.

(2) Zaurtua = zauritua = blessé, saignant.

(3) Erlastina = Bourdon (mouche de gr. des hyménoptères).

(4) Sohaldia = epaule.

MAIATZ - LILIA

Hiri, ezin ahantzizko anaia.


Maiatz-lilia erradak norat jua diren elurrak
Othoi erradak nun diren dehengo nexkatx ederrak
Ote-lilia erradak nun diren lagun onak
Norat jua zaizkidan aments arinak
Nun othe diren lagunen arimak.

Maiatz-lilia erradak norat jua diren elurrak
Othoi erradak nun diren lehengo nexkatx ederrak
Izar urdin hik erradak nun diren irrintzinak
Eustakioren abesti dolamenak
Nun othe diren lagunen arimak.

Maiatz-lilia erradak norat jua diren elurrak
Othoi erradak nun diren lehengo irri gotorrek
Haizia hik erranzkidak mendien auheiminak
Eustakioren herresto peregrinak
Nun othe diren lagunen arimak.

Maiatz-lilia erradak norat jua diren elurrak
Othoi erradak nun diren oi lehengo ortzadarrak
Algorta errak Algorta haren hatsbehapena
Nigarrak odolez behatu huena
Errak norat iruan diok arima.

Eñaut Etxamendi



OMAR KHAYYAM'EN RUBAIYT'A

Omar Khayyam. — Persia'ko Naishapur irian jaió zan amaikagarren mendeko bigarren erdian, eta amabigarrenaren lenbiziko laurdenean il zan. Bere aita etxolarako eungintzan ari zan eta lanbide ortan asi zan eta lanbide ortan asi zan gure Omar ere, baiña gaztetantik Sufi ta jakintsuen artu-emanetan sartu ta laster mistika-gaiak eta matematikak elkartu naiean ikusten dugu. Badakigu Naishapur'en bizi izaneta il zala: «edozetariko jakintza beraganatzeko ari ta ari, ta, bereziki, lentasun oso goratura eldu zan izar-jakitean. Malik Shah'en Sultan— aldian Merv-era etorri zan eta bere jakintzaren aurrerapena zala ta ospe aundia beretu zuan, eta Sultan'ek mesedeak ugari isuri zituan aren gainean», bere aldiko ta adiskide zan Vizir'ak idatzi zuan bezela. Aljebra'zko ikasliburu itzalgarrí bat idatzi zuan; izarrizti-tegi zarrak arakatu zituan eta egutegia eraberritzea burutara eman zion Malik Shah Sultan'ari, lan ori aren ardura pean utzi ziona beste zazpi jakitun lagun zituala.

Aljebra-berdintzak argitzen edo ta izarrak azterkatzen ari ez zanean Omar Khayyam'ek ba-zuan beste jardun atsegiñago bat: poesia. 112 garren urtean il zaneko bosteun bat epigrama edo *rubaiak* utzi zituan laukotan eta berebiziko itz-erorkeratan idatziak. Aapaldiak berez-ber ziran geienetan, bakoitzak bere gogai tinko ta itxia zeukana. Baiña ba-daukate guziak ala edo ola elkartzen ditun lokarri bat, ots, filosofia arin bat, asko gogoratu gabe bizitzako atsegiñak gozatzeko dei zabala ta neurtitza ta ardoren ospatzea gai nagusitzat daukana.

Edward FitzGerald. — Omar il zan eta seireun urtez bere poesi lana ez ezaguna izan zan sarkaldeko mundurako. Edward FitzGerald, idazle inglesari egokitu zitzaion Persia'ko matematiku-olerkaria ele-ederraren gizon ospagarrien arteko batetzat goratzea. FitzGerald 1809 urtean jaió zan Bredfield House'n. Bere goi-ikasteak Cambridge'ko Trinity College' an egin zituan eta gero, ikasketa ta joan-etorri luzeak burutu ezkeró, Suffolk'eko errialdera baztertu zan oraiño gazte zala ta an gelditu zan bizikera alper, gozatsuan urte batzutan.

Berrogei ta amar urte zituala, FitzGerald'ek liburuxka bat argitara-

tu zuan «The Rubaiyat of Omar Khayamm», zeritzana, ots, olerkari persiatarraren bertsuak inglesezt emanak, baiña iñor gutxi ikasi zuan liburuxka aren berri. Urtebete geroago Swinburne ta Rosetti olerkariak poema ezagut-erazi zuten. Urte batzu geiago igaro ziran eta, bat batean «The Rubaiyat» poema begiko bat biurtu zan Inghaterran. Ortarako lagundu zion Biktoria Erregiñaren aldiko azaluskeri ta mintulinkeriaren aurkako matxinada baten adierazpidetzat balio izateak; baiña ba- zan berez au baiño askosaz geiago. Laurence Housman'ek ongi idatzi zuan bezela: «... as we read it, this fortunate paraphrase, so full of ease and grace, so supple in its diction, and its imagery, make us forget —as we never forget in reading a translation of Homer or Dante, however good— that it is a translation, and that we are listening at a far remove, to a school of thought much more alien in its mode of expression than the skilful artifice of this version allows us to feel FitzGerald, by his superlative tact, has done us the favour of deceiving us, making eather the East seem West, or the West seem East, in a sympathy of feeling which, at that time, had hardly begun to exist».

THE RUBAIYAT. —Ortxe dago Rubaiyat'en balioa. Bere filosofia Epikur eta Anakreont'en jarraile batena baiño geiago ez da; baiña filosofia ajola gutxi ematen digu emen. Bere itzulpenaz, FitzGerald'ek eder-lan gain-gaiñeko bat burutu zuan eta ori da aren irakurle guziak aintzat artu dutena. Ori dala ta espenak eta gaizki-esanak baiño zarragotu da poema ori; orregatik izan ditu eragin-indarra ta antzarleak; orregatik berrogei ta amar izkuntzatan itzulia ikusten dugu, ta orregatik gaur euskeratu dugu, gure mintzo zarrera Ederraren ur / bizia ekarri naiean.

FitzGerald'en «Rubaiyat»'en lenbiziko itzulpena irurogei ta amabost lauko baizik ez zeuzkan. Geroago, bere lana zabaldu ta laukoen antola bidea aldatu zuan. Erabide ohea laugarren argitaraldiak eskeintzen duela uste izaten da, geienetan, eta ari jarraitu diogu itzulpen ontan.

Edward Fitzgerald

OMAR KHAYYAM'en RUBAIYAT'a

I.

Atzarri! Eguzkiak aurretik izarrak
aizatuz Gau-Zelaitik baitzitun banatu,
eta aiekin batean Gaua daramala
Sultan'en Dorrea Argi-Gezi batez jo du.

II.

Eguantzeko dirdir motela il baiño len
Ostatuan Mintzo bat deika aditu nuan,
«Jauretxe barrena oso gertu dagolarik
Zergatik Jaureslea lokuluxka atean?

III.

Ta Oillarrak jotzen zula, Ostattu aurrean
zeudenek egin zuten ots: «Atea iriki!
«Ba-dakizu egotaldi laburra dugula
ta abiatu ezkerro . ezin dugu itzuli».

IV.

Orain Urte Berriak Nai Zarrak berpiztuz
Gogo ernaria Bakar- lekura ba- doa,
an Abarrean MOIS'EN ESKU ZURIA ari
da ernetzen, ta lurretik Jesus asperenka.

V.

Joana da Iram bere Larrosak ta guzti
eta Jamshyd'en Zazpi oboko Txola, non?
Baiña Ardoan Errubi bat gartzen da oraindik
ta Baratz asko dugu loretan Ur ondón.

VI.

Ta Dabi'ren ezpafiñak dira itxiak, baiña
jainkoko Pehlevi'ren mintzaira eztiz «Ardo,
Ardo, Ardo Gorri» ots dagio Urtxindorrek
Larrosari onen masail itsak gorritzeko.

VII.

Zatoz, bete Edontzia ta Udalea-sutara
Zure Damuzko Negu-jantzia jaurtazu:
Aldiaren Txoria egatzeko bide
laburra du ta egaka Txoria ba- duzu.

VIII.

Ontzitik naiz goxorik naiz mingots isuri,
dala Babilonia'n dala Naishapur'en,
Bizi-Ardoak tantaka dariola dirau
ta Bizi-Oriak, berriz, banaka eroritzen.

IX.

Milla Arrosa dakaz Goiz bakoitzak, diozu;
Bai, baiña Atzoko Arrosa non ari da ostotzen?
Eta Arrosa dakarren lenengo Uda il onek
Jamshyd eta Kaikobad ditu eramaten.

X.

Eraman ditzala, ba. Zer dugu ikusteko
Kaikobad Aundi'rekin edo Kaikhosru'kin?
Zal ta Rustum gudara ta Hatim Orrits'era
deika ari ditezela; ez jaramon egin.

XI.

Elkorretik alorra doi-doi bereizten dun
Belar bazter ontara etorri nirekin,
Sultan ta Jopu izenak aztuak dira emen
ta bego Mahmud bere urrezko Errege-aulkin!

XII.

Neurritz Liburu bato Abarraren pean,
eta Pitxar bat ardo ta Ogi bat eta Zu
nire ondoan abesten Basamortuan, o!
Basamortu soillena nuke Parabisu!

XIII.

Batzu Munduko Aintzak; ta batzu etortzeko
dan Igarle Baratza ba-ditugu irrikan;
Esku dirua ar zazu ta Arturena utzazu
urrungo Arratz otsari oarrik ez eman.

XIV.

Ikusi gure ondoan Arrosa kulunkan
parrirriz diola: «Ni mundun naiz loretzen;
laster nire Toxaren ziriko mortxilla
ausita aren Altxorra Baratzan da edatzen.»

XV.

Eta ez Urrezko Bia aurreztu dutenak,
ez ta ere, Euri bezela, dunak aizeratu,
ez dira Urre-auts biurtu; eortzizkero aiek
lurretik ilkitzeko iñork irrits ez du.

XVI.

Biotza jartzen dugun Mundu-Itxaropena
Errauts biurtzen da ala ondore ona dagi,
ta ordu bete edo bitan argituz ba-doa
Basa-Musu autsuan, Elur malo iduri.

XVII.

Gogoratu atarian Eguna ta Gaua
beti aldizka ditun Etxe baldar ontan,
Sultanak nola bizi ziran beren otsaz,
bakoitza bere ordutan, ta joan egin ziran.

XVIII.

Jamshyd'ek dist egin ta danga-danga edan zun
Gortetan Leoi-Muskerrak zaindari dituzu.
eta Bahram Eiztari Aundia Basatoak
oinkatzen baiña ezin itzartu.

XIX.

Uste dut ez dala ifnon Arrosa lorezen
Kaisar batek odoldu lurren bezain gorri;
Baratzeko Jakintu bakoitza bein eder
zan buru batetikan zitziola erori.

XX.

Ta gauden ibai bazter bere Orlegi
biguñaz jantzitzen dun Belar Gozatsuan
etzan zaitez emeki. Batek ez baidaki
agiri ez'dan zein Ezpain edertik sortu zan.

XXI

Ene Maitea, lengo Miñez ta Geroko
Beldurrez GAUR garbitzen dun Ontzia bete;
BIAR! Bai zera! Biar, Nekau, bear-bada
Atzoko Zazpi Milla Urtekin nagoke.

XXII.

Izan ere, guk maite genitun obeak
Aldi itzulikariak masbildu ditunak,
Ontzia lentxeago edan eta banaka
ta isil atsedetera ditugu joanak.

XXIII.

Eta aiek utzi Gelan Udak lore berriz
jantzitakoan orain geranok jostatzen,
Lur-ogera bearrak gera an egiteko
beste lur oge bat ta au, norentzat izanen?

XXIV.

Kea atera dezagun al dugun artean,
Auts'era beratzeko ordua jo arte;
Autsa Autsera bear da etzatea Auts pean
Ardo gabe ta Abesti gabe ta Amai gabe!

XXV.

Orobat GAUR'ko atontzen ari diranentzat,
ta daudenentzat BIAR'ari begiratzen
Muezzin batek ots dagi Illunpe Dorretik
«Ergelok, zuen sari ez dago An ez emen».

XXVI.

Eta ainbeste zugurtzaz bi Mundu'ez ari
izan ziran Santu ta Jakintsu guziak,
astanduak dituzu, Sasi-Igarle iduri,
ta Itzak ta Aoak uxatu ta itxiak.

XXVII.

Gaztea nintzalarik ibillia nauzu
jakin-miñez Santu ta Irakasle arten
ta entzutekoa entzun dut au eta ari buruz,
baiña beti sar nintzan atetik naiz irten.

XXVIII.

Aiekin Jakintzaren azia erein nuan
ta neronen eskuaz landu ura aunditzeko;
ta auxe duzute bildu nun uzta guzia:
«Ura antzo etorri nintzan, ta joan Aizea antzo.»

XXIX.

Ez ZERGATIK ez NONDIK jakin gabe mundun
sarturik, nai ta nai ez dabillan ura lez,
Aizea Eremuan zear bezela irtetzen naiz,
NORANTZ ez dakidala, puzka nai ta nai ez.

XXX.

Ta niri galdetzeke, INONDIK onara?
ta galdetzeke, berriz, emendik INORA?
Oi, Ontzi asko gebendu ardo edan bear
itotzeko ausarkeri orren oroipena!

XXXI.

Lurbira erditik Zazpigarren Ate zear
jeiki naiz ta Saturnun aulkian eseri,
Bidean korapillo asko askatu ditut;
baiña ez Giza-Izangoaren Korapillo nausi.

XXXII.

An dago Giltza arkitu ez nion Atea;
guzia estaltzen zidan Estalkaia an dago:
NItzaz ta ZUtaz zerbait mintzatzen entzun zan
... eta ezer ere ez ZUtaz eta NItzaz gero.

XXXIII.

Lurrak ezin erantzun; ez Jainkoak aztu
eta purpura negar dagin Itxasoak,
ez bere Zantzuakin Gabak eta Goizak
itzal ta agertzen ditun Ortze itzulkariak.

XXXIV.

Gero Estalkai ostean, eten gabe ari dan
ZU NIGAN'eri eskatu nion Kriseillua
aizaroan bidea billatzeko; ta entzun
nun kanpotik bezela: «NI ZUGAN ITXUA».

XXXV.

Eta gero lurrezko Kutxako ezpaina
nintzan, nire Bizitza-Zadorra ikasteko:
Eta Ezpainez-Ezpain, ark: «Bizi zeraifio, edan;
il ezkeru ez baitzera ifioiz itzuliko».

XXXVI.

Uste dut mintzoera susmurtiz erantzun
zun Edontzia, bizi zala bein eta edan
egin zula; ta musu egin nion Ezpain
sorgor a musu asko artu zula ta eman!

XXXVII.

Oroitzen bainaiz geldi nintzala bidean
ikusteko Eltzegiñak Buztiña zanpatzen,
eta onek Mingain lotuz marmaratzen zion:
«Goxo-goxo, Anai ori, goxo-goxo, arren».

XXXVIII.

Ta ixtori au ez al dugu Gizon Zarragandik
belaunaldien zear gugana etorria,
arako Irazaleak bein Gizon eredu-
ontzian jaurtitako lur zokor arena?

XXXIX.

Ta Lurrak edan dezan gure Ontzitik jaurti
dugun tantarik ez da lur pera irristuko
an barne-barnean ta aspaldi luzetik
estaldu Begi baten Larri-sua iltzeko.

XL.

Idibiotza bere goiz-zurruterako
Zeru-maspiltzeari zain dagon bezela,
orixe egin ezazu, Zeruak Lurrerantz
iraul zaitzan artean, Ontzi utsa antzera.

XLI.

Ez kezkatu geiago Gizon naiz Jainkoaz,
Geroaren naspilla aizetara eman,
eta zure beatzak galdu itzazu Ardo-
ekarle lerdenaren ille- mototsetan.

XLII.

Ta edan duzun Ardoa ta ertsi Ezpaina, oro asi
ta amaitzen dan lekuan ba'dira bukatzen;
Gogora GAUR zerala izan ziñana ATZO,
ta ez zerala gutxigo BIAR ere izanen.

XLIII.

Ardo beltza edaraten digun Aingeruak
azkenik ibaiaren ertzean zu arkitu
ta Ontzia luzatuko dizunean, edan
gogoz ondarreraiño, Ezpaina ez kikildu.

XLIV.

Gogoak Autsa al ba'du beragandik jaurti
ta billutsik Zeruko Aize-zear joan,
ez litzake beretzat lotsagarri izango
erball lotzea buztin —ezurruts onetan?

XLV.

Sultan batek Eriotz-errirako bidez
egun batez atsartzen dun Aterpe baiño
ez da au. Sultan ba- doa ta Ferrash belunak
adelatzen du beste Arrotz batendako.

XLVI.

Ta ez beldurtu Izateak, gu bion kontuak
garbituzkero antzeko ez dala ezautuko;
Betiko Saki'k Ontzi ortatik gu lako
amaika anpulo isuri ditu ta isuriko.

XLVII.

Zu ta biok Estalkai beltza igarozkero
oi, Munduak luzaro, luzaro dirauke,
gure Etortze ta irteaz ardura artzen dula
Itxasoak legartxo batez bezelaxe.

XLVIII.

Aidako ekuraldia, —Mortu zabaleko
Osifian IZATETIK txastatze laburra—
ta Begiraz ametsezko Karabana irten zan
EZER EZ'erantz doa— Oi, egin lasterka!

XLIX.

Ta ZADOR orren billa xautuko zenuke
zure Izate-izpi ori? Ikasi lastertzen!
Ille batek Egia ta Gezurra ditu
bereizten ta Bizia, nundik da isekitzen?

L.

Ille batek Egi ta Gezurra bereizten
ditu; Bai, ta A uts bat naiko gidari zenuke
—arkitu ba'zeneza Altxor etxerako,
bai ta, noski, NAGUSI JAUNA'rentzako ere.

LI.

Onen Ageri isillak, Izadi-zaiñetan
zear laster egiñaz, zillarbiziduri,
iges egiten dizu; tankerak oro artuz
ta auek aldatzen ta iltzen dira; Ark dirau bert:

LII.

Une batez igarri, eta gero Drama
itzul-iraulka ari dan Illunan murgildu;
artan Betikoaren jostaketarako
Berak asma ta antzestu ta so egiten du.

LIII.

Baiña baldin alperrik Lur gogor azpira
ta Zeruko ate itxira so egiten ba'dizu
GAUR Zu Zu zeralarik nola egiteko
BIAR Zu geiago izan ez zaitezenean Zu?

LIV.

Ez eman zure Ordua jakiteko Au ta Ori
alperrik alegiñak egiñez ezbaika;
Obe da poztutzea Mats joriarekin
ez goibeltzea baizik Ale uts baten billa.

LV.

Ba-dakizu, laguna, nolako jaiakin
egin nun nire etxean Bigarren Ezkontza;
nire ogetik Gogamen antzua zapuztu
nun eta Mats-Alaba artu ezkontidetzat.

LVI.

«Ba-da» ta «ez-da» Legeaz ta Arauaz xeatzen
ditut bidezki, bai ta «Gora ta Bera» ere,
ta aztatzeko alegindu naizen gai artean
ezertan barrendu ez naiz Ardoan beste.

LVII.

Baiña nire kontuek Urtea zenbatze
obera ekarri ei dute. Ez orrelakorik,
Egutegitik jaio gabeko Biar ta
Atzo illa idokitzea baizik ez zan ori.

LVIII.

Eta oraintsu Ostatuko Ate zabaletik
Illunpearen zear dirditsu etorri zan
Aingeru bat sorbaldan Ontzi bat zeukala
eta artatik eskeifi zidan; ta Matsa zan.

LIX.

Irurogei ta Amabi Targo okerre aurka,
lojika osoaz egin dezaieken Matsa.
Begi-kliskan Bizitza onen beruna Urre
biurtu dezakean Alkimista Aundia.

LX.

Mahmud altsua Allah'en arnasa artzen duna,
Gogoa kutsarazten duten Beldur-Miñen
Gudarozte siñeste-oket, beltz guztia
bere Ezpata itzulbiraz duna banandutzen.

LXI.

Mama au Jaungoikoaren emaitza izanik, nork
birautu mats-amua, Sare bat bailitzan?
Goi-esker bat bezela artu bear dugu,
Zigor ba'litzakigu, Nork jarri digu, ba, an?

LXII.

Bizi-gantzukari au zapuztu bear dut
sifisten dugun Azken-kontuan beldurrez,
edo Auts biurtzean— Ontzia, Edari
Jainkozkoago batez betatutzeko ustez?

LXIII.

O, Inpernuko zemaia ta Zeruko usteak!
Gauza bat egi dugu: Bizitza iges doa;
Gauza bat egi dugu, gaiñekoa Gezur:
garatu zan lorea betikotz iltzen da.

LXIV.

Aundia da! gu baiño len Ate illun zear
igaro ziran aleun gogoen artetik,
bat ez dator Bidearen berri ematera
ta jakiteko ibilli bear dugu artatik.

LXV.

Beñola, Igarle antzo, sutan bizi ziran
Elizkoi ta Ikasien ageriak oro
ez dira ametsak baiño; Lotatik esnatu
lagunai esan eta Lotara berriro.

LXVI.

Ikus-eziñan zear Arima igorri nun
Bizi osteko idazkiren bat agertu naiz;
ta ene Gogoa laster itzuli zitzaidan
ta erantzun zidan: «Zeru ta Inpernu Nerau naiz».

LXVII.

Zeru Nai betearen Ikuspena duzu,
ta Inpernu sutan dagon Gogoaren Itzala,
gerok onen berandu sortu ta onen laster
itzaliko geraden Illunan jaurtia.

LXVIII.

Ikusgaiaren Jaunak gauerditan daukan
Eguzkizko Krisellu onen inguruka
joan eta etortzen ari diran Amets-Itzal
errenkada igikor bat besterik ez gera.

LXIX.

Gau eta Egunen Dama-joku onen gaiñean
ura ari dan jokoan jostailu utsak gaitu;
ara ta ona igitzen tu, biltzen eta banatzen
eta banaka Kutxan berriz uzten ditu.

LXX.

Birloa ez dabil Bai'a ta Ez'a galdekatzen,
ta Ara ta Ona ba-doa, Jokariak nora,
jotzen dun; ta Landara zu jaurti zaitunak
ba-daki guzia, bai, BERAK, daki, BERAK.

LXXI.

Idatzi egiten du Beatz igikorrak
ta idatzirik darrai; ta ez zute Antzeaz, ez
zure Ontsez Lerro bat ez duzu ezabatuko,
ez itz bat kenduko ere Negarraren bidez.

LXXII.

Ta aren azpian narraz bizi ta iltzen geran
Zeru diotsaten ontzi irauli orri
ez goratu eskuak laguntza eske; zu ta
ni bezain al-gabea baita itzulika ari.

LXXIII.

Lenbiziko Buztñaz Gizona oretu zan,
bai eta an erein Azken zituko Azia:
ta Izadiko len-Goizan idatzi zan Azken
Kontuen Egunean irakurtzekoa.

LXXIV.

ATZO'k Gaurko Erasuna prestatu zun eta
BIAR'ko Isilla, Etsia naiz Gurenda: Edazu!
ez nondik ez zertako etorria zeran
ez nora jotzekoa ere ez baitakizu.

LXXVII.

Ta au ba-dakit: Egizko Argiak sutatzen
ba'nau maitasunez naiz sumiñez jo osoro,
Tabernan artutako aren dirdira bat
oberdut Jauretxean dana galdu baiño.

LXXVIII.

Zer! Deusez sorgorretik sentikor dan Zerbait
sor- erazi zigelli ez dan Atsegiñaren
uztarria ikusteko, betiko zigorran
neke pean, legea baldin ba'du austen?

LXXIX.

Mailleguz artu diru satsu orren orde
urre utza eman bear du Sorkari malderrak?
Egin ez eta erantzun ezin diogun Zor bat
dala ta Auzitaratu, au ar-eman txarra!

LXXX.

O, Zu noraezean joan bear dudan
bidea artez ta zuloz ingura duzuna;
Sareratuko ez nauzu Autatu-Gaitz batez
ta gero Pekatu'tzat jo nire Erorpena?

LXXXI.

©, Zu Gizona Buztin zitalenaz egin
ta Parabisun jarri diozuna Suge:
Giza-aurpegia beltzen duten Uts guzien
barkapena eman ari —ta Zuk artu erel

LXXXII.

Egun illurrenaren estalki azpian
Ramazan gosekilla labaintzen zalarik,
Eltzegillearenean, Buztiñezko Itxuran
artean geldi nintzan berriro bakarrik.

LXXXIII.

Guzitariko Itxurak, aundi ta txikiak
lur gaiñean eta orma aldean zeudenak;
eta ba-ziran zenbait Ontzi berritsu ta
zenbait entzun bai, baiña itz ez zegitenak.

LXXXIV.

Eta aietako batek esan zun: «Ziurki,
nire gaia ez da alperrik Lurretik artu ta
Eredu ontan egiña ausia izateko
edo ta oiñazpituz Lur biurtzeko ostera.

LXXXV.

Eta ordun beste batek: «Mutil saputz batek
ez du ausiko bein pozik edan zun Kaikua;
ta bere eskuz Ontzia egin dunak ez du
geroko Sumiñean ezereztuko ura».

LXXXVI.

Isilalditxo baten ondoren, itxura
arruntagoko Ontzi bat ola mintzatu zan;
«Okerra naizela ta isekatzen naute;
egin niñun Eskua dardarka ari al zan».

LXXXVII.

Oni, Bilduma itzontzi artako Norbaitek
Sufi-eltzeto batek edo- sumindu ta,
«Eltze ta Eltzegilleaz guzi au Esaidak,
Eltzegillea nor duk eta nor Eltzea?».

LXXXVIII.

Beste batek: «Ba-dira mintzatzen diranak
egitean maskildu zitun Eltzeeri
Inpernu bat eskaintzen dien norbaitetzaz.
Ba! Lagun on dugu Ura, dana irtengo da ongi».

LXXXIX.

Ta beste batek: «Norknai egin edo erosi,
Buztina legortu zait Aztutze onen luzez:
Baia bete nazazu Ardo lagun zarraz,
la lengoratuko naiz lastertxe, nire ustez».

XC.

Ontziak banaka ola egiten zutela
Ilberria zeukaten izketa adiketan;
ta gero elkarri bultza zioten: «Anai, Anai!
entzun Soinkariaren lepo-ugela irringan!».

XCI.

A, Matsaz nire Bizi belaxka zuzpeltu
ta Bizia il da gero Gorputz au ikuzi;
ta Orri biziz estali, eta Baratzeko
bazter bakar batean nazazute jarri.

XCII.

Nire errauts eortziak ere, Mats-sare bat
antzo jaurti eta utzi ditezela aizetan,
Siñesle zintzoa andik igarotzen dala
ez dezaten atzitu oartu gabeen.

XCIII.

Luze maite izan nitun Sasi-jainkoek gaitz
aundia egin didate, bai, Mundu-begitan;
nire Aintza ito egin dute Txol azal batean,
ta nire Ospea saldu Kantu ordainetan.

XCIV.

Maiz, bai, Burua ontzea zin egin nun, baiña
zin egitean nire senean negon ni?
Udaberri etorri ta, Larrosak eskuan,
nire Damu zurdatzaz egin nuan zati.

XCV.

Ta Ardoak Siñesgabe iduri eragin
ba'nau ta Omen-jantzia kendu ba'dit ere,
Saltzen dun gaiarekin alderatzekorik
Ardolariak ezer erosi lezake?

XCVI.

Baiña, ai! Udaberri ori Arrosaz il bear,
ta Gazte-usaiñeko esku-idatzi ori itxiko
ta abarretan abesten zun Urretxindorra
nondik ta nora egazka joan dan, nork esango?

XCVII.

Eremuak emango ba'lu Iturriaren
agerraldi bat, naiz ta illun-milluna izan,
artara Bidekari auldua jauzteko
belar ostikatua jauzi oi dan eran!

XCVIII.

Aingeru egadun batek, berandu baiño len,
Alabear-Idazti zabaldua geldit-
erazi ba'lezake ta Idazlari latzak
bestela idatzi zezan ala ezaba osoki.

XCIX.

Al ba'genu, Maite, Ura laguntzat dugula,
Gauzaen asmo larri onetzaz jabetu,
osoro zatituko genuke ta gero
gure biotz-erara berriz ura asmatu...

C.

Berriro gure billa datorren Ilgora
zenbat aldiz berri ta zartuko da oraindik?
Zenbat aldiz, goratuz, gure billa etorko
Baratz ontan zear ta *baten* billa alperrik?

CI.

Ta ura bezela, o Saki, Belarren gaiñean
banatu illobi artetik pozik zoazela,
Bat egin nun lekura el zitezenean
jarri zazu aoz-bera zure Edontzi utsa!

Bingen Ametzaga

Requiem Altuberen Arauei

Aurtengo abenduaren lehen gauean, ez dakit amets ala zorabio, zer gertatu den enegan. Liburutegi batean entzun itzaldiak, libro bilakatu bait nau.

Izlari, aita Villasante.

Gaia, Altube zenaren «Erderismos» deritzan liburuaren bigarren aldiko erakuspen solemnea.

Jauntto guziek bezala, bat-batean, azkenaren ukitu otza, igurtzi ilkorra sentitu izan dute, izlariaren epaien arabera, arako Sintaxis lege estu xamar aiek ere.

Eta brast! eroria izan baita behin eta betiko elementu Inkiridu zelako jauntto nabusi ori, anker alako ori, ...euskal-idazleak oro amnistia delakoaren kapa zabal amultsuaren azpian babestuak izan dira. Idazle-kumok ere bai.

Lege aiek, begoz izkribatzaillean eremu zabaletik urrun. Ez dago kio iñori, Altuberi ere noski, gure askatasun-joera txikerrenik ere, galazterik.

Begoz aren lege estuok baserritarrentzat, arrantzaleentzat, jende arruntarentzat... nahi baldin badituzte.

Kolokialentzat... soillik.

Elkarri itzegiten eta bestetan ez dakitenentzat, bereziki.

Eta bertsolariantzat ere bai, aurki. Poto egiten ez dakitenentzat.

Orraitio, euskal-idazleentzat eta potto egiten dakiten bertsolaritzat, oientzat, askatasuna ta aukeramena bitez nagusi, idazte orduan eta kantatze-garaian.

Izkribatzaille euskaldunekin batean, betorz bertso aldrebesak egiten dituztenak, eta bertsolari potodunak (kontuz, inprenta-gizon!). Oiek gurekin libro, aske, aukerako izanen baitira, txoriak aidean bezala. Jadantik libro geure buruok, libra ditzagun idalezkideenak ere.

—Behera elementu inkiridua!

—Behera betiko!

—Gramatikeriak duen infernuko ondarrataraiño!!!

Eta Altube maixua zenarekin batean, oni burua argitu ta bidea erakutsi zion Azkue bera ere, galdera-erantzun taxua klarki ikusi ta exponitu zuena ere: ta Txomin Agirre garbizalea, Arrue maixu giputza, Eguskitza purista, «Orixo» urduria, Orkaiztegi gotorra, «Otxolua» estilista euskalduna, Zinkunegi miriku ta orazio subordinatuen masoia, argiña... Oiek zuten kopeta! Altubek dei eta aren aurretik eta ostetik, lege estuok guri, urrengo txorikumeoi ezarteko izan zuten ausardiagatik. Iñorante izugarriak, ainbat eta ainbat izkribatzaillek erabilli ez zuten erreminta ta artu ez zuten bideez barna jardun beharreko izandako gizon garun ttipikook!

Aize berria naro betor gure birietara, askatasuna adimenera, aukeramena egatsetara. Elementu Inkiridu ori zerraldo bilakatu baita, ondarea banatzeko tenorean gagoz. Luma zaharrek luma bezain arin bihur bitez, pixurik gabe; itzak aiña libro ta airos. Ez da legerik pentsatze-orduan; ez da legerik ez trabarik ordena kontuan ere, idazte-orduan. Laissez faire, laissez passer, le monde va de lui même.

Inkiridu zen nagusi anker orrek, arau bakar, zehatz eta bürua zuen. Jadantik, ez da araurik batere. Zeiñek sentitzen du, inkiridu orren eragiña ta pixua, geroztik? Ori... kolokialak senti bezate, jende arruntek, baserritarrek. Eskritore baskoak ez dute zertan sentitu.

Au pixua kendu duguna! Au bai kendu dudana pixua! Idazten asi giñenik aurtengo abendu santu onetararte, lege astunaren azpian makurturik ari izan gara. Egun, astindu, lorrindu ta lurrera bota dut uztarri astun ori. Grabedadearen indarrak... leizean barna, beheak beheara eramana du... gramatikarien infernuraiño.

Aitari beti entzuna, amari beti entzuna, aitona-amonei, osaba-izebei orobat, bai, ona daiteke... errijende arruntaz mintzatzean. Bertsolari jatorrekin aritzean ere. Gaiñerakoan...

Bertsolari potozaleekin mintzatzeko, ez da premiñazko. Ez eta auntz-enderakoekin jarduteko ere. Eta, jakina, idazteko ere ez.

Beraz, arauok irindu eta birrinduak izan direnez gero, aprobaz saia gaiten, bideberri lasai ta aukerako ortan! Bestelako bete ezifia genduan lehen! Orain, dena errez, dena aizuz.

Lehen saioa.—Orazio laburra ar dezagun: aita etxean da. Aita da etxean. Etxean da aita. Aita da etxean (Guzi oiek zaharkitu sunda dute, egitan). Da etxean aita (Kontxo! auxe bai idazle estilizatuarena). Da aita etxean (Eureka...!).

Orra ba, lehengo pausua: iru itz izan eta, sei esanmodu. Bat, bi, iru: faktorial 3! (3.2.1.) = 6.

Bigarren saioa.—Arnas luzeagoko esaldia behar. Auxe: Nun dabil aitaren txakurra? Atera dezagun formula delakoa: faktorial 4! (4.3.2.1.)

= 24. Ene ba! 24 modu ditugu onetarako. Asi gaintezen geure saillean.

Nun dabil aitaren txakurra?

Nun dabil txakurra aitaren? (Errefrau zaharra dirudi)

Nun aitaren dabil txakurra?

Nun aitaren txakurra dabil?

Nun txakurra aitaren dabil?

Nun txakurra dabil aitaren?

Bertsuak dirudite, baiña ez dira bertsuak. Agian, aldrebesak.

Dabil nun aitaren txakurra?

Dabil nun txakurra aitaren? (Au duk estilistaren airea!)

Dabil aitaren txakurra nun?

Dabil txakurra nun aitaren?

Dabil txakurra aitaren nun? (Zerean... aipatzeko ere?)

Dabil aitaren nun txakurra?

Jeurt-egin, ta beioa beste sasi-ahapaldi bat, aldrebesa noski.

Aitaren nun dabil txakurra?

Aitaren nun txakurra dabil?

Aitaren dabil nun txakurra?

Aitaren dabil txakurra nun?

Aitaren txakurra nun dabil? (Atsegiña belarrientzat, e?)

Aitaren txakurra dabil, nun?

Peillo Joxepe, bihotzekoa... bota emeretzigarrena!

Txakurra nun dabil aitaren?

Txakurra aitaren nun dabil?

Txakurra nun aitaren dabil?

Txakurra aitaren nun dabil?

Txakurra dabil nun aitaren?

Txakurra dabil aitaren nun?

Sintaxis anderearen Inkiridu seme arroa il duk! Bizi bedi illa!
Bertsuen-orde, auek dituk askatasun-kantak!

Saioak, ez dira, ordea, bukatu, ta are arnasa luzeagokoaz jardun beharko. Esperientziarik zoragarriena auxe dut euskal-idazlekuntzan. Hatxis eta marijuana gozoagorik!...

Esaterako, Altubek berak, azken-artikulu batean erabilia. «Debozioa zer den jakin gabez». Faktorial 5! (5.4.3.2.1) = 120 taxu ta itzurren, oker ez baldin bagagoz. Elorrioak ditugu! Esaldi au esateko, 120 modu izanik. Saia gaitean, saia, nahiz-eta Altubek eman erregelak baiño nekatsugo ta illunago gertatu. Ez ere!

Debozioa zer den jakin gabez.
Debozioa zer den gabez jakin.
Debozioa zer gabez jakin den.
Debozioa zer jakin den gabez.
Debozioa zer gabez den jakin.
Debozioa zer jakin gabez den.
Debozioa den zer gabez jakin.
Debozioa den zer jakin gabez.
Debozioa den gabez zer jakin.
Debozioa dan gabez jakin zer.
Debozioa den jakin zer gabez.
Debozioa den jakin gabez zer.
Debozioa gabez zer den jakin.
Debozioa gabez zer jakin den.
Debozioa gabez den zer jakin.
Debozioa gabez den jakin zer.
Debozioa gabez jakin zer den.
Debozioa gabez jakin den zer.
Debozioa jakin zer den gabez.
Debozioa jakin zer gabez den.
Debozioa jakin den zer gabez.
Debozioa jakin den gabez zer.
Debozioa jakin gabez zer den.
Debozioa jakin gabez den zer.

Aski ez ote da debozioaz? Orain, «zer» itzak du aldi.

Zer debozioa den jakin gabez.
Zer debozioa den gabez jakin.
Zer debozioa gabez...

Eta olaxe, 24 lerro eginarte. Utz diezaiogun arlo oni, irakurlea asper-asper ez dadin.

Den debozioa zer gabez jakin.
Den debozioa zer jakin gabez.
Den debozioa gabez zer jakin...

Ta jarrai ezazu lan ontan, beste 21 tankera aurkitu arte. Eta azkenik, beste talde bi ditugu oraindio; talde batekoak, 24 oiek ere, gabez astekoak, onelatsu:

Gabez debozioa zer den jakin.

Gabez debozioa zer jakin den... eta beste 22 forma gehiago.

Jakin itzez astekoak, buruenik:

Jakin debozioa zer den gabez.


Jakin zer gabez den debozioa...

Eta abar, eta abar. Ametsen ametsezko askatasuna den eder! Araurik gabe, Inkiriduez libro, urre-aro berria asi da euskal-izkribatzailleen erresuman... 1975 garren urteko Abenduaren lehenengo egunetik!

Eskerrik asko, jauna.

Eusebio Erkiaga

Bilbon, 1975 abenduan.



Hirustak Hosto bi Baino ez Zituen

Arraultzetatik artean xoririk ez zen jaio, eta hirustak hosto bi baino ez zituen; aspaldi baino lehenago beraz, zeru honetan eguzkia, ilargia eta ludi itsusi hau bizi ziren.

Eguzkia eta ilargia sarri etortzen ziren ludi honetara. Udara, Motrikun, zazpi plaietako arroken atzean zitaten ziren han biluzik bainatzeko. Eguzkiak haize errotak baino beso luzeagoak ateratzen zituen, eta mila beso hauk helizearen modura jiratuz igeri egiten zuen. Ilargiari beso hauen indarra eta kresala gustoa atsegin zitzaion.

Ilargia bareagoa zen eta tiburoi baten gaineko hegala zirudien, ura ebakiaz hilbera zegoenean, hain eder, hain eder, morokil bat zeritzaion eguzkiari itsasoko menbriloaren gainean. Eta inoiz uretara murgildurik ilargia ateratzen ez zenean, eguzkia tristaturik gelditzen zen itsas ertzeko olatuei begira.

Hurrengotan ere, oroitzapen hauek eraginda edo beha lainozko maindira xuriak egun sentian ohetik kendu eta badaezpada Saturraran aldetik agertzen zen. Hango harkaitzetan bere bizar gorri luzeak afeitatu eta Zumaiako plaian aurpegia garbitzen zuen, ea ilargia ikusten zuen.

Ilargia ordea farrandera samarra zen eta noiz behinka bakarrik tokatzen ziren paseatzeko moduan. Gau askotan bilatzen zituen izar apurrekin goillareak egin eta artizarren hautsekin makil latzen pasatzen zituen gauak, hibai eta aintziretako ur geldietan betiere azken ikuitu koketoak emanaz.

Neguak hotza zekarrenean lainozko bufanda grisetan arropatu eta paseatzera ateratzen ziren. Iratiko basoetan zehar igual, eguzkiari bere bufanda grisa edo bizar gorria gatigatzen zitzaion hango adaburu hostogabeetan. Hala ilargiak nigar egiten zuen Baztango zelai guziak intzetan blai eginaz. Orduan Iratiko zuhaitzak, manifestazio batetan bezala mugitzen hasi eta haien arnas beroak hego haizea egiten zuten. Eguzkia libratu eta lainoak ihes joaten ziren agur agur eginez, painuelo xuriak bezala.

Hala aise abiatzen ziren biak Pirineo mendien gaindik noizean behin puntarik altuenetako edurrezko poloak txupatzeko geldituz.

Denbora joan eta denbora etorri eta hanbat paseo ederren buruan, eguzkia ere ilargiarekin amurusten hasi zen. Inoiz eguzkiak ilargia afaltzera gomitatzen zuen. Zeruko izar guztiak piztu. Ludia erromako zubiz estali. Trumoioren orkesta Urbasa gainean jarri eta ximistak sikodelikoki ateratzen ziren. Txindoki baino tarta altuagoak jaten zituzten. Bidasoak ardoa, Urumeak sagardoa eta Urolak xanpaina zekarren.

Eguzkiak amasadora batek bezala tragatu eta euskal hibaiak hondoa jo arte edaten zuen.

Afaloste hauetan ilargiari begiratzuz, amodioaren erreka, presa baten indarrez biltzen zitzaion bihotzaren kontra.

Ordea ilargiarekin ligatzeko formulen bila abiatzen zenean, kokotean zeraman ideien fila indioa laburtu egiten zitzaion eta lore bat botatzeko ere behar den, ideian joko arruntenak enredatu egiten zuen.

Azkenik bere fuertea indarra zeyakoan: —«Begira, begira zenbat indar dudan»— eta artizarrik handiena harrikadan jaurtitzen zuen, bestaldeko zeru ertzeraino. Ilargia eta ludia bera ere txundituta gelditzen ziren; eguzkiak —jua, jua jua,— farre egiten zuelarik.

Ilargia guapa izateaz gainera azkarregia zen galanteria hauekin engainatzeko eta ez zion okazio tipiengatik ematen harremanetan sartzeko.

Ludia osteran hanbat harri, ur eta lurrekin itsusia zen eta grazi ga-bea. Eguzkiak behin probatzeko mosu batzuk eman zizkion, hain fuertean ezan ludiari desertu batzuk atera zitzaizkion kutisean eta orlutik eguzkia bera mantxa batzukin gelditu zen.

Ilargiak hargaitik ez zion zelorik agertu. Aurpegi zabal zurbila zuen. Ezkoz eta eztiz egina zen. Begi ederreko eta rubia. Imintzio finak eta molde estudiantuak zituen. Gorputz espresio bakoitzari taxu eme eta seksi bat ezartzen zion.

Eguzkiak zelatan, disimulo handienaz begiratzeko zion batzutan eta nerbioz jartzen zen.

Behinola gogaitua eta ia haserre eguzkiak bidera ateratzea pentsatu zuen. Ilargiaz topo egitean honela esan zion: —«Kaixo ilargi. Erotu baino lehen mosu mat eman behar dinat».

—«Ez, ez, ez» —erantzun zion ilargiak. «Ezkoz eta eztiz egina nauk eta ikuitzen ba nauk, urtu egingo nindukek»—.

—«Benga, benga, tuntun gezurtera hori. Prueba egingo dinagu —eta beste gabe mosu handi bat eman zion; ilargiak— ai, ai, ai nigar egiten zuelarik.

Eguzkiak harriduraz ohartu zen egia zela, zeru guzian ilargi tantak, izar ttipiak gehiagotzen ikusten.

Eguzkiak, lehen bezain enamoratua eta mila bider desesperatugoa ilargiaren bidetik alde egin zuen.

Bainan hargaitik ere berriro itzal gaizka, zelatan eta itzal inguruka jarraitu zion eguzki amodioz itsutuak.

Bere ona eta nerbioak ez galtzeko atsedendaldi bat hartzea erabaki zuen ilargiak. Biderako muda garbiak, zeruko mapa handi bat, eta aldiskari sail bat hartu zituen: Goizargi, Zeruko Argia eta halako izen zerutiarrekin noski irakurtzen zihoala ustekabean honako anuntzio honekin aurkitu zen: Galaksia 001 Almazanak; Dirdilarik laboratorioek bi metrotako pertsonaiak asmatu dituzte. Zerebro eta guzti. Edozer lan egiten dute. Miniatura sailean punta puntako asmaketa. Galdetu almanenotan, Galaksia 001. Bostgarren kalean.

—Errekontxolis —esan zuen ilargiak— Badakit zer egin eta hurrengo geltokian beste laino bat hartu zuen 001 Galaksiarako.

Han sidera ino zahar bat zegoen almazaneko atea zaintzen. Ilargia ikustean galanteria handienaz erreberentzia bat egin eta ateetan zehar lagundu zion korteski: —ooh, ooh, ooh!— besterik esaten ez zuela. Kazetean bere ustetan zintarik erotikoenak ipini zituen: «Ikuitu nion», «Eta halaxen ere» eta halakoak bikinien standera eramaten zuelarik.

—Ez, ez —esan zion ilargiak— zuzendariak hitzegin nahi nuen gizon batzuk erosteko.

Zuzendaria, urte askoz dendaria izana zen eta orain tratante baten moduan mintzatu zen: —«Indartsuak eta langileak nahi badituzu, hemen euskaldunak. Apur bat buru gogorrak eta suerte txarrekoak atera zaizkigu bainan, tira! sanoak eta plantosoak, suekoak; dekoratiboak hitz batetan. Uste handikoak eta sinpleak amerikanoak. Efikazak alegia. Hara espainolak, diferenteak... eta horrela...»— Ilargia presaka zebilen eta herri bakoitzetik mila hartu zituen. Gero bagoi askotako laino bat alkilatatu zuten ludiruntz abiatzeko.

Bidean ilargiak mikrofonoa hartu eta esan zien: —«Bueno. Nik adiskide bat dut jatorra bezain itsusia dena. Eguzkia berataz maitemintzeraino nahi dut ludia apaindu dezazuen. Guziok lan egiten ba duzue amodioa eta zoriona emango dizuet»—. Laino luze hura ludira heldu

zeneko euria bezala erortzen ziren gizonak mendietan, ibarretan. Hasi ziren lanean, bakoitzak bere herria lantzen, edertzen.

Urteak pasa zirelarik, mendeak pasa zirelarik, urak errekan harria bezala, denborak jan zuen eguzkiaren amodioa.

Gizonen artean ordea, mila liskar eta sesio sortzen zihoan ludia meioratzeko etorkizunaren antolaketaz. Ia gauero ilargiarekin biltzen ziren, atsedean apur bat hartu eta teoriaren plazan talde bakoitzaren indarrak neurtzeko.

Gau hartan ere Amezketako eleiz dorrean an, an, an hamarrak jotzean, hamar eguzkiaren argia kolpe batez itzali zen, hamar trenen zarata isildu, mila eztarriren oihua eten. Eta iluntasun, isiltasun lehergarri hartan Txindokiren isladuran ilargi berria agertu zen. Euskal mendiak zuhaitz hutsetan gelditu ziren. Eta harzulo guzien aho beltzak argi oriz piztu ziren eta foko batzuk bezala Larraitz gainera konberjitzen zuten.

Berehala hango eleiza ttipitik egurrezko pulpito handi bat bizkarean Mikel Laboa agertu zen, eta ganean «Baga biga» abesten hasi. Lantegiak, kafetegiak, etxeak lehertu ziren, eta luzagabe ingurutakoak Larraitz ganean biltzen zihoazen. Larrun gainera Etxeparek «Emazteen faborez» ozenki oihukatu zuen. Han zetozen Gaurko intelektualik hoberenak, karretillatan adriluak hadinako liburuekin. Artaburu altuenak montekristo itzaliekin autografoak firmatuz, Parisko ikasle bat hango titulo guziekin rollo hijieniko bat egiten, eta Serapio jatorra galtza motxetan 200 kiloko hiztegi kuadratuarekin esibizio bat ematen. Atzetik banda militarra. Bonboak, gitarrak eta guti batzuk arpa jotzen. Asko gurgpilezko siletan. Erbalak, errenak edo zaurituak; eta osorik zetozenak ultzera aurpegiarekin. Gero «maioria isila» delakoa; lau edo bost bakarrik. Ondoren lanetik berandu ateratako jendea. Buru, langile gazte batzuk zetozen ogi artean panfleto zimur batzuk sartu eta krask, krask janaz.

Tartean arrantzale batzuk bixigu artean ogia janaz eta baserrita Gurelesako yogurt potetan behatz sendoak sartu eta txupatuz.

Larraitz ganean biltzen zen giza matasa hau maldatan behera saretu egiten zen, eta ibarretan ari finetan banatzen, bide bideska gizonez beteekin.

Eztabaidak ordena handiz egiten ziren. Zerbait esateko zuenak zuhaitz puntara igo behar zuen eta handik bere proposamenak egin. Publikoa konforme ez ba zen zuhaitzari eragin eta lurrera botatzen zuten. Tartean bersolari edo abeslari bat pulpito gainera altxa eta abesten zuenean, pareja bakoitza bere lekuan galtzen zen moduak emateko.

Orduan mila fokoren argia zegoen eta ez zen deusik ikusten. Bost harrobiren zarata eta ez zen ezer entzuten. Pareja bakoitza. Amezketako eleiz dorrean bat, bi, hiru, hamaikak, mosu emanaz jarraitzen zuten. Benitok Zuberoko hamaika kanta zahar eta parejak mosuak ematen jarraitzen zuten.

Baina derrefente kate zarata bat entzun zen. Tipo arlote bat, soinean sotana eta ezpata eskuan, pulpitoaren gainetik Benito bota eta euskera zaharrean hasi zen: —Gazte madarikatuok. Ni Aralarko San Migel naiz. Ni Nafarroako deabruari buztana mozten nenbilen bitartean(han, han egin zuen ohiartzunak eta esku batetan Aralarko deabruaren buztana jaso zuen eta bestean ezpata odolez gorritzatu bat lurruna zeriola) zuek (ek, ek ohiartzunak eta guziak ezpatari [begira] eta buztanari begira) neskatilok amurustuak eta mutilok buztanduak zabilzate ene euskal lur propioetan. Zuek zarete Euskal Herriko deabruak— eta azkoitiar inozu bati zitzila ebaki zion ezpataz.

Publikoa hatsik gabe gelditu zen une batez, baina agudo ximist argia bezala inguruetara hedatu zen jendearen protestak, ordu erdi bat iraun zuen; langile gazte sutsu bat pulpitoaren gainean zutitu eta —aberki-deok— oihukatu zuen arte. —Hanbat ordutako eztabaiden buruan —esan zuen— gure indarrak eguzkia eta ilargiaren borondatea konplitzeko erabili orde, eguzkia eta ilargia gure interesak obratzeko erabiltzea dela, erabaki dugu, herria salbatzeko bide bakarra. Proposamen hau saboteatzera datorren oro herriaren etsai da eta San Migelek kastigu bat merezi du. Hau da gure taldearen erabakia. Bi koete bidali (brum, brum, brum mila gurpileko Trailer bi agertu ziren koete bana gainean). Batak eguzkia harrapatuko du, zatitu, eta euskal sukaldetan arraultzak frejitzeko, labe altuetan burdina urtzeko eta sobratzen dena Kantauri itsasoa berotzeko erabiliko dugu. Beste koeteak ilargia ekarriko du eta Euskal Herriko partetan banatuko dugu amoranteak engainu gabe maita gaitzen.

Botazio serio hura bukatu arte txaloak entzun ziren. Herriko etsai guziak koeteetan sartu ziren, San Migel, proba, trosko eta ista asko tartean zela.

Koeteak joan, larri joan ziren, zeramaten pisuagatik. Ordea, sekula gehiago ez ziren bueltatu.

Hau, hau horrela ba zan, ez ginen sartuko kalabozan.

JOSE ANTONIO AGIRRE ODRIOZOLA


1974 URTEKO LIBURUAK

- Aintzinako sozjo-ekonomia**, Luis M.^a Muxika. Gero. Bilbao.
- Aitonaren ipuiak**, Murua'tar Ramón.
- Alderdi Komunistaren Manifestua**, K. Marx, F. Engels. Porche, S. A. Baiona.
- Antso Gartzreiz (Sancho Garcés, A. Campián-en obratik moldatua)**, Jesús M.^a Arrieta. Kimu saila. Gero. Bilbao.
- Artegitza, artista, gizartea (espiralean gogoetaka)**, Edorta Kortadi. Gero. Bilbao.
- Asekaitz**, Martin Iturbe Balda (Olerkiak. X. Azurmendiren Maiteño-rekin batean). Colección Premios Literarios Ciudad de Irún. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia.
- Bigarren poema liburua**, Xabier Lete. Gero. Bilbao.
- Cómo ha sido y cómo son los vascos. - Izakera ta jazkera** (Carácter e industrialmentaria), I, B. Estornés Lasa y varios. Ed. Auñamendi. Donostia (Lehen 195 orrialdeak eskara eta erdaraz, B. Estornés berarenak).
- Deika**, Solozabal'tar Paulin. Bilbao.
- Ekonomiako lehen pausoak** (Lehen partea eta bigarren partea, bi tomotan), Maite Rugis (X. Amurizak euskaratua). Lur. Donostia.
- Errioxa'ko San Millan euskal iturri**, Laxaga. Edili. Donostia.
- Euskutitzak**, Aita Onaindia. Larrea. Amorebieta.
- Etxahun koblakaria**, Etxahun Irurik huntü pastorala ziberotarrez (Euskara baituan ere emana, eta traduction française). García Frères inprimategia. Angelu (Anglet).
- Euskalerrria eta eriotza**, A. Arrinda. Kardaberaz bilduma. Gasteiz.
- Euskal kantak**. Toki eta urte gabe, gaurko kantariak erabiltzen dituzten kanta zahar eta kanta berri bildumazko esku-liburua, 324 orrialdekoa.

- Euskal Literatura** - II (XVIII.n.) eta III (XIX.n.), bi tomo, J. Erzibengoa - P. Ezkiaga. Kimu, Gero. Bilbao.
- Euskal Literatura**, (III. Bi menderen artean, 1895-1920), S. Onaindia. Etor. Bilbao.
- Euskara batua zertan den**, Larresoro. Jakin. Arantzazu-Oinati.
- Gazi-gazak**, Abeletxe. Edili. Donostia.
- Gipuzkoarrak gera**, Félix Elejalde (Mikel Ugaldek euskeratua). Donostia.
- Goizaldi** (XXV aniversario - XXV urtemuga), Javier M.ª Sada (J. Urrujulegik euskaratua). Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia.
- Gudari, Soldadutzarako argibideak**, Antonio Oyarzabal. Arrate. Eibar.
- Gure txistu soinuak**, Donandoniko Gaztedi. Iruña.
- Hiru gizon bakarka**, Bitoriano Gandiaga. Gero. Bilbao.
- 25 poema**, Kepa Akixo «Zigor». I.P.S.O. Anglet.
- Idek eta Zabala** (Gogo-bihotzak), Ithurraldek euskaldun gazteri. «Herria» Liburu-sailetik. Baiona.
- Industriagintza bidean** (Goiberri bailara), Siadeco. Gero Bilbao.
- Ipuiak**, J. I. Zubizarreta, F. Sagarzazu, L. Haranburu, N. Alday, M. Goenaga, J. M. Etxaburu. Colección Premios Literarios Ciudad de Irún. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia.
- Itun berria**, Orixe, Kerexeta, Zugasti. (2.en argitalpena).
- Kolonizatuaren ezagugarriak**, Albert Memmi (Euskaratzaile, Larresoro). Jakin. Arantzazu-Oinati.
- Komediak**, Shakespeare (Larrakoetxea, Bedita'k euskeratua). Kardaberaz bilduma. Gasteiz.
- Kristau-jarrerak gaurko ekonomi egoeraren aurrean - Actitudes Cristinanas ante la actual situación económica**. Notas de la Comisión Episcopal de Apostolado Social. Donostia.
- Las danzas del Corpus de Oñate** (euskaraz eta erdaraz), Iñaki Zumalde. Edic. de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia.
- Lengo egunak gogoan** (bi tomo), Uztapide. Auspoa. Tolosa.
- Lur eta gizon, Euskal Herria**, J. A. Arana, J. M. Barandiaran, R. Bozas-Urrutia, J. M. Eizagirre, J. Intxausti, A. Irigoyen, P. Lafitte, J. I. Linazasoro, J. L. Li-

- zundia, J. San Martín, J. M. Satrustegi, M. Ugalde eta L. Villasante. Jakin. Arantzazu-Oinati.
- Maiteño**, Xabier Azurmendi (Olerkiak. M. Iturbe-ren **Asekaitz**-ekin batean). Col. Premios Literarios Ciudad de Irún. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia.
- Marxen ondoko errebisionismoa. Rosa Luxemburg. Leninen bizitza**, Gotzon Garate. Gero. Bilbao.
- Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian**, P. Iztueta eta J. Apalategi. Editions Elkar. Irati saila. Baiona.
- Mendaro Txirriskata bertsolaria**, A. Zavalá. Auspoa. Tolosa.
- Mundua Euskal Erriaren gogoan - El mundo en la mente popular vasca**, B. Estornés Lasa. Edic. Auñamendi. Donostia.
- Naparroa'ko euskal-esaera zarrak**, Intzar Damaso A., «Príncipe de Viana». Iruña.
- Nere apurra**, Balendín Enbeita. Auspoa. Tolosa.
- Oiartzungo beste bost bertsolari**, Antonio Zavalá. Auspoa. Tolosa.
- Olerkiak**, Lauaxeta. Etor. Donostia.
- Orotarik**, J.-B. Etcheberry. Imp. des Cordeliers. Baiona.
- Robinson Crusoe**, Daniel De Foe (Bernardo Atxagak euskaratua. Inprimeriako huts bategatik X. Kintana jartzen da euskaratzaile, zeren lan honen zuzenketak eta oharrak egin ba zituen). Cinsa. Bilbao.
- Santa Kruz apaiza**, Orixe. Gero. Bilbao.
- Sei idazle plazara - I. (Mitzelena, Aresti, Larresoro)**, Begiarmen. Jakin. Arantzazu-Oinati.
- Xabier Lizardi, olerkari eta prosista**, X. Lete, A. Zelaieta, A. Lertxundi. Jakin. Arantzazu-Oinati.
- Zorion bidea**, M. M. Zubiaga. Izarra. Usurbil.
- Zuentzat** (Aurrentzako ipui ta irakurgaiak), Azpeitia'tar Julene. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. Donostia.

J. S. M.



PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones
Científicas en Guipúzcoa)

- Monografía de D. Xavier María de Munibe, Conde de Peñaforida**, por Gregorio de Altube.
- La Epopeya del Mar**, por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).
- Pasado y Futuro de la Real Sociedad Vascongada**, por José M.^a de Areilza. (Agotado).
- Historia del Monasterio de San Telmo**, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.
- Elogio de D. Alfonso del Valle de Lersundi**, por Joaquín de Yrizar.
- Breves Recuerdos Históricos con ocasión de una visita a Munibe**, por Ignacio de Urquijo
- La Real Sociedad Vascongada de Amigos del País y la metalurgia a fines del siglo XVIII**, por Manuel Laborde.
- El Real Seminario de Vergara en la Historia de las Escuelas de Ingenieros Industriales de España**, por Manuel Laborde.
- La vida y la obra del Conde de Peñaforida**, por el Prof. Dr. Leandro Silván.
- Bibliografía de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País en el siglo XVIII**, por Francisco Aguilar Piñal.
- Filiación de los Seminaristas del Real Seminario Patriótico Bascongado y de Nobles de Vergara**, por Julián Martínez Ruiz.
- Las Ciencias Naturales y la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País en el siglo XVIII**, por Julián Martínez Ruiz.

REVISTAS

Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.

Ejemplar suelto	75 Ptas.
Suscripción anual España	250 "
Suscripción anual extranjero	400 "
Egan: Ejemplar suelto	50 "
Suscripción anual	90 "
Munibe. — Revista de Ciencias Naturales.	
Número suelto: 30 Ptas.	

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN